

FASE ESPEZIFIKOA

FILOSOFIAREN HISTORIA

MODULUA

ARIKETAK

ERANTZUNAK

PROBA

ERANTZUNAK

BALIABIDEAK ETA
PROGRAMAZIOA




Modulua

FILOSOFIAREN HISTORIA

Unibertsitaterako sarbidea: 25 urtetik gorakoentzat

Gutxi gorabeherako iraupena: 90 ordu



AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK
2. EDUKIAK
 1. MULTZOA: FILOSOFIAREN SORRERA: PRESOKRATIKOAK. (8 ordu)
Ezagutza-adierazleak
 2. MULTZOA: IDEALISMO PLATONIKOA (10 ordu)
Ezagutza-adierazleak
 3. MULTZOA: ERREALISMO ARISTOTELIKOA (10 ordu)
Ezagutza-adierazleak
 4. MULTZOA: KRISTAUTASUNA ETA FILOSOFIA (9 ordu)
Ezagutza-adierazleak
 5. MULTZOA: ERDI AROKO FILOSOFIA (10 ordu)
Ezagutza-adierazleak.
 6. MULTZOA: ARRAZIONALISMOA (9 ordu)
Ezagutza-adierazleak
 7. MULTZOA: KANT ETA ILUSTRAZIOA (10 ordu)
Ezagutza-adierazleak
 8. MULTZOA: MARXISMOA (8 ordu)
Ezagutza-adierazleak
 9. MULTZOA: NIETZSCHEREN BITALISMOA (8 ordu)
Ezagutza-adierazleak
 10. MULTZOA: EXISTENTZIAREN FILOSOFIA ETA HIZKUNTZAREN FILOSOFIA. (8 ordu)
Ezagutza-adierazleak



1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Filosofiaren historia, funtsean, irrazionaltasunaren kontrako borrokaren narrazioa da. Hogeita sei menderen ostean, eta gure aroko bigarren milurtekoa atzean utzi dugula, irrazionaltasun modu berrien mehatxupean gaude: historia *aurrerantz* eginez jarraitu behar dugu. Horregatik hasi behar da iraganetik, orainaldia ulertu ahal izateko eta, horrela, etorkizuneko aukerei bide eman ahal izateko.

Ariketa horri esker, gure mundu-ikuskerak ulertuko dugu, bai eta zein den ere geure buruei egiten dizkiegun galderen nahiz galdera horiei ematen dizkiegun erantzunen zentzua. Funtsean, gu geu hobeto ulertzeko balioko digu. Izan ere, hemen proposatzen dugun filosofiaren historiak ez ditu arkeologia lanak egin nahi, aitzitik, gure orainaren aberasgarri izan nahi du, iraganak gudan utzi duen arrastoa agerian utzi eta arrasto horren kontzientzia izatea eragiten baitu.

Giza espezieak, gainerako animaliek ez bezala, bere buruari galderak egiteko gaitasuna eta beharra du, hots, gauza oro eta bere burua ere zalantzan jartzekoa. Jarrera hori dela eta, hainbat erantzun eman ditu antolaketa baterako bidean, errealitatea nahiz ingurunean gertatzen den oro azaltzeko saiakera koherente batean. Emandako erantzun motak gai honetako hamar multzotan bildu dira, hein batean.

Ideiak historiaren zati sortzaile dira, baina ezin ahanztu daiteke, halaber, ez direla ezer ideia horien sortzaileetatik aldenduz gero, haiek bizi zuten garaiari emandako erantzunak eta interpretazioak baitira. Horrenbestez, proposatutako eduki-multzoek pentsamendu-sistema ezberdinen sorleku izan ziren testuinguru historiko eta kulturalaren garrantzia biltzen dute.

Azkenik, filosofiak erreala denaren erroak bilatzen ditu, guztiaren zentzua bilatzen du, eta adimenaren muturreko abentura horretan, argiagoak dira galderak erantzunak baino. Argi eta garbi erakusten du hori Filosofiaren Historiak, filosofoak, bata bestearen atzetik, oinarritzko eztabaidagai berberetara itzultzen baitira, euren aurrekariak emandako erantzunez arduratu gabe.

Azken batean, hausnarketa filosofikoa berez da nahiko subertsiboa, ezarritakoa kritikatzeko baita, gizartean ezarritakoarekin ez konformatzea, duda egitea, funtsean, guztiaz...Filosofiaren barrunbean finkatuta dago edozein motatako dogma galdetu, itaundu eta ukatu egin behar dela, inongo aringarririk gabe. Segurtasun faltsu eta ez-kritikoari aurre egin eta filosofiak, funtsean, *"begibistakoa denaz galdetzea"* du helburu.

Proposatu diren ariketen atzean metodologia aktiboa erabiltzearen nahia dago, alabaina, ikasleen parte-hartzea bultzatzen duena, ezagutzak barnertzeko eta adimena erabiltzearen ohitura hartzeko. Ikuspegi metodologiko hori erdiesteko, behean oinarritzotzat edo funtsezkotzat jotzen diren helburu orokorrak zerrendatzen dira:

- Historian zehar egondako teoria eta korrante filosofikoen arteko harremana ulertzea, euren arteko antzekotasun eta ezberdintasunak aztertuz, hala nola, arazoak ikusteko moduari eta proposatutako irtenbideei dagokienez, betiere pentsaera garaikidea osatzerakoan egin duten ekarpena balioetsiz.
- Pentsamendu-sistemak sortu ziren garaietako testuinguru historiko eta kulturalak ezagutzea eta testuinguru horiek teoria filosofikoetan izan zuten eragina balioestea, kontuan hartuta, ideiak ezin direla sortu ziren ingurune sozial, kultural eta politikotik erauzi.
- Jarrera eta balore jakin batzuk sustatu edo sendotzea, hala nola, jarrera kritikoa, sormena, izpiritua pentsakorra, autonomia, azterketarako gaitasuna...
- Sentikor agertzea gainerakoen argumentu, erantzun filosofiko eta sinismenekiko, geure iritzia aberastu eta kontrastatzeko bide baitira, eta jarrera kritikoa hartzea gizarte-ezberdintasunak eta bazterketak arrazoitzeko saiakera ororen aurrean.



Gai hau eskainiko duen edozein heziketa-prozesutan, programazioak “*edukiak*” ematean oinarritu behar du. Eduki horiek “*ezagutza-adierazleek*” deskribatzen dituzten maila eta iraupenarekin lotu dira ondorengo orrietan. Izatez, adierazle horiek ebaluazio-irizpideak dira, eta, eduki-multzo bakoitzerako gai eta ereduzko ariketa diren aldetik, pertsonak menderatu behar dituzten eta begi-bistako izan behar dituzten alderdirik funtsezko eta kritikoenak adierazi nahi dituzte.

2. EDUKIAK

1. MULTZOA: FILOSOFIAREN SORRERA: PRESOKRATIKOAK (8 ordu)

Mitotik logosera

- Mitoaren ezaugarriak
- Filosofiaren sorrera azaltzen dituzten faktore edo arrazoiak.

“Arje” eta “Fisis” kontzeptuak.

Miletoko eskola

Formalismo pitagorikoa

Aldaketaren arazoa:

- Heraklito
- Parmenides
- Zenonen paradoxak

Filosofo pluralistak:

- Enpedokles
- Anaxagoras
- Demokrito

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 1.1. *Azalpen mitikoetatik azalpen arrazional edo filosofikoetara dagoen urratsa ulertu eta balioestea, eta azalpen mota horien osagarri diren elementuak ezberdintzea.*
- 1.2. *“Arje” eta “fisis” behar bezala definitzea, eta galderek filosofiaren garapenean duten garrantzia balioestea.*
- 1.3. *Talesek, Anaximenesek eta Anaximandrok “arje” gaiari emandako erantzunak identifikatu eta ezberdintzea.*
- 1.4. *Pitagorasen pentsamenduaren alderdirik adierazgarrienak ezagutzea.*
- 1.5. *Heraklitoren pasarte txikiren batzuk komentatzea eta euren esanahia zein den azaltzea.*
- 1.6. *Parmenidesen tesia Heraklitorenarekin kontrastatzea eta bien arteko ezberdintasunak zein diren adieraztea.*
- 1.7. *Elementu, homeomeria eta atomo kontzeptuak definitzea eta bakoitza dagokion pentsalariarekin lotzea.*

2. MULTZOA: IDEALISMO PLATONIKOA (10 ordu)

Testuinguru historikoa: Atenaseko demokrazia

- Periklesen mendea.
- Peloponesoko gerrak
- Oinarrizko erakundeak: Batzarra eta Kontseilua

Sofistak:

- Eszeptizismoa
- Erlatibismoa
- Konbentzionalismoa.



Sokrates

- Aipamen biografiko labur bat: “Atenaseko ezpara”
- Metodo sokratikoa.
- Etika sokratikoa: Intelektualismo morala

Platon: biografia eta obrak

- Ideien teoria
- Haitzuloaren mitoa.
- Alegoria platonikoaren sinboloak interpretatzea.
- Haitzuloaren mitoaren ondorioak:
 - ◆ Dualismo kosmologikoa.
 - ◆ Dualismo antropologikoa.
 - ◆ Ezagutze-mailak.
- Etika platonikoa:
 - ◆ Bertutea oreka gisa.
- Egoera utopiko edo ideala.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 2.1. *Gertaera historikoak ezagutzea: Peloponesoko gerrak, hogeita hamar tiranoen gobernuak, demokraziaren berrezarpena... horien funtzionamendua eta mugak aztertzea, eta sofistengan, Sokratesengan eta Platonengan izan zuten eragina ezagutzea.*
- 2.2. *Pentsamendu sofistaren ezaugarri nagusiak laburtu eta komentatzea.*
- 2.3. *Sokratesen filosofiaren oinarritzko eta jatorritzko ezaugarriak identifikatzea eta haren jarrera sofistek izandakoarekin erkatzea, eta euren arteko ezberdintasun sakonak aztertzea.*
- 2.4. *Sokratesen filosofiaren alderdirik garrantzitsuenak ezagutzea: metodoa eta etika. Intelektualismo morala eta horrek dakarrena.*
- 2.5. *Platonen biografia aztertzea eta haren bokazioa eta proiektio politikoa azaltzen duten datuak azpimarratzea.*
- 2.6. *“Haitzuloaren mitoan” ezkutatzen diren oinarritzko sinboloak ezagutu eta interpretatzea eta sinbolo horien ondorioak zein diren adieraztea.*
- 2.7. *Etika platonikoaren oinarritzko elementuak deskribatzea etika eudemonistaren oinarriak eta bertutearen askotariko zentzuak azalduz.*
- 2.8. *Platonen diseinu politikoaren ezaugarri orokorrak ezagutzea.*

3. MULTZOA: ERREALISMO ARISTOTELIKOA (10 ordu)

Aristotele eta bere mundua

- Esparru sozioekonomikoa.
- Bizitza eta obrak.

Ideien teoria platonikoari egindako kritika

- Esentziak (ideiak) ezin dira gauza sentikorretatik bananduta egon.

Logika

- Kategoriak.
- Silogismoa.

Metafisika

- Errealitate substantziala.
- Hilemorfismoa: materia eta forma.
- Ekintza eta ahalmena.

Fisika

- Lau kausak.
- Mugimendua.



- Lehen motorea

Ezagutzaren teoria

- Innatismo platonikoari egindako kritika.

Antropologia eta etika

- Zoriontasunaren bila: “erdiko termino justua” .
- Bertute dianoetikoak eta bertute etikoak.

Politika

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 3.1. *Testuinguru historikoa ezagutzea eta testuinguru horrek Aristoteleren biografian izan zuen eragina balioestea. Mazedonia eta Atenas*
- 3.2. *Idealismo platonikoari egindako kritikaren alderdi nabarmenenak zein diren adieraztea eta errealismo aristotelikoarekin kontrastatzea.*
- 3.3. *Aristoteleren biografiaren alderdi nabarmenenak laburtzea eta haren obrarik garrantzitsuenak zein diren adieraztea.*
- 3.4. *Logikaren alderdi garrantzitsuenak zein diren esatea eta silogismoaren oinarrizko elementuak aztertzea*
- 3.5. *Metafisika aristotelikoaren oinarrizko bi binomioak azaltzea: materia eta forma, ekintza eta ahalmena.*
- 3.6. *Aristotelek fisikan ezberdintzen dituen lau kausak izendatu eta definitzea.*
- 3.7. *Ezagutzaren arazoa aztertzea Aristoteleri dagokionez, eta Platonekin dituen ezadostasunak identifikatzea.*
- 3.8. *Bertute etikoak eta bertute dianoetikoak zein diren esan, definitu eta bereiztea.*
- 3.9. *Politika aristotelikoaren oinarrizko alderdiak zein diren kritikoki adierazi eta balioestea.*

4. MULTZOA: KRISTAUTASUNA ETA FILOSOFIA (9 ordu)

Testuinguru historikoa:

- Erromatar inperioaren gainbehera.
- Kristautasunaren (fedearen) eta filosofiaren (arrazoiaren) arteko talka: Funtsezko jarrerak

San Agustinen biografia eta obrak

Arrazoiaren eta fedearen arteko harremanak

Barne-bilaketa:

- Egia bada: “Erratzen banaiz, banaiz”.
- Egia barnean da: “Ez irten kanpora”.
- Zoriontasuna Egiaren jabe izatean datza.

Antropologia:

- Ikuspegi dualista: Platon kristautua.
- Askatasuna.

Historiaren osaera:

- Bi hiriak: Jerusalem eta Erroma.
- Agustinitasun politikoa: Eliza eta estatua.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 4.1. *Erromatar inperioa erori izanaren ondorioak zein izan ziren ezagutu eta balioestea, baita ondorio horiek San Agustinen historiaren filosofian izan zuten garrantzia ezagutu eta balioestea ere.*
- 4.2. *Kristautasunaren eta filosofia greziar-latindarraren artean dauden elementu komunak eta funtsezko jarrerak zerrendatzea, eta pentsamendu kristauaren ekarpen nagusiak ezagutzea.*
- 4.3. *San Agustinen biografia azaltzea, kristautasunera bihurtzeko emandako prozesua, militaratu zituen korrante filosofikoak eta korrante horiek ondoren haren obretan izan*



- zuten eragina aztertzea.*
- 4.4. *Arrazoiaren eta fedearen arteko harremanaren eredu agustindarra ezagutzea eta honako esaera honen esanahia azaltzea: "Sinistu uler dezazun, ulertu sinis dezazun"*
 - 4.5. *San Agustinek bultzatutako barne-bideak duen garrantziaz eta barne-bide horrek Egjarekin duen harremanaz ohartzea.*
 - 4.6. *Antropologia agustindarraren alderdiak askatasunarekin eta gaizkiarekin lotzea.*
 - 4.7. *Bi hirien teoriaren oinarriak aztertu eta definitzea, hirien arteko ezberdintasunak azpimarratzea eta teoria horrek Erdi Aroan zehar izan duen eragina balioestea.*

5. MULTZOA: ERDI AROA (10 ordu)

Testuinguru historiko-kulturala

- Kultura ezberdinez betetako milurtekoa:
 - ◆ Judutarrak.
 - ◆ Arabiarrek.
 - ◆ Kristauak.

Eskolastikaren sorrera

- Kultura klaustroen babesean dago.

Akinoko Santo Tomasen biografia eta obrak

- Aristoteleren kristautzea
- Arrazoiaren eta fedearen arteko harremanak
- Jainkoaren existentzia egiaztatzeko bost bideak.

XIV. mendeko krisia

- Kontzientzia demokratikoa esnatzea
- Feudalismoa pixkanaka desagertzea
- Aita Santuaren boterea ahultzea

Ockhameko Guillermoren biografia eta obrak

- Ekonomia-printzipioa eta esperientziari ematen zaion lehentasuna.
- Nominalismoa eta boluntarismoa.
- Eskolastikari kritika.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 5.1. *Aniztasunaz ohartzea eta Erdi Aroaren ikuspegi orokor bat ematea, kultura eta filosofia ezberdinak dituela kontuan hartuta.*
- 5.2. *"Eskolastika" hitzaren etimologia deskribatzea eta pentsamendu kristautik datorren korrante honen oinarritzko ezaugarriak azaltzea.*
- 5.3. *Santo Tomasen biografiaren alderdirik adierazgarrienak adieraztea, eta Aristotele kristautzearen ekarpenaz, bai eta bestelako pentsalari arabiarrek izandako eraginaz ere ohartzea.*
- 5.4. *Akinoko Santo Tomasengan arrazoiaren eta fedearen arteko harremanek duten ezaugarriak definitzea, eta San Agustinen planteamenduarekin konparatuta dauden ezberdintasunak zein diren adieraztea.*
- 5.5. *Jainkoaren existentzia egiaztatzeko bost bide edo arrazoiketa ospetsuak Akinoko Santo Tomasengan nola egituratzen diren ezagutzea.*
- 5.6. *XIV. mendeko krisia ekarri zuten faktore nagusiak zerrendatu eta aztertzea, eta faktore horiek hainbat esparrutan izan zituzten ondorioak balioestea.*
- 5.7. *Ockhamen biografiaren alderdirik esanguratsuenak laburtzea, haren garaiko krisiaren isla diren alderdiak hautatzea eta haren obrarik garrantzitsuenak adieraztea.*
- 5.8. *Ockhamen filosofian giltza diren kontzeptuak ezagutu eta definitzea, hala nola, nominalismoa, boluntarismoa eta Ockhamen ekonomia-printzipioa.*
- 5.9. *Ockhamen kritikak filosofia eskolastikoan zein alderdi jakinetan eragiten duen identifikatu eta adieraztea.*



6. MULTZOA: ARRAZIONALISMOA (9 ordu)

Testuinguru historiko-kulturala

- XVII. mendea
 - ◆ Absolutismoa eta kontraerreforma.
 - ◆ Zientzia berria: Iraultza zientifikoa:
 - ◆ Desengainu barrokoa

Arrazionalismoa versus enpirismoa

- Arrazionalismoaren ezaugarriak. Filosofo adierazgarrienak
- Enpirismoaren ezaugarriak. Filosofo adierazgarrienak

Descartesen biografia eta obrak

- Metodoa: Matematika unibertsalak.
- Zalantzatik ziurtasunera: "pentsatzen dut, beraz, banaiz"
- Errealitatearen esparruak Descartesengan: Pentsamendua, Jainkoa, Mundua.

Substantzia: definizioa eta motak:

- Substantzia pentsatzailea (Ni)
- Substantzia infinitua (Jainkoa)
- substantzia luzea (mundua)

Antropologia:

- Dualismoa
- Askatasuna eta mekanizismoa

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 6.1. *Absolutismoak, kontraerreformak, iraultza zientifikoak eta barrokoak arrazionalismo cartesiarrean izan duten eragina identifikatu eta balioestea.*
- 6.2. *XVII. mendeko korrante filosofikoak ezagutzea: arrazionalismoa eta enpirismoa, eta auren artean dituzten ikuspuntu aurkariak aztertu eta kontrastatzea.*
- 6.3. *Descartesen biografiaren alderdirik aipagarrienak aipatzea, eta Erdi Aroko eskolastika zaharraren aurrean berari hausteko izan zuen izpiritu berritzailea balioestea.*
- 6.4. *Metodoaren zatiak zein diren adieraztea eta horietako bakoitza labur-labur definitzea, kontuan hartuta zalantzatik irten eta ziurtasunera iristeko bide bakarra dela.*
- 6.5. *Lehenengo printzipioaren esanahia azaldu eta komentatzea: "Pentsatzen dut, beraz, banaiz"*
- 6.6. *Substantzia mota ezberdinak definitu eta bereiztea, eta ulertzea zer den elementu guztiak barnetik lotuta dituen sistema filosofiko bat.*
- 6.7. *Ulertu eta arrazoitzea zergatik defendatzen den hobekiago dualismo antropologiko cartesiarretik askatasunaren existentzia.*

7. MULTZOA: KANT ETA ILUSTRAZIOA (10 ordu)

Ilustrazioaren ezaugarri orokorrak (XVIII. mendea)

- "Ausartu pentsatzera": Arrazionaltasun eredu berri bat:
 - ◆ Arrazoimen enpiriko eta analitikoak
 - ◆ Arrazoimen kritikoa
 - ◆ Arrazoimen autonomoa

Kantengan eragina duten autore eta korronteak

- Wolff-en arrazionalismoa
- Enpirismoa: D. Hume "amets dogmatikorako nire iratzargailua"
- Newtonen fisika



Kant: biografia eta obrak

Arrazoimen teorikoa: Arrazoimen Hutsaren Kritika. Zer ezagutu dezaket?

- Estetika
- Analitika
- Dialektika

Arrazoimenaren alderdi praktikoa: Arrazoimen Praktikoaren Kritika, zer egin behar dut?

- Etika materialak eta etika formalak: ezaugarriak eta ezberdintasunak
 - ◆ Etika materialen akatsak.
- Etika formala eta berorren ezaugarriak
- Arrazoimen praktikokoaren postuluak.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 7.1. *Ilustrazioaren ezaugarri orokorrak laburtu eta azaltzea, eta Kanten filosofian izan zuen eragina aztertzea.*
- 7.2. *Kantengan eragiten duten korrante filosofikoak ezagutu eta zerrendatzea, eta korrante horiek Kanten ekoizpen filosofikoaren aldietan izan zuten eragina balioestea.*
- 7.3. *Kanten biografiaren alderdi nabarmenenak laburtzea eta haren obrarik garrantzitsuenak zein diren adieraztea.*
- 7.4. *Arrazoimen Hutsaren Kritikak azaltzen dituen alderdi aipagarrienak komentatu eta zehaztea, eta kritikaren egitura osatzen duten oinarritzko zatiak aztertzea.*
- 7.5. *Arrazoimen Praktikoaren Kritikaren alderdi aipagarrienak komentatu eta zehaztea, kritika horren ezaugarri nagusiak aztertzea eta Arrazoimen Hutsaren Kritikarekiko dituen ezberdintasunak azpimarratzea*
- 7.6. *Etika materialek agertzen dituzten akatsak zerrendatu eta ezagutzea, eta etika formalek agertzen dituzten ezaugarriekin erkatzea eta euren arteko ezberdintasunak ezartzea.*
- 7.7. *“Postulatu” terminoaren esanahia azaltzea, eta Kantek Arrazoimen Praktikoaren Kritikan proposatutako funtsezko postuluak zein diren adieraztea.*

8. MULTZOA: MARXISMOA (8 ordu)

XIX. mendeko egoera sozio-politikoa

- Industria iraultza eta bere ondorioak.

Marxen biografia eta obrak

Marxismoaren iturriak:

- Ezker hegeliarra
- Sozialismo utopikoa
- Anarkismoa
- Liberalismo ekonomikoa

Alienazioa eta alienatze-moduak:

- Alienatze erlijioso eta filosofikoa
- Alienatze politikoa
- Alienatze ekonomikoa

Materialismo historikoa:

- Historia interpretatzea
- Azpiegitura
- Gainegitura



EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 8.1. *Industria Iraultzaren ezaugarri eta ondorio orokorrak laburtu eta azaltzea eta horiek pentsamendu marxistan izan zuten eragina aztertzea.*
- 8.2. *Marxen biografiaren alderdi nabarmenenak aipatzea eta haren obrarik garrantzitsuenak zein diren adieraztea.*
- 8.3. *Ezker hegeliarraz zer ulertzen den ezagutzea, zer den sozialismo utopikoa, anarkismoa eta liberalismo ekonomikoa eta horiek pentsamendu marxistan izan duten eragina balioestea.*
- 8.4. *“Alineatze” kontzeptua definitzea, eta alineatze erlijioso eta filosofikoaren oinarritzko ezaugarriak azaltzea, alineatze politikoarenak eta alineatze ekonomikoarenak.*
- 8.5. *Materialismo historikoaren ezaugarri nabarmenenak ezagutu eta zerrendatzea eta hainbat kontzeptu definitu eta bereiztea, hala nola: Azpiegitura eta gainegitura*

9. MULTZOA: NIETZSCHEREN BITALISMOA (8 ordu)

XIX mendea: Nietzscheregan eragina duten korrante filosofikoak

- Positibismoa
- Eboluzionismoa
- Bitalismoa

Nietzscheren biografia eta obrak

- Bere pentsamenduaren garai nagusiak

Nietzscheren bitalismoa

- Bizitza bizi egiten da, ez da ulertzen: Dionisos eta Apolo

Europako baloreei kritika:

- Morala
- Erlijioa
- Filosofia.

Jainkoaren heriotza

- Esapide horren esanahia
- Baloreen hierarkia berri bat
- Jauntxoaren morala eta esklabuen morala
- Supergizakia.

Botere-nahia

- Nihilismoa
- Etengabeko itzulera

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 9.1. *Nietzscheregan eragina duten korrante filosofikoen funtsezko ezaugarriak zein diren aipatu eta deskribatzea.*
- 9.2. *Nietzscheren obren garai ezberdinak ezagutzea eta haren biografiaren arabera interpretatzea.*
- 9.3. *Bitalismoaren ezaugarriak definitu eta aztertzea, eta sinboloen esanahia interpretatzea: Dionisos eta Apolo.*
- 9.4. *Nietzschek bere bide hirukoitzari jarraiki, Europako kulturari egiten dion kritikaren alderdirik nabarmenenak ezagutu eta identifikatzea: morala, erlijioa eta filosofia.*
- 9.5. *“Jainkoaren heriotza” esapidearen esanahia ezagutzea, eta esapide horren ondorioak aztertzea eta Europako kulturaren garapenean dituen sustraiak identifikatzea.*
- 9.6. *Nihilismoaren oinarria definitzea eta botere-nahiarekin duen harremana aztertzea.*
- 9.7. *“Etengabeko itzulera” esapidearen esanahia ulertzea eta eredu horren alderdi positibo eta negatiboak aztertu eta balioestea.*



10. MULTZOA: EXISTENTZIAREN FILOSOFIA ETA HIZKUNTZAREN FILOSOFIA (8 ordu)

Testuinguru historikoa: XX. mendea: Filosofia gerrartean.

- Lehen Mundu Gerra
- Totalitarismoak
- Bigarren Mundu Gerra

Erantzun existentzialista:

- Aurrekariak
- Existenzialismoaren oinarrizko tesiak

Sartre: literatura eta filosofia

- Biografia eta obrak
 - ◆ “Eskenatokitik pentsatzea”
- “Gizakia alferrikako pasio bat da”: “Izan, bere baitan” eta “Izan, bere baitarako”:
- Askatasunera kondenatuak: Hautaketa betebeharrak gisa
- “Gainerakoak dira infernua”: begirada objektibatzailea

Filosofia eta hizkuntza: Filosofia “analitikoa”

- Ezaugarri orokorrak: egile eta korrante nagusiak

Wittgenstein

- Biografia eta obrak
- “Tractatus” obraren alderdi aipagarriak
 - ◆ Esaten dena eta erakusten dena: Zientzia eta etika
 - ◆ Gertakariak eta baloreak

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 10.1. XX. mendearen lehen erdiko gertaera biolentoak ezagutzea, begirada filosofikoa ezkortasunez bete zuten horiek.
- 10.2. Existenzialismoaren oinarrizko tesiak nahiz existenzialismoaren aurrekaritzat jotzen direnen ekarpenak identifikatu eta komentatzea.
- 10.3. Sartrearen biografiaren alderdi nabarmenenak laburtzea eta haren obra garrantzitsak zein diren adieraztea.
- 10.4. Sartrearen pentsamenduaren punturik nabarmenenak aipatzea eta deskribatzea, eta haren obretako pasarte txikiak komentatu eta ulertzea.
- 10.5. Mugimendu analitikoa osatzen duten korrante nagusien ezaugarri orokorrak zerrendatu eta ezagutzea.
- 10.6. Wittgensteinen biografiaren alderdi nabarmenenak laburtzea eta haren obrarik garrantzitsuenak zein diren adieraztea.
- 10.7. “Tractatus” obraren alderdi aipagarriak ezagutu eta komentatzea, eta aipatzea zein diren etikaren ezaugarriak eta etikaren eta zientziaren arteko ezberdintasunak.



3. EDUKIAK ETA SARBIDE PROBA

Sarbide-proba antolatzen eta ikasgai hau ematen duten irakasleei zenbait autoretan sakontzen laguntzeko aukerak ematearren, proposatutako hamar eduki-blokeak beheko bikote edo binomioetan bildu dira:

BIKOTE A	A AUKERA	B AUKERA
I	1. MULTZOA: FILOSOFIAREN SORRERA: PRESOKRATIKOAK	2. MULTZOA: IDEALISMO PLATONIKOA
II	3. MULTZOA: ERREALISMO ARISTOTELIKOA	4. MULTZOA: KRISTAUTASUNA ETA FILOSOFIA
III	5. MULTZOA: ERDI AROKO FILOSOFIA: AKINOKO S. TOMAS ETA OCKHAMEKO G.	6. MULTZOA: ARRAZIONALISMOA
IV	7. MULTZOA: KANT ETA ILUSTRAZIOA	8. MULTZOA: MARXISMOA
V	9. MULTZOA: NIETZSCHEREN BITALISMOA	10. MULTZOA: EXISTENTZIAREN FILOSOFIA ETA HIZKUNTZAREN FILOSOFIA

Sarbide-probak **8 galdera** izango ditu, **bost binomio edo bikoteak** osatzen dituzten **hamar multzoetako** ezagutza-adierazleekin lotutakoak.

Zortzi galderetatik lau hautatu beharko ditu ikasleak.

Bost bikote egiteak multzo ezberdinak hautatu behar izatea bermatzen du: **A Aukera eta B Aukera**. Horren arabera, 1. MULTZOA: *Filosofiaren sorrera: Presokratikoak* gaiko galdera bat tokatu bada, nahitaez agertuko da azterketan 2. MULTZOA: *Idealismo platonikoa* gaiko beste galdera bat. Galdera 7. MULTZOA: *Kant eta ilustrazioa* gaiarekin lotutakoa bada, azterketan nahitaez agertuko da 8. MULTZOA: *Marxismoa* gaiarekin lotutako beste bat, eta abar.

A AUKERAKo galderen kopurua (4 guztira) eta B AUKERAKo galderen kopurua berdina izango dira (beste 4 galdera).

Aurreko guztian oinarrituta, proba-eredu hau proposatzen da:



EDUKI BLOKEEN EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEAK

MULTZOA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK	ARIKETAK
1	1.1. Azalpen mitikoetatik azalpen arrazional edo filosofikoetara dagoen urratsa ulertu eta balioestea, eta azalpen mota horien osagarri diren elementuak ezberdintzea.	1
	1.2. "Arje" eta "fisis" behar bezala definitzea, eta galderek filosofiaren garapenean duten garrantzia balioestea.	2
	1.3. Talesek, Anaximenesek eta Anaximandrok "arje" gaiari emandako erantzunak identifikatu eta ezberdintzea.	3
	1.4. Pitagorasen pentsamenduaren alderdirik adierazgarrienak ezagutzea.	4
	1.5. Heraklitoren pasarte txikiren batzuk komentatzea eta euren esanahia zein den azaltzea.	5
	1.6. Parmenidesen tesia Heraklitorenarekin kontrastatzea eta bien arteko ezberdintasunak zein diren adieraztea.	6
	1.7. Elementu, homeomeria eta atomo kontzeptuak definitzea eta bakoitza dagokion pentsalariarekin lotzea.	7
2	2.1. Gertaera historikoak ezagutzea: Peloponesoko gerrak, hogeita hamar tiranoen gobernua, demokraziaren berrezarpena... horien funtzionamendua eta mugak aztertzea, eta sofistengan, Sokratesengan eta Platonengan izan zuten eragina ezagutzea.	8
	2.2. Pentsamendu sofistaren ezaugarri nagusiak laburtu eta komentatzea.	9
	2.3. Sokratesen filosofiaren oinarritzko eta jatorritzko ezaugarriak identifikatzea eta haren jarrera sofistek izandakoarekin erkatzea, eta euren arteko ezberdintasun sakonak aztertzea.	10
	2.4. Sokratesen filosofiaren alderdirik garrantzitsuenak ezagutzea. metodoa eta etika. Intelektualismo morala eta horrek dakarrena.	11
	2.5. Platonen biografia aztertzea eta haren bokazioa eta proiektio politikoa azaltzen duten datuak azpimarratzea.	12
	2.6. "Haitzuloaren mitoa" ezkututzen diren oinarritzko sinboloak ezagutu eta interpretatzea eta sinbolo horien ondorioak zein diren adieraztea.	13
	2.7. Etika platonikoaren oinarritzko elementuak deskribatzea etika eudemonistaren oinarriak eta bertutearen askotariko zentzuak azalduz.	14
	2.8. Platonen diseinu politikoaren ezaugarri orokorrak ezagutzea.	15
3	3.1. Testuinguru historikoa ezagutzea eta testuinguru horrek Aristoteleren biografian izan zuen eragina balioestea. Mazedonia eta Atenas	16
	3.2. Idealismo platonikoari egindako kritikaren alderdi nabarmenenak zein diren adieraztea eta errealismo aristotelikoarekin kontrastatzea.	17
	3.3. Aristoteleren biografiaren alderdi nabarmenenak laburtzea eta haren obrarik garrantzitsuenak zein diren adieraztea.	18
	3.4. Logikaren alderdi garrantzitsuenak zein diren esatea eta silogismoaren oinarritzko elementuak aztertzea.	19



	3.5. Metafisika aristotelikoaren oinarriko bi binomioak azaltzea: materia eta forma, ekintza eta ahalmena	20
	3.6. Metafisika aristotelikoaren oinarriko bi binomioak azaltzea: materia eta forma, ekintza eta potentzia	21
	3.7. Ezagutzaren arazoa aztertzea Aristoteleri dagokionez, eta Platonekin dituen ezadostasunak identifikatzea.	22
	3.8. Bertute etikoak eta bertute dianoetikoak zein diren esan, definitu eta bereiztea.	23
	3.9. Politika aristotelikoaren oinarriko alderdiak zein diren kritikoki adierazi eta balioestea.	24
4	4.1. Erromatar inperioa erori izanaren ondorioak zein izan ziren ezagutu eta balioestea, baita ondorio horiek San Agustinen historiaren filosofian izan zuten garrantzia ezagutu eta balioestea ere.	25
	4.2. Kristautasunaren eta filosofia greziar-latindarraren artean dauden elementu komunak eta funtsezko jarrerak zerrendatzea, eta pentsamendu kristauaren ekarpen nagusiak ezagutzea.	26
	4.3. San Agustinen biografia azaltzea, kristautasunera bihurtzeko emandako prozesua, militatu zuten korronte filosofikoak eta korronte horiek ondoren haren obretan izan zuten eragina aztertzea.	27
	4.4. Arrazoiaren eta fedearen arteko harremanaren eredu agustindarra ezagutzea eta honako esaera honen esanahia azaltzea: "Sinistu uler dezazun, ulertu sinis dezazun"	28
	4.5. San Agustinek bultzatutako barne-bideak duen garrantziaz eta barne-bide horrek Egiarekin duen harremanaz ohartzea.	29
	4.6. Antropologia agustindarraren alderdiak askatasunarekin eta gaizkiarekin lotzea.	30
	4.7. Bi hirien teoriaren oinarriak aztertu eta definitzea, hirien arteko ezberdintasunak azpimarratzea eta teoria horrek Erdi Aroan zehar izan duen eragina balioestea.	31
5	5.1. Aniztasunaz ohartzea eta Erdi Aroaren ikuspegi orokor bat ematea, kultura eta filosofia ezberdinak dituela kontuan hartuta.	32
	5.2. "Eskolastika" hitzaren etimologia deskribatzea eta pentsamendu kristautik datorren korronte honen oinarriko ezaugarriak azaltzea.	33
	5.3. Santo Tomasen biografiaren alderdirik adierazgarrienak adieraztea, eta Aristotele kristautzearen ekarpenaz, bai eta bestelako pentsalari arabiarrek izandako eraginaz ere ohartzea.	34
	5.4. Akinoko Santo Tomasengan arrazoiaren eta fedearen arteko harremanek duten ezaugarriak definitzea, eta San Agustinen planteamenduarekin konparatuta dauden ezberdintasunak zein diren adieraztea.	35
	5.5. Jainkoaren existentzia egiaztatzeko bost bide edo arrazoiketa ospetsuak Akinoko S. Tomasengan nola egituratzen diren ezagutzea.	36
	5.6. XIV. mendeko krisia ekarri zuten faktore nagusiak zerrendatu eta aztertzea, eta faktore horiek hainbat esparrutan izan zituzten ondorioak balioestea.	37
	5.7. Ockhamen biografiaren alderdirik esanguratsuenak laburtzea, haren garaiko krisiaren isla diren alderdiak hautatzea eta haren obrarik garrantzitsuenak adieraztea.	38
	5.8. Ockhamen filosofian giltza diren kontzeptuak ezagutu eta definitzea, hala nola, nominalismoa, boluntarismoa eta Ockhamen ekonomia-printzipioa.	39



	5.9. Ockhamen kritikak filosofia eskolastikoan zein alderdi jakinetan eragiten duen identifikatu eta adieraztea.	40
6	6.1. Absolutismoak, kontrarreformak, iraultza zientifikoak eta barrokoak arrazionalismo cartesiarrean izan duten eragina identifikatu eta balioestea.	41
	6.2. XVII. mendeko korrante filosofikoak ezagutzea: arrazionalismoa eta enpirismoa, eta auren artean dituzten ikuspuntu aurkariak aztertu eta kontrastatzea.	42
	6.3. Descartes biografiaren alderdirik aipagarrienak aipatzea, eta Erdi Aroko eskolastika zaharraren aurrean berau hausteko izan zuen izpiritu berritzailea balioestea.	43
	6.4. Metodoaren zatiak zein diren adieraztea eta horietako bakoitza labur-labur definitzea, kontuan hartuta zalantzik irten eta ziurtasunera iristeko bide bakarra dela.	44
	6.5. Lehenengo printzipioaren esanahia azaldu eta komentatzea: "pentsatzen dut, beraz, banaiz".	45
	6.6. Substantzia mota ezberdinak definitu eta bereiztea, eta ulertzea zer den elementu guztiak barnetik lotuta dituen sistema filosofiko bat.	46
	6.7. Ulertu eta arrazoitzea zergatik defendatzen den hobekiago dualismo antropologiko cartesiarretik askatasunaren existentzia.	47
7	7.1. Ilustrazioaren ezaugarri orokorrak laburtu eta azaltzea, eta Kanten filosofian izan zuen eragina aztertzea.	48
	7.2. Kantengan eragiten duten korrante filosofikoak ezagutu eta zerrendatzea, eta korrante horiek Kanten ekoizpen filosofikoaren aldietan izan zuten eragina balioestea.	49
	7.3. Kanten biografiaren alderdi nabarmenenak laburtzea eta haren obrarik garrantzitsuenak zein diren adieraztea.	50
	7.4. Arrazoimen Hutsaren Kritikak azaltzen dituen alderdi aipagarrienak komentatu eta zehaztea, eta kritikaren egitura osatzen duten oinarriko zatiak aztertzea.	51
	7.5. Arrazoimen Praktikoaren Kritikaren alderdi aipagarrienak komentatu eta zehaztea, kritika horren ezaugarri nagusiak aztertzea eta Arrazoimen Hutsaren Kritikarekiko dituen ezberdintasunak azpimarratzea.	52
	7.6. Etika materialek agertzen dituzten akatsak zerrendatu eta ezagutzea, eta etika formalek agertzen dituzten ezaugarriekin erkatzea eta euren arteko ezberdintasunak ezartzea.	53
	7.7. "Postulatu" terminoaren esanahia azaltzea, eta Kantek Arrazoimen Praktikoaren Kritikan proposatutako funtsezko postulatuak zein diren adieraztea.	54
8	8.1. Industria iraultzaren ezaugarri eta ondorio orokorrak laburtu eta azaltzea eta horiek pentsamendu marxistan izan zuten eragina aztertzea.	55
	8.2. Marxen biografiaren alderdi nabarmenenak aipatzea eta haren obrarik garrantzitsuenak zein diren adieraztea.	56
	8.3. Ezker hegeliarraz zer ulertzen den ezagutzea, zer den sozialismo utopikoa, anarkismoa eta liberalismo ekonomikoa eta horiek pentsamendu marxistan izan duten eragina balioestea.	57
	8.4. "Alienatze" kontzeptua definitzea, eta alienatze erlijioso eta filosofikoaren oinarriko ezaugarriak azaltzea, alienatze politikoarenak eta alienatze ekonomikoarenak.	58



	8.5. Materialismo historikoaren ezaugarri nabarmenenak ezagutu eta zerrendatzea eta hainbat kontzeptu definitu eta bereiztea, hala nola: Azpiegitura eta gainegitura.	59
9	9.1. Nietzscherengan eragina duten korrante filosofikoen funtsezko ezaugarriak zein diren aipatu eta deskribatzea.	60
	9.2. Nietzscheren obren garai ezberdinak ezagutzea eta haren biografiaren arabera interpretatzea.	61
	9.3. Bitalismoaren ezaugarriak definitu eta aztertzea, eta sinboloen esanahia interpretatzea: Dionisio eta Apolo.	62
	9.4. Nietzschek bere hirugarren bidean Europako kulturari egiten dion kritikaren alderdirik nabarmenenak ezagutu eta identifikatzea: moralak, erlijioa eta filosofia.	63
	9.5. "Jainkoaren heriotza" esapiderearen esanahia ezagutzea, eta esapide horren ondorioak aztertzea eta Europako kulturaren garapenean dituen erroak identifikatzea.	64
	9.6. Nihilismoaren oinarria definitzea eta botere-nahiarekin duen harremana aztertzea.	65
	9.7. "Etengabeko itzulera" esapiderearen esanahia ulertzea eta eredu horren alderdi positibo eta negatiboak aztertu eta balioestea.	66
10	10.1. XX. mendearen lehen erdiko gertaera biolentoak ezagutzea, begirada filosofikoa ezkortasunez bete zuten horiek.	67
	10.2. Existenzialismoaren oinarriko tesiak nahiz existenzialismoaren aurrekaritzat jotzen diren ekarpenak identifikatu eta komentatzea.	68
	10.3. Sartrearen biografiaren alderdi nabarmenenak laburtzea eta haren obrarik garrantzitsuenak zein diren adieraztea.	69
	10.4. Sartrearen pentsamenduaren punturik nabarmenenak aipatzea eta deskribatzea, eta haren obretako pasarte txikiak komentatu eta ulertzea.	70
	10.5. Mugimendu analitikoa osatzen duten korrante nagusien ezaugarri orokorrak zerrendatu eta ezagutzea.	71
	10.6. Wittgensteinen biografiaren alderdi nabarmenenak laburtzea eta haren obrarik garrantzitsuenak zein diren adieraztea.	72
	10.7. "Tractatus" obraren alderdi aipagarrienak ezagutu eta komentatzea, eta aipatzea zein diren etikaren ezaugarriak eta etikaren eta zientziaren arteko ezberdintasunak.	73



1. Definitu zer den mito bat, aipatu zein diren mitoen funtsezko ezaugarriak eta ondoren erantzun beheko galderari:

- a) Azaldu greziar mitologiako adibide zehatz baten bitartez zein diren greziar mitologiaren ezaugarriak.

2. Erantzun galdera hauek:

- a) “**Arje**” hitzaren esanahia: 1) Hasiera. 2) Jatorria. 3) Zaharrena, eta hortik aurrera sortzen da guztia. 4) Guztiak dira zuzenak.
- b) Egia / Gezurra: “**Fisis**” hitzak natura esan nahi du eta pentsalari hauentzat natura, funtsean, estatikoa da:

3. Lotu marra bidez filosofo bakoitza dagokion “arje”-arekin, euren ustez guztiaren sorburu den horrekin.

- Anaximenes Apeiron
- Tales Aireia
- Anaximandro Ura

4. Esan egia ala gezurra den:

Pitagorasek honako hau adierazi zuen:

- Mundua zerbait kaotikoa da.
- Kosmosaren egitura matematika da

5. Komentatu beheko aforismoen esanahia:

- “Ezin izango zinateke bi aldiz ibai berean murgildu”
- “Gerra da gauza guztien aita”
 - Zein filosofo dagozkie?
 - Zein da ezkututzen duten esanahia?


6 Beheko adierazpenak irakurrita identifikatu eta aipatu filosofoa:

- Efeson jaio zen
- Elean jaio zen
- Izakia aldaezina eta betierekoa da
- Guztia aldatzen da, ez da ezer gelditzen
- Bere obretan iritziaren bidea eta egiaren bidea bereizten dira

Baieztapen horien ondoan idatzi dagokion filosofoa: Parmenides edo Heraklito

7. Esan beheko adierazpen horiek egia ala gezurra diren:

- “Homeomeria” kontzeptua Enpedoklesekin landu zuen.
- Demokritok zehaztu zuen “Atomo” kontzeptua
- Anaxagorasek elementuaren kontzeptua landu zuen



8. Esan zein diren Platonen biografian gehien eragin zuten gertaera historikoak.

9. Azpimarratu soilik egia direnak eta arrazoitu hautatutako aukerak:

Sofistek:

- Natura ikertzen dute
- Egia erlatiboa dela uste dute
- Erretorikarako gaitasun eskasa ageri dute

10. Irakurri arretaz beheko zerrenda eta esan zein baieztapen etorriko liratekeen bat sofistek, Sofisten filosofiarekin eta zein Sokratesen filosofiarekin, komentatu baieztapenaren edukia eta aztertu bi filosofien arteko ezberdintasunak:

- Ezagut ezazu zeure burua.
- Errealitatea ikusten dena baino ez da
- Egia existituko balitz ere, ezingo genuke ezagutu

11. Erantzun ondorengo galderak.

- Esan zein diren metodo sokratikoaren oinarriko zatiak
- Egia / Gezurra: Sokratesek...
 - jakintza eta bertutea identifikatzen ditu.
 - garrantzi handia ematen dio nahiari bere etikan.
 - dio, norberaren ezjakintasuna onartzea jakintsuen berezko jarrera dela.
 - egia erlatiboa dela uste du

12. Komentatu beheko pasartearen esanahia eta aipatu zein harreman duen Platonen biografiarekin.

"Gizakiari ez zaizkio zoritxarrak bukatuko benetako filosofo huts-garbiak boterera iritsi arte, edota hirietako buruak (polisetakoak), jainkoaren grazia bereziak bultzatuta, filosofatzen hasten ez badira " (VII. Karta).

13. Irakurri zehatz-mehatz beheko testua eta erantzun egiten zaizkizun galderari:

1. Testua

-“Hauxe da, hain zuzen ere, Glaucon maitea, gure izatearen irudia.

Lurrazpiko haitzuloa da ageriko mundua. Mundu hau argitzen duen sua eguzkiaren argia da. Goiko eskualdera igo eta bertako mirariak ikusten dituen preso hau **arima** da, **mundu ulergarrira** igotzen dena. Horixe da nik uste dudana, jakin nahi duzunez; Jainkoak bakarrik daki hori egia den. Dena den, nik uste mundu ulergarriaren azken mugetan dagoela **ongiaren ideia**; zaila da ideia hori ikustea baina ikusi eta ondorioztatzen dugu berori dela ederra eta ona den guztiaren arrazoia. Ideia horrek sortzen dituela, ikusten dugun munduan, argia eta argi horren jatorri den izarra. Ideia horrek sortzen dituela, halaber, mundu ulergarrian, egia eta inteligentzia. Eta azkenik, ideia horretan finko mantendu behar direla begiak jakituriaz bideratzeko, nola bizitza pribatuan nola publikoan. Nik ere horrela ikusten dut, esan zuen, jarraitu ere egin zaitzaket. [. . .]

- Testuari jarraiki, zein da Platonen iritziz ideiarik garrantzitsuena?
- Azaldu azpimarratuta azaltzen diren terminoen esanahia:



14. Erantzun ondorengo galderak:

- a) Egia / Gezurra: Platonen arabera:
- Bertutea arimaren zati ezberdinen artean egon behar duen oreka da.
 - Zuhurtasunak erregulatzen du zati haserrekorra.
 - Sendotasunak erregulatzen du irritsa.
- b) Platonek hiru zati edo maila bereizten ditu ariman, zein dira? Zein da garrantzitsuena?

15. Esan zein diren Platonek aipatzen dituen gobernu motak

16. Aztertu testuinguru historikoa: Mazedonia eta Atenas, eta aipatu Aristoteleren biografian eragin gehien izan zuten alderdiak.

17. Beheko baieztapen hauek Aristoteleri egiten diote erreferentzia, esan egia ala gezurra diren:

- Esentzien mundu abstraktu eta aldaezinean oinarritzen da.
- Esentziak mundu sentikorretik bananduta existitu daitezke.

18. Esan zein diren Aristoteleren obra nagusiak eta sailkatu edo taldekatu itzazu gaiaren arabera

19. Erantzun galdera hauek.

- a) Silogismoaren funtsezko egitura
b) Esan zein diren silogismoaren funtsezko terminoak

20. Esan zein den aukera zuzena:

- a) Aristoteleren teoria honen arabera, substantziak materia eta formaz osatzen dira: 1) Materialismoa. 2) Esoterismoa. 3) Hilemorfismoa. 4) Silogismoa.

21. Identifikatu beheko adibidean lau kausak, hots, kausa arazlea, materiala, formala eta xedezkoa, eta eman horietako bakoitzarentzat definizio labur bat:

Fidias eskulturagile handia sirena baten eskultura lantzen edo zizelkatzen ari da marmolezko bloke batean Partenoia apaintzeko.

22. Beheko baieztapen hauek Aristoteleri egiten diote erreferentzia, esan egia ala gezurra diren:

- a) Ezagutzea gogoratzea da
b) Badira sortzetiko ideiak
c) Jaiotzean gure gogoa hutsik da. Ezagutza zentzumeneke ematen diguten informazioaren bitartez jasotzen dugu
d) Ezagutza zehaztasunetik abstraktura doan prozesua da.



23. Azaldu Aristoteleren baieztapen honen esanahia:

“Bertutea erdiko terminoan dago”.

24. Beheko baieztapen hauek Aristoteleri egiten diote erreferentzia, esan egia ala gezurra diren:

- a) Gizakia funtsean politikoa den izakia da.
- b) Gizakiak ez du giza komunitaterik behar burutu ahal izateko.
- c) Erdi mailako klasea gehiengo izatea neurritasunaren eta egonkortasunaren sinonimo da.

25. Azaldu erromatar inperioa erori izanak zein ondorio izan zituen San Agustinen historiaren filosofian.

26. Esan zein diren kristautasunak kultura grekolatindarrari ematen dizkion funtsezko ezaugarriak, eta aztertu zein izan ziren tirabira handienak eragin zituzten puntuak.

27. Esan zein pentsamendu-korronte ezberdinetan militatu zuen San Agustinek eta atzeman zein eragin izan zuten korronte horiek bere filosofia lantzeko garaian.

28. Azaldu nola ikusten dituen San Agustinek arrazoiaren eta fedearen arteko harremanak.

29. Erantzun San Agustinen pentsamenduari buruzko oinarrizko galdera hauek:

- a) Nola frogatzen du San Agustinek egiaren existentzia?
- b) Non bilatu behar da egia?

30. Azaldu modu eskematikoan, hau da, gidoi bidez, San Agustinen antropologiaren funtsezko ezaugarriak.

31. Esan zein diren “Bi hiriak” lanaren funtsezko ezaugarriak eta azaldu horietatik nabarmenenak.

32. Ados egongo al zinateke honako tesi edo baieztapenekin? Arrazoitu erantzunak

- a) Erdi Aroa milurteko kulturantza da
- b) Gai nagusietako bat arrazoiaren eta fedearen arteko harremanak izan zen

33. Zer da eskolastika eta zein dira funtsezko ezaugarriak?

34. Identifikatu eta zerrendatu Santo Tomasengan eragina izan zuten egileak



35. Esan beheko baieztapenak egia ala gezurra diren, eta arrazoitu esanez ia modu fidagarrian gordetzen duten Santo Tomasen pentsamendua arrazoiaren eta fedearen arteko harremanei buruz:

- a) Arrazoiak ezin dezake Jainkoa existitzen denik frogatu
- b) Arrazoiak egia teologiko guztiak frogatu ditzake.

36. Azaldu zein den Akinoko Santo Tomasen argumentuek duten egitura Jainkoa existitzen dela egiaztatzeko.

37. Esan zein diren eta laburtu XIV. mendeko krisia ekarri zuten faktore nagusiak.

38. Laburtu Ockhamen biografiaren alderdirik esanguratsuenak, eta esan zein alderdik islatzen duten haren garaiko krisia eta problematika.

39. Definitu Ockhamen filosofiaren giltzarri diren honako kontzeptu hauek:

- a) Nominalismoa
- b) Ekonomia-printzipioa

40. Esan zein diren Ockhamek kritikaturako filosofia eskolastikoaren funtsezko alderdiak

41. Esan zein diren eta laburtu XVII. mendeko alderdi politiko, filosofiko, zientifiko eta kulturalak eta aipatu alderdi horiek Descartesen filosofian izan zuten eragina.

42. Identifikatu zein diren arrazionalismoari dagozkien ezaugarriak eta zein diren enpirismoari dagozkienak:

- a) Gure ideia guztiak jasotakoak dira
- b) Baliozkoa den ezagutza-iturri bakarra arrazoiarena da.
- c) Sortzetiko ideiak badirela baieztatzen du.
- d) Gure ezagutza guztiaren iturria esperientzia da
- e) Ez dago sortzetikoa den ideiarik: Ez dago ezer ulermenean aurretik zentzumenetatik pasa ez denik.

43. Laburtu Descartesen biografiaren alderdirik nabarmenenak, eta komentatu eta azaldu beheko pasartearen esanahia:

"Hegelen arabera, Descartes "pentsamendu modernoaren heroia" da, dama greziarra Erdi Aroko zaldunetik askatu eta modernotasunaren bide beritik eramaten baitu"

44. Esan zein diren eta definitu metodoaren zatiak Descartesen arabera.



45. Behean aipatzen diren ezaugarrietatik, esan zein egokitzen den hobekien Descartesen printzipio ospetsura: “pentsatzen dut, beraz, banaiz”:

- a) Lehenik pentsamendua jasotzen da eta gero existentzia.
- b) Pentsamendua eta existentzia, biak batera jasotzen dira
- c) Filosofia cartesiarraren lehen printzipioa da.

46. Definitu zer den substantzia Descartesentzat eta esan zein diren bereizten dituen substantzia motak, substantzia horien funtsezko ezaugarriak zein diren adieraziz.

47. Esan beheko adierazpen horiek egia ala gezurra diren:

- a) Descartesek arima-gorputza dualismo antropologikora jotzen du giza askatasuna defendatzeko.
- b) Askatasuna axolagabetasun hutsa da.

Arrazoitu hautatutako aukerak.

48. Laburtu eta azaldu ilustrazioaren ezaugarri orokorrak eta azaldu arrazionaltasun eredu berri horren oinarrizko alderdiak.

49. Esan zein diren eta laburtu Kantengan eragin zuten autore edo korronte nagusien ezaugarriak.

50. Azaldu Kanten biografiaren alderdi nabarmenenak eta esan zein diren haren obrarik garrantzitsuenak.

51. Erantzun Arrazoimen Hutsaren Kritikari buruzko galdera hauek:

- a) Zein galdera erantzun nahi du Kantek Arrazoimen Hutsaren Kritikarekin?
- b) Esan zein diren Kritika osatzen duten funtsezko zatiak.
- c) Esan beheko adierazpen horiek egia ala gezurra diren:
 - Estetikan Kantek fisika zientzia gisa hartzeko aukera aztertzen du.
 - Dialektikan Kantek metafisika zientziazat hartzea posible den aztertzen du.
 - Analitikan Kantek matematika zientziazat hartzeko aukera aztertzen du.

52. Esan zein diren Arrazoimen Hutsaren Kritikaren eta Arrazoimen Praktikoaren Kritikaren artean dauden funtsezko ezberdintasunak.

53. Esan beheko ezaugarrietatik zein dagozkien “etika material” deritzanei eta zein dagozkien Kanten etika formalari:

- a) Autonomoak dira.
- b) Inperatibo hipotetikoak ematen dituzte.
- c) Edukia dute.
- d) Inperatibo kategorikoak ematen dituzte.
- e) Edukirik gabeak
- f) Heteronomoak dira.



54. Azaldu “postulatu” terminoaren esanahia, eta adierazi zein diren Kantek Arrazoimen Praktikoaren Kritikan proposatutako funtsezko postulatuak.
55. Esan zein diren Industria Iraultzaren adierazgarri diren funtsezko faktoreak eta aipatu zein izan den horiek Marxen filosofian izan duten eragina.
56. Laburtu Marxen datu biografikorik garrantzitsuenak eta aipatu haren obrarik aipagarrienak.
57. Lotu Marxengan eragina izan zuten egile eta korronteei buruzko bi zutabe hauek:
- | | |
|---------------|------------------------|
| • Saint Simon | Anarkismoa |
| • Feuerbach | Sozialismo utopikoa |
| • Adam Smith | Hegeliar ezkerria |
| • Proudhon | Liberalismo ekonomikoa |
58. Azaldu alienatze hitzaren esanahia eta zerrendatu eta azaldu modu eskematikoan Marxek bereizten dituen alienatze mota ezberdinak.
59. Pentsamendu marxistaren ortodoxiatik ikusita, esan beheko baieztapenak egia ala gezurra diren:
- Iraultza gainegitura aldatzera bideratuta egon behar da.
 - Egitura ekonomikoa da gizartearen benetako oinarria.
 - Azpiegiturak zehaztu edo baldintzatzen du gainegitura.
60. Esan zein diren Nietzscheregan eragina duten korronte filosofikoak.
61. Aipatu Nietzscheren obren garai ezberdinak eta interpretatu itzazu haren biografiaren arabera.
62. “Dionisio Apoloren aurrean”: Azaldu zein den aurkakotasun horrek duen esanahia Nietzscheren filosofian.
63. Esan “jauntxoaren moralaren” eta “esklaboaren moralaren” artean dauden funtsezko ezberdintasunak eta azaldu “ahulen moralari” egiten dion kritikaren funtsa.
64. Azaldu Jainkoaren heriotzarekin lotuta dauden sinbolo hauen esanahia, Nietzscheren obran azaltzen dira (“Horrela mintzatu zen Zaratustra” obran).
- a) Gamelua
 - b) Lehoia
 - c) Haurra



65. Azaldu Nietzscheren filosofiaren bi termino hauen esanahia:

- a) Nihilismoa
- b) Botere-nahia

66. Beheko adierazpenek Nietzscheren filosofiaren etengabeko itzulera teoriari egiten diote erreferentzia. Esan egia ala gezurra diren:

- a) Etengabeko itzuleraren teoria kexa bat da, denbora lerro batean irudikatzearen aurka
- b) Etengabeko itzuleraren teoriari esker nahiak iragana nahi izan dezake.
- c) Etengabeko itzuleraren ideia ezkorra da funtsean
- d) Etengabeko itzulerak "baietz" esaten dio bizitzari eta botere-nahia agertzen duen munduari.

67. Esan zein izan ziren eta komentatu labur-labur XX. mendearen lehen erdiko gertaera biolentoak, ikuspegi filosofikoa ezkortasunez bete zutenak eta existentzialismoan eragin erabakigarria izan zutenak. (Mundu gerrak eta totalitarismoak)

68. Erantzun existentzialismoari buruzko beheko galdera hauek, esan egia ala gezurra diren.

- a) Esentzia existentziaren aurretik dago
- b) Norbanakoaren berezitasunak du garrantzia, ez ideia abstraktuek

69. Aipatu Sartreren obratako batzuk (filosofia, antzerkia edo eleberria) eta egin horietako baten laburpen txiki bat.

70. Beheko esapideek Sartreren filosofiari egiten diote erreferentzia, komentatu esan nahi dutena.

- a) "Gizakia alferrikako pasio bat da":
- b) "Askatasunera kondenatuta gaude"

71. Aipatu zein diren mugimendu analitikoari dagozkion korronte nagusiak eta esan zein diren korronte horien ordezkari garbienak

72. Laburtu Wittgensteinen biografiaren alderdi nabarmenenak eta esan zein diren haren obrarik garrantzitsuenak.

73. Behekoak zientziaren eta etikaren ezaugarriei buruzko adierazpenak dira, Wittgensteini jarraiki. Esan egia ala gezurra diren:

- a) Etikak gertakariak deskribatzen ditu
- b) Zientzia-judizioak balio-judizioak dira
- c) Zientzia mundukoa da
- d) Etika subjektuarena da



EDUKI BLOKEEN EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEEN ERANTZUNAK

1. Definitu zer den mito bat, aipatu zein diren mitoen funtsezko ezaugarriak eta ondoren erantzun beheko galderari:

- a) Azaldu greziar mitologiako adibide zehatzen baten bitartez zein diren greziar mitologiaren ezaugarriak.

Erantzuna:

“Mito” hitzak adierazpidea, mezua, kontatzen den zerbait esan nahi du. Ezohiko gertakariei buruzko kondairazko kontakizunak dira, orokorrean munduaren sorrerari buruzkoak, gizateriari buruzkoak... Fabulen edo alegoriazko fikzioen bitartez, oinarritzkoak diren gertakariak islatzen dira mitoetan, alegia, gizarte-arauak arrazoitzen dituztenak, sineskeriak, ohiturak... Mitoak irudimena, edertasun literarioa eta sormena pilatzen ditu. Hona hemen ezaugarri nagusiak:

- Mitoa **funtsik gabeko pentsamendua** da.
- **Kritikarik egiten ez** duen pentsamendua da.
- **Pentsamendu antropomorfikoa** da. Jainkoei gizakien izateko modua aplikatzen diete: haserre edo samina Zeusi aplikatzen zaion giza ezaugarri bat da, eta trumoiak eta tximistak azaltzeko erabiltzen dira.
- **Naturako indarrak jainkotu egiten dira:** Haizea azaltzeko Eolo jainkoa erabiltzen da, Atlas jainkoak lurra eusten du, tximista Zeus jainkoaren haserrearen ondorioa da, etab. Filosofiarekin emango da, hain zuzen ere, **erantzun mitikoetatik erantzun logikoetarako urratsa**, mitotik “Logos”-erako urratsa.

2. Erantzun galdera hauek:

- a) “**Arje**” hitzaren esanahia: 1) Hasiera. 2) Jatorria. 3) Zaharrena, eta hortik aurrera sortzen da guztia. 4) Guztiak dira zuzenak.
- b) Egia / Gezurra: “**Fisis**” hitzak natura esan nahi du eta pentsalari hauentzat natura, funtsean, estatikoa da.

Erantzuna:


- a) 4) **Guztiak dira zuzenak.** Izan ere, “arje” hitzak **hasiera**, guztiaren **jatorria** esan nahi du. Horrela bada, hasiera edo jatorria **zaharrena** da, eta hortik hasita osatzen da kosmosa edo mundua.
- b) **Egia da** “fisis” hitzak natura esan nahi duela, baina natura ez da estatikoa, **dinamikoa** baizik. Beraz, egokiena litzateke esatea “**fisis**” hitzak natura esan nahi duela eta pentsalari hauentzat natura dinamikoa dela funtsean.

3. Lotu marra bidez filosofo bakoitza dagokion “arje”-arekin, euren ustez guztiaren sorburu den horrekin.

- | | |
|---------------|---------|
| • Anaximenes | Apeiron |
| • Tales | Airea |
| • Anaximandro | Ura |

Erantzuna:

- | | |
|---------------|---------|
| • Anaximenes | Airea |
| • Tales | Ura |
| • Anaximandro | Apeiron |



4. Esan egia ala gezurra den:

Pitagorasek honako hau adierazi zuen:

- Mundua zerbait kaotikoa da.
- Kosmosaren egitura matematika da

Erantzuna:

- **Gezurra da mundua zerbait kaotikoa dela.** Mundua ordenatua da (kosmos, ez kaos): munduak egitura harmonikoa du, zenbakizko proportzioetara murriztu daitekeen musikaren antzera.
- **Egia da kosmosaren egitura edo forma matematikoa dela.** Geroago Galileok esango duen moduan: "unibertsoak matematikaren hizkuntza hitz egiten du". Gauza guztiak azal daitezke zenbakien bitartez.

5. Komentatu beheko aforismoen esanahia:

- "Ezin izango zinateke bi aldiz ibai berean murgildu"
- "Gerra da gauza guztien aita"
 - Zein filosofi dagozkie?
 - Zein da ezkututzen duten esanahia?

Erantzuna:

Bi aforismoak Heraklitorenak dira eta hona esan nahi dutena:

- **"Ezin izango zinateke bi aldiz ibai berean murgildu"** esaldiak naturak jasaten duen etengabeko aldaketa islatzen du, hots, **tentsioa eta dinamismoa**. Naturan dena dago etengabe aldatzen, erreka bateko ur-emariari gertatzen zaion bezala, urak etengabe berritzen baitira. Errekako emaria Heraklitoren filosofiaren sinboloa da: "Panta rei": "Guztia dabil, ez da ezer gelditzen"
- **"Gerra da gauza guztien aita"**: Naturak jasaten duen etengabeko dinamismo hori etengabe aurrez aurre dauden aurkarien arteko borrokak azaltzen du: Hotza – beroa, gaztetasuna-zahartzarua, eguna – gaua. Aurkarien arteko borroka edo gerra horrek sortzen du naturaren dinamismoa azalduko lukeen tentsioa. Aurkarien edo antitesien borroka horixe biltzen du Hegelen metodo dialektikoak. Marxek esango du klaseen arteko borroka dela historiaren motorra. Ikusi daitekeen moduan, Heraklitoren itzala luzea da.

6. Beheko adierazpenak irakurrita identifikatu eta aipatu filosofoa:

- Efeson jaio zen.
- Elean jaio zen.
- Izakia aldaezina eta betierekoa da.
- Guztia aldatzen da, ez da ezer gelditzen.
- Bere obretan iritziaren bidea eta egiaren bidea bereizten dira.

Erantzuna:

- Efeson jaio zen. **Heraklito**
- Elean jaio zen. **Parmenides**
- Izakia aldaezina eta betierekoa da. **Parmenides**
- Guztia aldatzen da, ez da ezer gelditzen. **Heraklito**
- Bere obretan iritziaren bidea eta egiaren bidea bereizten dira. **Parmenides**



7. Esan beheko adierazpen horiek egia ala gezurra diren:

- “Homeomeria” kontzeptua Enpedoklesekin landu zuen.
- Demokritok zehaztu zuen “Atomo” kontzeptua.
- Anaxagorasek elementuaren kontzeptua landu zuen.

Erantzuna:

- “Homeomeria” kontzeptua Enpedoklesekin landu zuen. **Gezurra da**, kontzeptu hori Anaxagorasi baitagokio.
- Demokritok zehaztu zuen “Atomo” kontzeptua. **Egia da**. Demokritok zehaztu zuen termino hori, grekeraz “banaketarik gabea” esan nahi duena.
- Anaxagorasek elementuaren kontzeptua landu zuen. **Gezurra da**. “Elementu” kontzeptua Enpedoklesi dagokio.

8. Esan zein diren Platonen biografian gehien eragin zuten gertaera historikoak.

Erantzuna:

Hona hemen eragin gehien izan zuten gertaera historikoak.

- **Peloponesoko gerrak**. Gerra hauek Atenasen (demokraziaren) eta Espartaren (aristokraziaren) arteko borroka baino askoz gehiago izan ziren, bizitza eta gizartea ulertzeko modu ezberdin bat islatu baitzuten.
- **Sokratesen heriotza**. Platonek idatzitako “Sokratesen Apologia” obraren arabera, Sokrates heriotzera kondenatu zuen, bidegabe, ezarri berria zen demokraziak (K.a. 399), 30 tiranoen gobernuak izan zen parentesi laburraren ostean. Hainbeste miresten zuen maisuaren heriotzak, Sokratesen heriotzak, eragin handia izan zuen Platon gaztearengan.

9. Azpimarratu soilik egia direnak eta arrazoitu hautatutako aukerak:

Sofistek:

- a) Natura ikertzen dute
- b) Egia erlatiboa dela uste dute
- c) Erretorikarako gaitasun eskasa ageri dute

Erantzuna:

Sofistek:

- a) Natura ikertzen dute
- b) **Egia erlatiboa dela uste dute**
- c) Erretorikarako gaitasun eskasa ageri dute

“b” esaldia bakarrik da egia. **Gainerakoak**, garbi dago, **gezurra dira**.

- a) **Gezurra da sofistek natura ikertzen dutela**, euren benetako interesgunea **gizakia** baita. “Arje” gai zaharraren ordean gai antropologikoak hartzen dituzte: politika, hezkuntza eta gizartea. Euren buruei ez diete galdetzen naturari buruz (fisis) edota kosmosari buruz, baizik eta gizakiari buruz.
- b) Horrela bada, egia erlatiboa dela uste dute, guztia dagoela ikuspuntuaren arabera. Protagorasek esan zuen moduan: “*Gizakia da gauza guztien neurria*”. Ez dago, beraz, egia absoluturik, norberaren egia baino ez dago. Ez dago egirik, ez eta unibertsalki baliozkoa den legerik ere.
- c) Erabat **gezurra da**. Oratoriaren eta erretorikaren maisu ziren. Ikasleak “poliseko” bizitza aktiborako hezten eta prestatzen zituzten. Hizkuntza menderatzea eta erretorikarako eta politikarako gaitasuna lortzea zen helburua, edozein gairen inguruan arrazoitu, konbentzitu eta alde biak erakutsi ahal izateko.



10. Irakurri arretaz beheko zerrenda eta esan zein baieztapen etorriko liratekeen bat sofistak filosofiarekin eta zein Sokratesen filosofiarekin, komentatu baieztapenaren edukia eta aztertu bi filosofien arteko ezberdintasunak:

- Ezagut ezazu zeure burua.
- Errealitatea ikusten dena baino ez da
- Egia existituko balitz ere, ezingo genuke ezagutu

Erantzuna:

- **Ezagut ezazu zeure burua. Sokrates:** Sokratesen filosofia barnealdera joateko egiten duen gonbidapen da. Dagoeneko helburu nagusia ez da unibertsoa edo natura ezagutzea, baizik eta norbera ezagutzea.
- **Errealitatea itxurakeria baino ez da. Sofistak:** Sofistek "izatea" eta "zerbaiten irudia ematea" nahasten dituzte. "*Horrela da, horrela iruditzen baldin bazaizue*". "*Errealitatea ikusten dena baino ez da*". Erlatibismoaren ondorio bat da. Adierazpen horren aurrez aurre daude Sokrates eta Platon, horientzat itxurek engainatu egiten baitute eta, beraz, gauzen **esentziara** iritsi beharra dago, gauzak "**benetan diren**" horretara, gauzak "**diruditen**" horri aurre egiteko. Platonen haitzuloaren mito ospetsuak tesi hori baieztatzen du, hain zuzen ere: itxuren itzalez haraindi, ideien benetako errealitatea dago.
- **Egia existituko balitz ere, ezingo genuke ezagutu. Sofistak:** Gorgias sofistaren eszeptizismoaren printzipioetako bat da. Gizakiaren ulermenak egia ezagutu ahal izateko duen ezintasunari edo mugari egiten dio erreferentzia.

11. Erantzun ondorengo galderak.

- a) Esan zein diren metodo sokratikoaren oinarritzko zatiak
- b) Egia / Gezurra: Sokratesek...
 - jakintza eta bertutea identifikatzen ditu.
 - garrantzi handia ematen dio nahiari bere etikan.
 - dio, norberaren ezjakintasuna onartzea jakintsuen berezko jarrera dela.
 - egia erlatiboa dela uste du

Erantzuna:

- a) Hauek dira metodo sokratikoaren oinarritzko zatiak:
 - **Ironia:** Metodoaren zati negatiboa. Norberaren ezjakintasuna onartzean datza: "Bakarrik dakit ez dakidala ezer"
 - **Majeutika.** Metodo sokratikoaren zati positiboa. "Majeutika" hitzak egiaz erditzea, egia izatea esan nahi du. Sokratesek inetelektualtzat zuen bere burua, gainerakoei barruan zuten egia ateratzen laguntzen ziena.
 - **Definizioa:** gauzen muinera iristea. Hitez deskubritu den egia formulatzea, "Eidos" edo esentziara iristea, hau da, gauzak benetan diren horretara
- b) **Egia / Gezurra: Sokratesek...**
 - jakintza eta bertutea identifikatzen ditu. **Egia.** Horretan datza, hain zuzen ere, haren intelektualismo morala.
 - garrantzi handia ematen dio nahiari bere etikan. **Gezurra.** Gehiegizko garrantzia ematen dio ulermenari (intelektualismoari) eta nahia baztertzan du.
 - dio, norberaren ezjakintasuna onartzea jakintsuen berezko jarrera dela. **Egia.** Ikusi berri dugun moduan, horretantxe datza ironiak.
 - egia erlatiboa dela uste du **Gezurra.** Baieztapen hau sofistena da, ez Sokratesena



12. Komentatu beheko pasartearen esanahia eta aipatu zein harreman duen Platonen biografiarekin.

"Gizakiari ez zaizkio zoritxarrak bukatuko benetako filosofo huts-garbiak boterera iritsi arte, edota hirietako buruak (polisetakoak), jainkoaren grazia bereziak bultzatuta, filosofatzen hasten ez badira " (VII. Karta).

Erantzuna:

Hortxe biltzen da Platonen proiektu filosofiko osoa. Horrela bada, haren filosofiak helburu politikoa du, argi eta garbi. Sirakusara egindako bidaien helburua politikan parte-hartzea zen erreforma-proiektuak aurrera eramateko. Bere obsesioa filosofo agintariaren ideala lortzea da, eta horregatik bidaiatuko du hiru aldiz hiri horretara, agintariaren boterea eta filosofoaren arrazoia uztartzeko nahiak bultzatuta. Sirakusako tiranoa filosofiara bihurtzeko ametsak porrot egin zuen eta Platonek ezin izan zuen bere ametsa beteta ikusi. Atenasen Akademia sortu zuenean, Platonen helburuetako bat egun batean agintzera iritsiko ziren filosofoak trebatzea zen. Horrenbestez, bokazio politikoa izango da Platonen biografiaren bizkarrezurra.

13. Irakurri zehatz-mehatz beheko testua eta erantzun egiten zaizkizun galderei:

Haitzuloaren mitoa

-“Hauxe da, hain zuzen ere, Glaucon maitea, gure izatearen irudia.

Lurrazpiko haitzuloa da ageriko mundua. Mundu hau argitzen duen sua eguzkiaren argia da. Goiko eskualdera igo eta bertako mirariak ikusten dituen preso hau **arima** da, **mundu ulergarrira** igotzen dena. Horixe da nik uste dudana, jakin nahi duzunez; Jainkoak bakarrik daki hori egia den. Dena den, nik uste mundu ulergarriaren azken mugetan dagoela **ongiaren ideia**; zaila da ideia hori ikustea baina ikusi eta ondorioztatzen dugu berori dela ederra eta ona den guztiaren arrazoia. Ideia horrek sortzen dituela, ikusten dugun munduan, argia eta argi horren jatorri den izarra. Ideia horrek sortzen dituela, halaber, mundu ulergarrian, egia eta inteligentzia. Eta azkenik, ideia horretan finko mantendu behar direla begiak jakituriaz bideratzeko, nola bizitza pribatuan nola publikoan. Nik ere horrela ikusten dut, esan zuen, jarraitu ere egin zaitzaket. [. . .]

(Errepublika VII; 514a_517c eta 518b_d. (R. Verneaux, "Textos de los grandes filósofos. Edad antigua", Herder, Bartzelona 1982, 26-30 or.).)

Erantzuna:

- **Testuari jarraiki, zein da Platonen iritziz ideiarik garrantzitsuena?** Ideiarik garrantzitsuena **ongiaren** ideia da, Platonek **eguzkiaren** bitartez identifikatzen du haitzuloaren mito ospetsuan. Horixe da ideiarik bikainena, eta posturik altuen betetzen du ideien hierarkian. Ongiaren ideiatik datoz, hain zuzen ere, honako ideia hauek: edertasunaren ideia eta justiziaren ideia. **Ongia**, **edertasuna** eta **justizia** dira ideiarik garrantzitsuenak pentsamendu platonikoan. Alegoria platonikoaren arabera, eguzki-argiak (ongiak), ezjakintasunaren haitzuloan dauden itxurakeriaren itzalak ezabatu edo argiztatzen ditu. Bestalde, ongiaren ideiak zentzumenen kateetatik askatzen gaitu, kate horiek itxuraren itzaletara lotzen baikaituzte. Horrela, mundu ulergarriaren edo ideien munduaren argira hurbiltzen gaitu, eta gorputzean preso zen arima ideien mundura igotzen du. Platonen mezua argia eta sendoa da: "ongia ezagutzea" ezinbestekoa da jakintasunez jarduteko, nola bizitza pribatuan nola bizitza publikoan. Ondorioa agerikoa da eta berriz ere filosofo-agintariaren ideiarik itzultzen gara: Euren begiak ongiaren ideian iltzatuta mantentzen dituztenek bakarrik agindu ahal izango dute behar bezala.



• **Azaldu azpimarratuta azaltzen diren terminoen esanahia:**

- **Arima:** Platonentzat arima ideien egoitza da, benetako ezagutzaren protagonista da. Zentzumenen kateen bitartez, gorputza ikusgai den munduko itxuraren itzalera gelditzen da loturik. Soilik arima igo daiteke benetako mundura, errealitatearen edo ideien mundura.
- **Mundu ulergarria:** Benetako mundua da. Errealitatearen eta argiaren mundua da, mundu sentikorra ez bezala, azken hori itxuraren eta itzalaren mundua baita. Azken batean, ideien mundua da, errealitatearen mundua, benetako mundua.
- **Ongiaren ideia:** mundu ulergarriari dagokio, eta ez da ezagutza sentikorraren bitartez ezagutzen, baizik eta dialektikaren bitartez. Ongiaren ideia ezagutzea eguzkia aurrez aurre begiratzea da, haitzuloaren iluntasunetik urrunduta eta zentzumenen kateetatik askatuta. Ongiaren ideiarekin gainerako ideia guztiak ezagutu ditzakegu.

14. Erantzun ondorengo galderak:

- a) Egia / Gezurra: Platonen arabera:
- Bertutea arimaren zati ezberdinen artean egon behar duen oreka da.
 - Zuhertasunak erregulatzen du zati haserrekorra.
 - Sendotasunak erregulatzen du irritsa.
- b) Platonek hiru zati edo maila bereizten ditu ariman, zein dira? Zein da garrantzitsuena?

Erantzuna:

- a) Egia / Gezurra: Platonen arabera:

- **Bertutea arimaren zati ezberdinen artean egon behar duen oreka da. Egia.**
- **Zuhertasunak erregulatzen du zati haserrekorra. Gezurra:** Zati haserrekorra, Platonek bularrean kokatzen duen hori, sendotasunak erregulatzen du.
- **Sendotasunak erregulatzen du irritsa. Gezurra:** Irritsa, Platonek sabelean kokatzen duen hori, neurritasunak erregulatzen du.

b) Platonek hiru zati edo maila bereizten ditu ariman, zein dira? Zein da garrantzitsuena?

Arimaren zati edo mailak Platonen arabera:

- **Zati arrazionala,** Platonek sabelean kokatzen duen hori, zuhurtziaren bertuteak erregulatzen duena.
- **Zati haserrekorra,** Platonek bularrean kokatzen duen hori, sendotasunaren bertuteak erregulatzen duena.
- **Irritsa,** Platonek sabelean kokatzen duen hori, neurritasunaren bertuteak erregulatzen duena.

Platonen ustez, zatirik garrantzitsuena **zati arrazionala** da. “Zaldien mito” ospetsuko auriga edo gidariaren moduan, arrazoiak menderatu behar du **zati haserrekorra** eta **irritsezko zatia**. Hiru zati horien orekan datza, hain zuzen ere, bertuteak.

15. Esan zein diren Platonek aipatzen dituen gobernu motak eta azaldu demokraziari egiten dizkion kritikak

Erantzuna:

Platonek honako gobernu mota hauek aipatzen ditu eta honako hurrenkera honetan: **Aristokrazia, timokrazia, oligarkia, demokrazia eta tirania**. Azken lauak, timokrazia, oligarkia, demokrazia eta tirania, estatuaren lau gaixotasun posible lirarteke, edota estatu perfektuaren edo aristokraziaren gainbehera.



16. Aztertu testuinguru historikoa: Mazedonia eta Atenas, eta aipatu Aristoteleren biografian eragin gehien izan zuten alderdiak.

Erantzuna:

K.a. IV. mendean **Mazedonia** potentzia txikia baina asmo handikoa zen, eta bertako errege gerlariek euren lurraldea zabaltzearekin egiten zuten amets. Aristoteleren aita, Nikomako, Mazedoniako erregearen medikua izan zen. Horrek Aristotelek erret familiarekin izan zituen harremanak azaltzen ditu. K.a. 342. urtean Filipo erregeak Aristoteleri bere seme Alejandroren heziketaz ardura zedila eskatu zion, ondoren **Alejandro Magno** izango zena. Atenas da beste erreferentzia garrantzitsu bat Aristoteleren biografian. **Atenas** zibilizatu eta demokratikoak uste zuen Mazedonia erdibarbaroen lurraldea zela eta ez zen fido. Aristoteleren bizitza bi mundu horien artean ibili zen, etengabeko gatazka batean: Mazedoniako boteretik oso hurbil zegoen gizona zen baina, intelektual bikaina izaki, Atenas hiri kultu eta fineko giroaz gozatzen zuen. Han sortu zuen bere eskola, Atenasen: **Lizeoa**, akademia platonikoa ez bezalako zentroa. Atenasekoek gorrotatu egin zuten Aristotele, Alejandrokin eta Mazedoniako boterearekin lotzen baitzuten. Alejandro Magno hil zenean, K. a. 323. urtean, fedegabe izateaz salatu zuten (asebeia). Erbestera kondenatu zuten, Atenas utzi eta Eubako irlara ihes egin zuen, han hil zen hurrengo urtean, K.a. 322. urtean.

17. Beheko baieztapen hauek Aristoteleri egiten diote erreferentzia, esan egia ala gezurra diren:

- Esentzien mundu abstraktu eta aldaezinean oinarritzen da.
- Esentziak mundu sentikorretik bananduta existitu daitezke.

Erantzuna:

- **Esentzien mundu abstraktu eta aldaezinean oinarritzen da. Gezurra.** Aristotele gure inguruko mundu sentikor eta bistakoan oinarritzen da; Rafaelen "Atenaseko eskola" koadro ospetsuan, Platonek gorantz erakusten du behatzaz, Aristotelek, ordea, beherantz. Platon ideien mundu abstraktuan oinarritzen da, Aristotele mundu zehatz eta sentikorrean oinarritzen da. Platonen filosofia ideien mundutik mundu sentikorrera zihoan, eta mundu sentikor hori ideien munduaren kopia ez perfektu bat zen. Aristotelek alderantziz egiten du, mundu zehatz eta sentikorretik habituta abstraktura iristen da, ideietara.
- **Esentziak mundu sentikorretik bananduta existitu daitezke. Gezurra.** Aurrekoan esandakoa kontuan hartuta, ondorioztatzen da esentziak ezin direla mundu sentikorretik bananduta bizi. Aristoteleren ustetan, gauza baten esentzia ezin existitu daiteke gauza horretatik beretik berezita.


18. Esan zein diren Aristoteleren obra nagusiak eta sailkatu edo taldekatu itzazu gaiaren arabera

Erantzuna:

Bere lanaren zati bat galdu egin da.

Bere liburutegiak eta lanak hainbat gorabehera jasan behar izan zituen. Andronico de Rodas Lizeoaren hamaikagarren zuzendariak agindu zuen Aristoteleren lana argitaratzera, *Corpus aristotélicum* izenarekin. Idazkiak honela sailkatu daitezke:

- Logika: "Organon" izenburupean bilduta: *Kategoriak, Interpretazioaz, Lehen eta Bigarren Analitikoak. Topikoak...*
- Natur zientziak: *Animalien historia. Animalien zatiak...*
- Psikologia: *Arimaz, Oroimenaz, Pertzepzioaz...*
- Fisika: (guztira zortzi liburu) *zeruaz, Meteoros...*



- Metafisika. *Metafisika* (14 liburuz osatua). Andronico de Rodasek erabilitako hitz horren esanahiak fisikaren ondoren datozen liburuei egiten die erreferentzia (Metafisika).
- Etika eta Politika: *Nikomakoren Etika*, *Eudemoren Etika*, *Moral Handia*, *Politika* (158 estatueta konstituzioen bilduma).
- Estetika. *Erretorika eta Poetika*.

19. Erantzun galdera hauek.

- a) Silogismoaren funtsezko egitura
- b) Esan zein diren silogismoaren funtsezko terminoak

Erantzuna:

- a) **Silogismoaren funtsezko egitura:** Hiru **proposiziok** osatzen dute silogismoa: Lehenengo biak **premisak** dira. Hirugarrena **ondorioa** da:
Gizaki oro da hilkorra. **Premisa nagusia**
Atenastarrak gizakiak dira. **Premisa txikia**
Atenastarrak hilkorra dira. **Ondorioa**

- Premisa nagusiak ondorioa garmatza beti: **Hilkorrak**
- Premisa txikiak ondorioaren subjektura garmatza beti: **Atenastarrak**
- Erdiko terminoa ez da inoiz ondorioan sartzen: **Gizakiak**

- b) **Esan zein diren silogismoaren funtsezko terminoak:** Silogismoak hiru termino biltzen ditu: Txikia, Nagusia eta Erdikoa.

- Termino txikia ondorioaren subjektua da: Atenastarrak
- Termino nagusia ondorioaren predikatua da: Hilkorrak
- Erdiko terminoa premisetan errepikatzen dena da: Gizonak.

20. Esan zein den aukera zuzena:

- a) Aristoteleren teoria honen arabera, substantziak materia eta formaz osatzen dira: 1) Materialismoa. 2) Esoterismoa. 3) Hilemorfismoa. 4) Silogismoa.

Erantzuna:

Erantzun zuzena: **3) Hilemorfismoa**. Aristoteleren ustetan substantzia oro **materiaz** (*hylé*) eta **formaz** (*morphé*) osatzen da. Materia da formaren euskarria edo substratua. Formak gauzen esentzia irudikatzen du. Hilemorfismoa Aristoteleren teoria da, Eskolastikak ere onartzen duena, eta teoria horren arabera, gauza naturalak bi printzipio metafisikoz osatzen dira: metodoa eta forma. Materia potentzialitatearen edo posibilitatearen printzipioa da, eta forma aktualitatearena eta perfekzioarena. Horretaz gain, materia eta forma lau kausa aristotelikoetako bi dira, intrintseko deituak, hain zuzen ere, euren osaeraren ondorioz sortzen baita gauzen sustantzia.

21. Identifikatu lau kausak, hots, kausa arazlea, materiala, formala eta xedezkoa, eta eman horietako bakoitzarentzat definizio labur bat:

Fidias eskulturgile handia sirena baten eskultura lantzen edo zizelkatzen ari da marmolezko bloke batean Partenoia apaintzeko.

Erantzuna:

- **Fidias** litzateke **kausa arazlea**, egilea, eskultura zizelkatzen duena, obraren artista edo ekoizlea.
- **Marmolezko blokea:** gauzen osagai den **kausa material** edo materia litzateke:



marmola, egurra, harria, brontzea...

- **Sirena: kausa formal** da, estatuaren forma, kasu honetan sirenaren forma. Fidiak lantzen ari den ideia edo eredu da. Gauza bat formaren arabera definitzen da.
- **Partenoia apaintzea: xedezko kausa** litzateke. Fidiasek bere ekintzarekin bilatzen duen helburua da, xedea, eskultura zizelkatzeko duen zergatia.

22. Beheko baieztapen hauek Aristoteleri egiten diote erreferentzia, esan egia ala gezurra diren:

- a) Ezagutzea gogoratzea da
- b) Badira sortzetiko ideiak
- c) Jaiotzean gure gogoa hutsik da. Ezagutza zentzumenek ematen diguten informazioaren bitartez jasotzen dugu
- d) Ezagutza zehaztasunetik abstraktura doan prozesua da.

Erantzuna:

- a) **Ezagutzea gogoratzea da. Gezurra.** Tesi edo baieztapen hori Platoni dagokio.
- b) **Badira sortzetiko ideiak. Gezurra.** Baieztapen hori ere Platoni dagokio.
- c) **Jaiotzean gure gogoa hutsik da. Ezagutza zentzumenek ematen diguten informazioaren bitartez jasotzen dugu. Egia.** Aristotelek ukatu egiten du sortzetiko ideiak badirenik. Gure ezagutza paper zuri bat da eta ez dago ezer idatzirik. Ideiak zentzumenek ematen dituzten datuen bitartez idazten dira. Jarrera horrek berretsi egiten du, beste behin ere, errealismo aristotelikoa, idealismo platonikotik argi eta garbi bereizten dena.
- d) **Ezagutza zehaztasunetik abstraktura doan prozesua da. Egia.** Zentzumenen bitartez jasotzen da objektu zehatza, baina ez da nahikoa. Aristotelek ezagutzaren teoriarik azaltzen duenaren arabera, gauza konkretu eta zehatzen arabera osatzen dira ideia unibertsal eta abstraktuak. Beraz, Aristotelaren ustez, ezagutza **konkretutik** abiatzen da eta **abstraktura** doa.

23. Azaldu Aristotelaren baieztapen honen esanahia:

“Bertutea erdiko terminoan dago”.

Erantzuna:

Aristotelerentzat bertutea erdiko terminoan dago (*mesotes* delakoan), eta erdiko terminoak ez du kaskarkeriaren esanahi bera; maila berean biziotsuak diren bi muturren arteko oreka da. Bertuteak, beraz, muturrak saihestean datza, eta erdiko terminoa bilatzean. Horrenbestez, bertutea neurria, zuhurtzia, moderazioa da. Beheko adibidea azaldukoaren adierazgarri izan daiteke:

Koldarra (muturra)


Ausarta (erdiko termino justua)

Kementsua (muturra)

Bertutea (ausardia) litzateke koldarkeriaren eta kemenaren arteko oreka. Biziotsuak diren bi muturren arteko oreka, erdiko termino justura bideratzen gaituena. Hortik esana: **“Bertutea erdian dago”**.

24. Beheko baieztapen hauek Aristoteleri egiten diote erreferentzia, esan egia ala gezurra diren:

- a) Gizakia funtsean politikoa den izakia da.
- b) Gizakiak ez du giza komunitaterik behar burutu ahal izateko.
- c) Erdi mailako klasea gehiengoa izatea neurritasunaren eta egonkortasunaren sinonimo da.



Erantzuna:

- a) **Gizakia funtsean politikoa den izakia da. Egia.** "Gizakia animalia politiko edo zibikoa da". Badira, halaber, morroi diren animaliak eta artaldeak, baina gizakia beste ordena batekoa da, eta horren froga da hizkuntza gizakiaren esku bakarrik dagoela.
- b) **Gizakiak ez du giza komunitaterik behar burutu ahal izateko. Gezurra.** Gizakia ezin daiteke bera bakarrik burutu, ezinbestean behar ditu gainerakoak. Aristotelek zihoen moduan: "Gizakia animalia politikoa da" "polis" edo komunitatea behar du burutu ahal izateko eta bere posibilitate guztiak garatu ahal izateko.
- c) **Erdi mailako klasea gehiengoa izatea neurritasunaren eta egonkortasunaren sinonimo da. Egia.** Hain zuzen ere gehienezko erdi mailako klasea duen gizartea litzateke egokiena, herritarrak ez oso aberatsak ez oso pobreak izan gabe, muturreko egoerak ekidinez. Horrela, bertutea bizitza politikora estrapolatuta gelditzen da erdiko termino gisa.

25. Azaldu erromatar inperioa erori izanak zein ondorio izan zituen San Agustinen historiaren filosofian.

Erantzuna:

San Agustinek (354-430) erromatar inperioaren beherakada eta gainbehera biziko du. Ustelkeria eta ezegonkortasuna izan ziren garai horretako ezaugarri nagusiak. Inperioaren egoera hain zalantzazkoa izatera iritsi zen, ezen IV. mendean lehenengo haustura gertatu zela. **Teodosio** enperadorearen semeak euren artean banatu zuten inperioa: **Honorio** mendebaldeko zatiarekin gelditu zen eta **Arkadio**, berriz, ekialdekoarekin. Ez ziren berriz ere inoiz batu. Mendebaldeko Erromatar Inperioa, **Erroma** hiriburu, eta Ekialdeko Erromatar Inperioa, **Konstantinopla** hiriburu, bereizten joan ziren, eta areagotu egin ziren euren arteko ezberdintasun kulturalak. 410. urtean behin betiko astinaldia gertatu zen. Bisigodoek, **Alarico** buru zutela, Erromako hiria hustu zuten. Azkenik, 476. urtean, Odoakro barbaroak lehen enperadore erromatarra ordezkatu zuen. Horrela amaitu zen Erromako boterea, K.a 753. urtean hasitakoa.

San Agustín izan zen Mendebaldeko Inperioaren amaieraren lekuko inetelektual handia. Hustuketa gertatu eta handik hiru urtetara, "**Jainkoaren hiria**" obra idazten hasi zen. Lan horretan San Agustinek historiaren zentzuari buruzko hausnarketa egiten du, haren ustez, historia probidentziak gidatzen du, Jainkoak. Baliteke gertaera historikoak zentzugabeak iruditzea baina ezin ahantz daiteke: "*Jainkoak lerro okerrekin bada ere, zuzen idazten du*".

26. Esan zein diren kristautasunak kultura grekolatindarrari ematen dizkion funtsezko ezaugarriak, eta aztertu zein izan ziren tirabira handienak eragin zituzten puntuak.

Erantzuna:

Hauek dira kristautasunak ekarritako berrikuntza nagusiak:

- **Kristautasunak historiarekin lotzen du Jainkoa:** Jainkoa zuhurra da eta herri jakin bat eta garai jakin bat hautatzen ditu.
- **Kristautasuna eta egia:** Kristautasuna egiaren jabe bakar gisa aurkezten zen: "*ni naiz egia*".
- **Kristautasunaren monoteismoak** argi eta garbi egiten zuen talka politeismo grekolatindarrarekin. Jainko bakarra dagoenez, Jainko hori ahalguztiduna da.
- **Kreazionismoa:** Jainkoak ezerezetik sortzen ditu gauzak etab.

Idea horien berritasunak eta erradikaltasunak ideia grekolatindarrekin egingo dute talka, eta horrek hainbat jarrera sorraraziko ditu: a) **filosofia baztertzea** kristautasunaren aldean: "*Sinesten dut zentzugabea delako*" eta b) **filosofiaren eta kristautasunaren arteko elkarlana:** "*Sinistu uler dezazun, ulertu sinis dezazun*"



27. Esan zein pentsamendu-korrante ezberdinetan militatu zuen San Agustinek eta atzeman zein eragin izan zuten korrante horiek bere filosofia lantzeko garaian.

Erantzuna:

Egiaren etengabeko bilaketan, San Agustinek honako korrante filosofiko hauetan militatu zuen:

- **Manikeismoa:** Dualismo zorrotza defendatzen zuten: Ongia eta Gaizkia. Gaizkia zela eta oso kezkatuak zegoenez, San Agustinek korrante honetan gaizkia arrazoitzeko azalpenak aurkituko zituelakoan zegoen. Manikeismo hori beti dago San Agustinen pentsamenduan, modu batera edo bestera.
- **Akademiaren eszeptizismoa.** Geroago eszeptizismoaren tesia ezeztatu eta egiaren existentzia baieztatuko du, esaldi ospetsu honekin: **“Si fallor, sum”: Erratzen banaiz, banaiz.**
- **Plotinoren neoplatonismoa.** Korrante honen eragina ezinbestekoa izan zen gaizkiaren arazoari erantzun filosofiko bat emateko: Iluntasuna argiaren gabezia baino ez da, gaizkia ongiaren gabezia baino ez da.
- Azkenik, **kristautasunera bihurtu** zen, San Ambrosio, Milango artzapezpikuaren sermoiek bultzatuta.

28. Azaldu nola ikusten dituen San Agustinek arrazoiaren eta fedearen arteko harremanak:

Erantzuna:

Ez dago ezberdintasun nabarmenik arrazoiaren eta fedearen artean. Biek ere egia bilatzen dute eta ezin daiteke bereizketa garbirik egin. Noski, fedea da gidaririk fidagarriena: Jainkoak jakinarazten diguna sinistu behar da ulertzerari iritsi ahal izateko. Baina arrazoiaren fedearen aurrekaria ere izan daiteke, ez jakinarazitako egiak frogatzeko, baizik eta sinistea zentzuduna dela frogatzen delako. Arrazoiaren eta fedearen arteko lankidetzari horri esapide ospetsu bat dagokio: **“Sinistu uler dezazun, ulertu sinis dezazun”**. Fedeak ez du zertan arrazoiarekin bat etorri behar, eta bere baitan ere ez da ixten: fedearen intelgentzia bilatzen du.

29. Erantzun San Agustinen pentsamenduari buruzko oinarritzko galdera hauek:

- a) Nola frogatzen du San Agustinek egiaren existentzia?
- b) Non bilatu behar da egia?

Erantzuna:

- c) **Nola frogatzen du San Agustinek egiaren existentzia?** Akademikoei ez bezala, horiek eszeptikoak baitziren eta egiaren existentzia ukatzen baitzuten, San Agustinek egiaren existentzia frogatzen zuen esanez gizakia beti dagoela oker. Baina, San Agustinek zihoen moduan: **“Erratzen banaiz, banaiz”: “Si fallor, sum”**. Erratzearen gertaeran bertan aurkitzen du San Agustinek existentziaren beraren egia. Batzuek “Si fallor, sum” esaldian printzipio kartesiar ospetsuaren aurrekaria ikusi nahi izan dute: **“Cogito, ergo sum”: “pentsatzen dut, beraz, banaiz”**
- d) **Non bilatu behar da egia?:** Egia barnealdean bilatu behar da: Ez da kanpoaldera joan behar, norberaren barnera begiratu behar da. San Agustinen filosofia barnealderako gonbidapena da: egia gizaki bakoitzaren barnean dago. Gure barnealdean bilatu beharra dago eta hortxe aurkituko dugu, hain zuzen ere, **Egia**, hau da, **Jainkoa**, San Agustinen hitzetan **“ene intimitatearen intimoena dena”**.



30. Azaldu modu eskematikoan, hau da, gidioen bidez, San Agustinen antropologiaren funtsezko ezaugarriak.

Erantzuna:

Hauek lirатеke San Agustinen antropologiaren oinarritzko ezaugarriak:

- San Agustinen antropologia **platonismoz josia** dago: dualismo antropologikoa, gizakia hilezkorra den arima bat da eta gorputz hilkor eta lurtar batez baliatzen da.
- Gizaki orok du **jatorrizko bekatuaren** arrastoa, Adan eta Evaren sorreran egindako bekatua.
- Giza ariman, dogma hirukoiztarrean bezala, hiru funtzio bereizten ditu: a) Arimak ulertu egiten du (**ulermena**). b) Arimak nahi du (**nahia**). c) Arimak gogoratu egiten du (**oroimena**).
- **Askatasunari ematen zaion garrantzia**. Gizakia, jatorrizko bekatuaren oinordeko, borondate ahularekin jaiotzen da. Askatasuna dramatikoki bizi du, aurkakotasun bikoitz baten mehatxua baitu: Gaizkira bultzatzen duen jatorrizko bekatua eta ongira bultzatzen duen jainkoaren grazia.

31. Esan zein diren “Bi hiriak” lanaren funtsezko ezaugarriak eta azaldu horietatik nabarmenenak.

Erantzuna:

Lan honetan **historiaren zentzua** aztertzen du, mundua sortu zenetik azken judizioa arte. Historia lineala eta ez zirkularra. Inperio erromatarra ez da behin betikoa. Historiaren markoa askoz zabalagoa den zerbait da: Cain (gaizkia) eta Abel (ongia) munduan zirenetik existitzen ziren bi hirien arteko borroka da: batetik, **Jainkoaren hiria** edo zeruetako hiria, **Jerusalem** hiriak sinbolizatua eta, bestetik, **gizakien hiria** edo hiri lurtarra, **Babiloniak** edo **Erromak** sinbolizatua. Bien arteko norgehiagoka horretan, Jainkoaren Hiriaren garaipena ziurra da.

Hain zuzen ere maitasunak bereiziko du "Gizateria" bi talde handitan:

- a) Jainkoa mespretxatu eta maitasun egoista lantzen dutenak: mundutarrak dira.
- b) Edozeren gainetik Jainkoa maite dutenak, euren burua mespretxatzera iritsi arte: zerutarrak dira.

Erdi Aroan zehar **Jainkoen Hiria** Elizarekin identifikatu zen eta **Gizakien Hiria** edo hiri lurtarra **Estatuarekin**.

32. Ados egongo al zinateke honako tesi edo baieztapenekin? Arrazoitu erantzunak

- a) Erdi Aroa milurteko kulturانيتza da
- b) Gai nagusietako bat arrazoien eta fedearen arteko harremanak izan zen

Erantzuna:

- c) **Erdi Aroa milurteko kulturانيتza da: Erabat ados.** Erdi Aroan elkarrekin bizi izan ziren judutarrak, arabiarrek eta kristauak. Erromatar Inperioa erori zenean kultura ezberdinak eta askotariko filosofiak azaldu ziren: filosofia kristaua edo eskolastika, filosofia arabiarra eta filosofia judutarra. Toledoko Itzultzaileen eskola kultur nahasketa horren adibide garbia da. Alfontso X. Jakitunak “hiru erlijioen erregea” goitizena jarri zion bere buruari. Mezkitak, katedralak eta sinagogak puzzle kulturانيتz horren lekuko ziren. Arabiarrek ekarri zuten, hain zuzen ere, Aristotelesaren pentsamendua mendebaldera.



- d) **Gai nagusietako bat arrazoiaren eta fedearen arteko harremani burukoa izan zen. Erabat ados.** Aniztasun horren aurrean, Erdi Aroko pentsamenduaren ardatza arrazoiaren eta fedearen arteko harremanek osatzen dute: **San Agustin, Akinoko Santo Tomas eta Ockham-eko Guillermok** arrazoiaren eta fedearen arteko harremani buruz hausnartu zuten. Arrazoiaren eta fedearen arteko harremani loturik, botere erlijiosoaren eta botere politikoaren arteko harremanaren gaia zegoen, elizaren eta estatuaren arteko harremana, Aita Santuaren eta Enperadorearen artekoa. Norgehiagoka horiek garai hartako alderdi kulturean eragingo dute.

33. Zer da eskolastika eta zein dira funtsezko ezaugarriak?

Erantzuna:

Inperioko kultura mantendu, berreskuratu eta transmititzeko garaian elizak ezinbesteko lana burutu zuen, batez ere monasterioen bitartez; fraideen komunitate haiek jarraitzen zuten arauaren ardatza otoi-tza, ikasketa eta lana ziren. Monasterio eta gotzain-eskola horien itzalpean filosofia eskolastikoa sortu zen. Eskolastika latineko **“schola”** hitzetik dator eta jatorrizko esanahiaren arabera Erdi Aroko eskoletan landutako jakintza da, gero maisu baten zuzendaritzapean irakatsia (**Scholasticus**). “Eskolastika” terminoa XI – XIV. mendeen artean sortu zen Erdi Aroko filosofia kristaua izendatzeko erabiltzen da. Esaten da XIII. mendea dela eskolastikaren garai gorena, Akinoko Santo Tomasen garaia, ondoren krisian sartu zela eta XIV. mendean beherantz hasi zela.

Filosofia eskolastikoaren oinarriko ezaugarrietako bat izan zen arrazoiaren bitartez sakondu zutela fedearen egiatan edo, bestela esanda, gizona egia errebelatua ulertzera eraman zutela. Horregatik bideratu zen filosofia hori irakaskuntzara eta horregatik du hezkuntza-izaera, izaera eskolastikoa. Euren helburua erdiesteko, metodo eskolastikoa erabili zuten. Metodo horrek bi une hauek bereizten zituen:

- a) **Lectio:** Maisuaren esposaketa. Testuren bat irakurtzen zuen, hala nola, Bibliako testuren bat, Boeciorena edo Aristotelaren bat eta ondoren komentatu egiten zuen.
- b) **Disputatio:** Maisuak nahiz ikasleek, guztiek hartzen zuten parte, eskema formal zorrotz bati jarraiki, eta aldeko nahiz kontrako arrazoiak ematen zituzten tesi jakin bati buruz, normalean aurrez lectio-an aurkeztutako tesi bati buruz.

34. Identifikatu eta zerrendatu Santo Tomasengan eragina izan zuten egileak.

Erantzuna:

Besteak beste, hona nabarmendu beharrekoak:

- **Aristotele.** Akinoko Santo Tomasek (1225-1274) autore honen pentsamenduaren zati handi bat bereganatu zuen, tradizio agustindarrean gertatzen ez zen bezala, haiek Platonen eragin handia jasotzen baitzuten. Esan daiteke Santo Tomasek **Aristotele kristautu** zuela, San Agustinek Platon kristautu zuen bezala.
- **Averroes.** Erdi Aroko filosofo arabiar garrantzitsuena da. Kordobako filosofo honek Aristotelari buruz egin zituen komentarioak hain dira zorrotzak, "El Comentador" (komentatzailea) ezizena jarri ziotela. Horregatik nabarmendu zen komentariogile-eredu gisa eskolastiko latindarren artean, horien artean Akinoko Santo Tomas.
- **Avicena:** Filosofo arabiarra, Aristotelaren eragin handia jaso zuena. Esan liteke autore honen meritu handia mendebaldean Aristotelaren pentsamendua ezagutzera ematea izan zen. Bere gai gogokoenetarikoa bat esentziaren eta existentziaren arteko bereizketa izan zen; gai horrek eragin nabarmena izango du Santo Tomasengan.
- **Alberto Magno:** Santo Tomasen irakaslea izan zen Parisen; honek ere Aristotelaren eragina zuen.



35. Esan beheko baieztapenak egia ala gezurra diren, eta arrazoitu esanez ia modu fidagarrian gordetzen duten Santo Tomasen pentsamendua arrazoiaren eta fedearen arteko harremanei buruz:

- a) Arrazoiak ezin dezake Jainkoa existitzen denik frogatu
- b) Arrazoiak egia teologiko guztiak frogatu ditzake.

Erantzuna:

- c) **Arrazoiak ezin dezake Jainkoa existitzen denik frogatu. Gezurra.** Akinoko Santo Tomas ziur da giza arrazoiak Jainkoaren existentzia froga dezakeela. Jainkoaren existentzia egia errebelatua da, baina gizakia ere irits daiteke egia horretara gaitasun arrazional guztiak erabiliz. Hain zuzen ere, bost bide edo arrazoiketa landu zituen, arrazoa oinarri hartuta, Jainkoaren existentzia egiaztatzeko.
- d) **Arrazoiak egia teologiko guztiak frogatu ditzake. Gezurra.** Arrazoiak ezin ditzake egia teologiko guztiak frogatu. Santo Tomasek bereizketa bat egiten du: batetik, **egia teologiko naturalak** daude, horietara arrazoi naturalak ematen duen argiaren bitartez irits daiteke gizakia eta, bestetik, **egia teologiko errebelatuak** daude, goi-agerkundeak edo Jainkoaren errebelazioak ematen duen argiaren bitartez eskuragarri direnak. Jainkoaren existentzia egia errebelatua da, baina gizakia ere irits daiteke egia horretara gaitasun arrazional guztiak erabiliz. Baina zenbait egiatara, hala nola, Jainkoaren Hirutasunera edo Jainkoaren gizonegitera, ezingo gara inoiz iritsi Agerkunde edo Errebelazioak ematen duen argirik gabe.

36. Azaldu zein den Akinoko Santo Tomasen argumentuek duten egitura Jainkoa existitzen dela egiaztatzeko.

Erantzuna:

Hona hemen arrazoibide tomistek aurkezten duten oinarrizko egitura Jainkoaren existentzia frogatzeko:

- **Abiapuntua esperientziaren gertakaria bat** edo datu enpirikoa da: mugimenduaren existentzia.
- **Kausalitate-printzipioa aplikatzen da:** Ondorio orok du zergati bat. Mugimendu orok izan behar du kausa bat. Mugitzen den guztia beste batek mugitua da.
- Aristotelaren teoriari jarraiki, **prozesu mugagabe bat ezinezkoa dela onartzen da.** Motoreen segida mugagabea ezinezkoa da.
- **Datu enpirikoa behatzearen ondorioz iristen gara Jainkoarengana:** Mugitua izan gabe gainerakoak mugitzen dituen izakira iritsi behar dugu. Horrela bada, **Jainkoa lehen motore mugigaitz gisa** existitzen dela frogatzen dugu.

Egitura hori bera aplikatzen da Akinoko Santo Tomasen beste bideetan: kausa lehenaren argumentuan, kontingentziaren argumentuan, perfekzio-mailen argumentuan eta mundu-ordenarenean.

37. Esan zein diren eta laburtu XIV. mendeko krisia ekarri zuten faktore nagusiak.

Erantzuna:

Hauek lirateke oinarrizko faktoreetako batzuk:

- **Feudalismoaren krisia.**
- **Eskolastikaren krisia.**
- **Izurria, gosea eta gerra,** herriaren suntsitzaileak.



- **Enperadorearen (botere politikoaren) eta Aita Santuaren (botere erlijiosoaren) arteko borroka**, ondorioz, aldi berean zartatzen dira arrazoiaren eta fedearen arteko harremanak: ez da euren arteko loturaz gehiago hitz egingo, hausturaz baizik.
- **Mendebaldeko Zisma**: Aita Santua Erromatik Avignonera joango da Felipe IV.ak eskatuta.
- **Nolabait kontzientzia demokratikoa esnatzen da**: Zismek eta kontzilioek Aita Santuaren boterea murriztuko dute...parlamentuak erregeak zuen botere absolutuaren aurka jartzen hasi ziren.

Garai horretako giroa bikain bildu zuen **Umberto Eco**k bere eleberrian: **Arrosaren izena**.

38. Laburtu Ockhamen biografiaren alderdirik esanguratsuenak, eta esan zein alderdik islatzen duten haren garaiko krisia eta problematika.

Erantzuna:

Ockham-eko Guillermo (1298-1349). Fraide ingeles ospetsu honen bizitza, funtsean hiru hiriren inguruan osatu zen: Oxford, Avignon eta Munich. **Frantziskotarren** ordenan sartu ostean, Oxforden ikasi zuen. Teologia irakatsi ahal izateko titulua inoiz lortu ez bazuen ere, eta horregatik deitu zitzaion **Venerabilis Inceptor** (hasiberri ohoragarria), Oxford eta London hirietan irakatsi zuen. 1324. urtean Avignongo Aita Santuaren kuriara aurkeztera behartzen dute, Oxford unibertsitateko kantzulari ohi batek egindako heresia salaketari erantzun diezaion, baina prozesuan zehar bi arazotan egongo da sartuta, etorkizunaren nondik norakoa aldatuko dutenak: Bavariako Luisek enperadorearen botere zibila Aita Santuarenaren gainera dagoela aldarrikatzen du, eta Joan XXII.a Aita Santuaren eta frantziskotarren artean "pobreziaren gerra" delakoa hasiko da. Ockham Bavariara joango da, 1328an Munichen biziko da eta enperadorearen alde jarriko da; orduetik aurrera gai politikoei buruz idatziko du.

Haren hitzetan: **"Enperadore, defenda nazazu zure ezpataz, nik ene lumaz defendatuko zaitut"**.

Munichen hilko da 1349an. Izurria Europa hondatzen ari zen une haietan.

- Azpimarratuta azaltzen dira bere garaiko krisia eta problematika hobekien islatzen dituzten biografiako puntuak.


39. Definitu Ockhamen filosofiaren giltzarri diren honako kontzeptu hauek:

- a) Nominalismoa
- b) Ekonomia-printzipioa edo Ockhamen labana

Erantzuna:

a) **Nominalismoa**: latinezko **"nomen"**, hitzetik dator, eta izena, terminoa esan nahi du. Unibertsalei dagokienez, Ockhamen iritzari jarraiki, unibertsalak ez dira ez kontzeptuak (kontzeptualismoa) ez objektuak (errealismoa), baizik eta soilik **"izenak"**, antzekoak diren gauzen multzoei aplikatzen direnak; Ockhamek dio existitzen den guztia dela **bakarra. Ez da existitzen unibertsala denik**. Unibertsalak giza adimenak sortutakoak baino ez dira, gauzen zeinuak dira, gauzen ordezkari diren izenak.

b) **Ekonomia-printzipioa edo Ockhamen labana**: Esperientziaz baliatzen bagara, ez dugu beharrezkoak ez diren kontzeptu abstraktuak erabili beharrik, hots, Adimen egilea, indibiduoazio-printzipioa etab. **"Gauzak ez dira biderkatu behar, horretarako beharrik ez badago"**. Printzipio horren bitartez, Ockhamek begi-bistakoa ez den guztia ezabatu nahi du. Horrela, ezabatu egiten ditu filosofia aristoteliko-tomistan enpirikoki egiaztatu ezin zitezkeen kontzeptuak.



40. Esan zein diren Ockhamek kritikaturako filosofia eskolastikoaren funtsezko alderdiak

Erantzuna:

Bere jarrera nominalistaren ikuspuntua hartuta, filosofia eskolastikotik beharrezkoak ez diren kontzeptu abstraktu hauek kritikatzeko dituzte:

- Kritika indibiduo-erantzukizunari
- Kritika esentzia – existentzia bereizketari.
- Kritika Jainkoaren existentzia egiaztatzeke frogari.
- Arrazoiaren eta fedearen arteko haustura: Ezin dira frogatu, ez arimaren existentzia ez Jainkoaren existentzia, edozer egiaztatzeke oinarria esperientzia baita.

41. Esan zein diren eta laburtu XVII. mendeko alderdi politiko, filosofiko, zientifiko eta kulturalak, eta aipatu alderdi horiek Descartesaren filosofian izan zuten eragina.

Erantzuna:

Hauek lirateke XVII. mendeko testuinguru historiko eta kulturaletik nabarmendu beharreko alderdiak:

- **Absolutismoa:** (maila politikoan) Descartesek jakintza absolutua sortu nahi du, filosofia bakar bat, erregaren boterearen moduan, ez ezerk ez inork zalantzan jartzen ez duena.
- **Erligio-batasunaren suntsipena:** Erligio berrikuntza beharrak hiru elizetan banatu zuen Europa (eta, beraz, hiru erlijio-egiatan): katolikoa, protestantea eta anglikanoa. Elkarren arteko salaketek eta gatazka sutsuek markatu zituzten elizen arteko harremanak. Gatazka horietako bat hogeita hamar urtetako gerra izan zen (1618 - 1648), eta gerra horretan hartu zuen parte Descartesek.
- **Zientzia berria:** Zientziak berealdiko bilakaera ezagutu du matematika zientziaren oinarritzat hartu zenetik (astronomia eta fisikan: Koperniko, Kepler, Galileo...). Descartesek bere proiektu filosofikoari "**matematika unibertsala**" deituko dio.
- **Barrokoa:** Europan XVII. mendean zehar zegoen korrante kultural eta artistiko bat zen. Calderonek bizitzaz amets bat izango balitz bezala hitz egiten duenean, munduaz "antzoki" handi bat izango balitz bezala hitz egiten duenean, garai hartako topikoak baino ez ditu erabiltzen, garai hartan dena itxura baitzen, etengabeko ilusioa. Ametsak sortutako zalantza eta iruzurren artean Descartesek ziurtasuna bilatzea ez da bilaketa erretorikoa, baizik eta deseingainuz, ziurgabetasunaz beteriko garai baten ondorioa.

42. Identifikatu zein diren arrazionalismoari dagozkien ezaugarriak eta zein diren enpirismoari dagozkienak:

- a) Gure ideia guztiak jasotakoak dira.
- b) Baliozkoa den ezagutza-iturri bakarra arrazoiarena da.
- c) Sortzetiko ideiak badirela baieztatzen du.
- d) Gure ezagutza guztiaren iturria esperientzia da
- e) Ez dago sortzetikoa den ideiarik: Ez dago ezer ulermenean aurretik zentzumenetatik pasa ez denik.

Erantzuna:

- a) Gure ideia guztiak jasotakoak dira. **Enpirismoa.**
- b) Baliozkoa den ezagutza-iturri bakarra arrazoiarena da. **Arrazionalismoa.**
- c) Sortzetiko ideiak badirela baieztatzen du. **Arrazionalismoa**
- d) Gure ezagutza guztiaren iturria esperientzia da. **Enpirismoa.**
- e) Ez dago sortzetikoa den ideiarik: Ez dago ezer ulermenean aurretik zentzumenetatik pasa ez denik. **Enpirismoa.**



43. Laburtu Descartes biografiaren alderdirik nabarmenenak, eta komentatu eta azaldu beheko pasartearen esanahia:

“Hegelen arabera, Descartes “pentsamendu modernoaren heroia” da, dama greziarra Erdi Aroko zaldunetik askatu eta modernotasunaren bide berritik eramaten baitu”

Erantzuna:

Descartes, filosofia modernoaren aita eta arrazionalismoaren aitzindaria 1596an jaio zen Turenan, familia noble eta aberats batean, eta horrek ikasketen bidea hartzea ahalbidetuko dio. Abizena **des Cartes** zuen, horregatik esaten da “filosofia cartesiarra”. Flècheko jesuiten eskolan ikasi zuen, eta filosofia eskolastiko eta aristotelikoaren prestakuntza jaso zuen. Han sumatuko du bere garai nagusi den funtsik eza eta zalantza. Horregatik hasiko da ondoren guztia zalantzan jartzen eta oinarri sendo bat bilatzen. 1618an **hogeita hamar urtetako gerra** hasiko da katolikoaren eta protestanteen artean. Armadan sartu eta bertan parte hartuko du. 1619an jakintza guztiari sendotasuna emango dion metodo unibertsal bat bilatzeko beharra sentituko du, eta orduan hasiko zaio filosofiarako bokazioa. “Bizitzaren liburu handitik ikasteko”, ibilbide militarra bertan behera utzi eta bidaiatzerai ekiten dio.

1629an Holandara joango da. 1637an bere lan handia aterako da, **“Metodoaren diskurtsoa”**. 1649an onartu egin zuen, ez oso gogo onez, Suediako Kristina erreginak haren gortera joateko egindako gonbidapena, 1646tik Descartes filosofian interesaturik baitzegoen hura. Descartes 1650eko otsailaren 11ean hil zen. Filosofo eta matematikari handi honek alderik alde zabalduko ditu modernotasunaren atak.

- **Pentsamendu modernoaren heroia** subjektibotasunaren bidea hasten duelako. Filosofian abiapuntua subjektua bera izango da: “Nik sinisten dut” izango da bere sistemaren ardatza. **Dama greziarra**, hau da, arrazoa, **Erdi Aroko zaldunetik askatuko du** (fedetik): une horretatik aurrera arrazoiak fedearen zerbitzari umil izateari utziko dio eta bere bideari ekingo dio autonomiaz eta buruaski izanez. Fedea zokoratuta geldituko da arrazoiaren botere menderatzailearen aurrean.

44. Esan zein diren eta definitu metodoaren zatiak Descartes arabera


Erantzuna:

Descartes ustez, metodoa zalantzatik atera eta ziurtasunera garamatzen bidea da. Filosofiak segurtasuna emango dion metodo egoki bat behar du, horregatik sartzen du Descartesek filosofian metodo matematikoa, giza arrazoiari behin betikoa eta apelaezina den egia irizpide bat emateko. Hona zein liratekeen bere funtsezko arauak:

- **Nabaritasuna:** Zalantzakorra den ezer ez onartzea. Onartzea, soilik gure adimenean argitasun eta dotoretasun osoz agertzen zaigun hori.
- **Analisia:** Bereizketa esan nahi du. Ideia konplexuak ideia sinpleetan banatu behar dira. Ideia konplexuak ideia sinpleetan deskonposatzea, horrela argitasuna eta nabaritasuna lortu eta errorea saihesteko.
- **Sintesia:** Kontzeptu konposatuak ideia sinple eta intuitiboetan bihurtu ditugunean, birmoldatu egin behar ditugu sintesiaren bitartez. Intuizio partzialen kate bat osatu behar da, eta emaitza ziurtasun nabari eta akatsik gabekoa izango da.
- **Zerrendatzea:** Metodoaren zati laguntzailea da: prozesu guztia errebisatzean datza, ezer ahazten ez dugula ziur egoteko.

45. Behean aipatzen diren ezaugarrietatik, esan zein egokitzen den hobekien Descartes printzipio ospetsura: “pentsatzen dut, beraz, banaiz”:

- a) Lehenik pentsamendua jasotzen da eta gero existentzia.
- b) Pentsamendua eta existentzia, biak batera jasotzen dira
- c) Filosofia cartesiarraren lehen printzipioa da.



Erantzuna:

- a) **Lehenik pentsamendua jasotzen da eta gero existentzia.** “Pentsatzen dut, beraz, banaiz” esaldiaren interpretazio hori **ez da zuzena**. Existentzia ez da pentsamendutik ondorioztatzen.
- b) **Pentsamendua eta existentzia, biak batera jasotzen dira.** “Pentsatzen dut, beraz, banaiz” ulertzeko **modu zuzena da**. Pentsamendua eta existentzia, biak batera jasotzen dira, aldi berean. Existitzen naizela ohartzen naizen une berean gertatzen da, hau da, subjektuak pentsatzean antzematen du existitzen ari dela. Existentzia ez da pentsamendutik ondorioztatzen, bi gauzak batera sumatzen dira.
- c) **Filosofia cartesiarraren lehen printzipioa da. “Pentsatzen dut, beraz, banaiz”** egia aldaezina da, ezin daiteke zalantzan jarri ziurra eta nabaria den zerbait. Oinarri horretan egituratzen du Descartsek bere filosofiaren eraikin osoa. Intuizioz jasotako lehen printzipio horretatik abiatuta, Descartsek bere filosofia osoa ondorioztatuko du. **Filosofia cartesiarraren oinarrizko printzipioa da.**

46. Definitu zer den substantzia Descartesentzat eta esan zein diren bereizten dituen substantzia motak, substantzia horien funtsezko ezaugarriak zein diren adieraziz.

Erantzuna:

Descartsek sinonimo gisa erabiltzen ditu “substantzia” eta “gauza” (“res”) hitzak. Substantzia existitzen den gauza konkretua da, erreala dena. Hitz hori latinetik dator “**Sub – stare**”: Zerbaiten azpian dagoena, hau da, oinarria, euskarria, zimendua. Substantziaren kontzeptu hori funtsezkoa da eta honela definitzen du Descartsek: “**Substantzia ulertzen dugunean, existitzeko bere buruaren beharra baino ez duen gauza bat bakarrik ulertzen dugu**” (*Printzipioak I., 51*).

Definizio horretatik funtsezko bi ezaugarri hauek ondorioztatzen dira: a) Buruaskia: substantziak aski du bere buruarekin. b) Independentzia: Buruaskia denez, ez da ezeren mendeko.

Hauk lirateke hiru substantzia motak Descartesen arabera:

Substantzia pentsatzailea	Substantzia infinitua	Substantzia luzea
Arima (ni) “res cogitans”: Gauza pentsalaria.	Jainkoa	Mundua: “res extensa”: Gauza luzea
Atributua: Pentsamendua: luzeluzerarik gabeko jarduera	Atributua: Perfekzioa	Atributua: jarduerarik gabeko luzera

47. Esan beheko adierazpen horiek egia ala gezurra diren:

- a) Descartsek arima-gorputza dualismo antropologikora jotzen du giza askatasuna defendatzeko.
- b) Askatasuna axolagabetasun hutsa da.

Arrazoitu hautatutako aukerak.



Erantzuna:

- a) Descartesek arima-gorputza dualismo antropologikora jotzen du giza askatasuna defendatzeko. **Egia.** Gorputza eta arima (pentsamendua eta luzera) errotik banatzearekin askatasuna salbatu nahi da. Askatasuna pensamenduaren atributu bat da, eta pensamenduak jarduera du, baina ez luzera; horrela bada, pensamendua ez dago fisikako legeen mende, horiek gorputz fisikoetarako balio baitute baina ez diote psikikoari, alegia, pensamenduari eragiten. Pentsamenduak eta askatasunak determinismo fisikotik ihes egiten dute.
- b) Askatasuna axolagabetasun hutsa da. **Gezurra.** Askatasuna ez da axolagabetasun hutsa, orduan askatasunaren kontzeptu pasiboa bailitzateke. Garbi geratu da askatasuna pensamenduaren atributu bat dela, eta pensamendua jarduera da.

48. Laburtu eta azaldu ilustrazioaren ezaugarri orokorrak eta azaldu arrazionaltasun eredu berri horren oinarrizko alderdiak.

Erantzuna:

XVIII. mendeko ilustrazioan nabarmentzekoak dira, batetik, bizi zen baikortasuna eta, bestetik, **giza arrazoimenaren** botereetan eta gaitasunetan zuten uste handia. **Argien mendea izan zen, iluminismoarena, argitasunarena,** alemanez **“Aufklärung”**... Ohikoa izan zen argiaren metafora erabiltzea, adierazteko ezjakintasunaren iluntasuna atzean geratu zela eta, une hartatik aurrera, arrazoiak edonon egingo zuela dizdiz. Ilustrazioak arrazionaltasun-eredu berri bat ezarri zuen; hona eredu horren ezaugarri nagusienak:

- **Arrazoi enpirikoa:** Ilustratuen arrazoiak partikularretik abiatu eta lege orokorretara doa. Ezagutza zientifikoak esperientzian du jatorria.
- **Arrazoi kritikoa:** Ilustratuek arrazoiaren autokritika egiten dute. Arrazoiaren gaitasuna zehaztu nahi dute, arrazoiaren mugak ezarri. Esperientziak markatuko ditu, hain zuzen ere, muga horiek. Metafisika balio gabetuta geldituko da, esperientziaren mugak gainditzen dituenaz.
- **Arrazoi autonomoa:** Edozein motatako tutoretza, tradizio eta autoritate ukatu eta ilustratuek gure kasa pentsatzera gonbidatzen gaituzte, gure arrazoiak baliatzera: **“Sápere aude”**: “Ausartu pentsatzera” izango da euren lematako bat.
- **Arrazoi sekularizatzailea:** Arrazoiaren eta fedearen arteko tentsio eta orekarekin hausten du, eta fedea arrazionala den horretara murrizten du. Erlijioaren interpretazio arrazionala da: **“Erljioa arrazoi hutsaren mugen barnean”** da Kanten obra baten izenburua, aski adierazgarria izan ere.

49. Esan zein diren eta laburtu Kantengan eragin zuten autore edo korrante nagusien ezaugarriak.

Erantzuna:

Hona hemen Kantengan eragin zuten autore eta korranteak, bere pensamenduaren garai ezberdinak markatu zituztenak:

- Leibnizen **arrazionalismoa**, Wolff metafisikako maisuaren bitartez ezagutu zuen. Kant bereziki kritikoa izango da Leibnizen tesiekin, alegia, egia soilik arrazoiak ezagutu dezakeela dioen tesiarekin, esperientzia alde batera utzita.
- **Heziketa pietista** zorrotza: Pietismoa protestantismoaren barneko mugimendu bat zen, eta kristautasuna berritzea eta, moralari dagokionez, exigentzia-maila zorrotza zituen helburu. Horrek arrastoak utziko ditu Kantengan, moralari dagokionez (Arrazoi Praktikoaren Kritika) eta erlijioari dagokionez, erritu eta praktika erlijiosoak baztertzen zituenaz.
- **Knutzen**, bere logikako maisua. Hark bideratu zuen Newtonen mekanika, matematika, fisika eta metafisika ikastera.



- **Humeren enpirismoa** eta **Rosseauren** pentsamendua. Horien bitartez ezagutu zituen ilustrazio frantsesaren idealak eta zoragarriak iruditu zitzaizkion. Kantek dioenez, Hume irakurrita **“amets dogmatikotik esnatu zen”**. Hau da, Hume irakurtzeak arrazionalismoa uztera bultzatu zuen eta bere aro kritikoa hasi zuen, jarrera antimetafisikoa hartuta.

50. Azaldu Kanten biografiaren alderdi nabarmenenak eta esan zein diren haren obrarik garrantzitsuenak.

Erantzuna:

Inoiz egon den alemaniar filosoforik handiena eta pentsamenduaren historian eragin gehien izan duena, 180 gradutako bira eman baitzion, metaforikoki **“iraultza kopernikarra”** deitua. Königsberg-en jaio zen (garai hartan ekialdeko Prusia eta, egun, Errusiako probintzia), 1724. urtean.

Sekta pietistaren balore moraletan hezitu zuten, eta beti mantendu zituen printzipio moral sendoak.

Irakasle izan zen berrogei urtez Königsberg-eko Unibertsitatean. Ilustrazioaren izpiritu entziklopedikoak bultzatuta, bere kezkek filosofia eta zientziatik hasi eta moralera ere iritsi ziren. Ilustrazioaren idealak defendatu zituen eta Iraultza Frantsesaren eta Ameriketako Estatu Batuen independentziaren aldeko agertu zen.

Bere izaerari dagokionez, bizimodu metodikoa, lasaia eta diziplinatua mantendu zuen beti, ziurrenik pietismoaren eraginez. Hiri berean hil zen, Königsbergen, 1804ean. Hauek bere obrarik garrantzitsuenak:

- **Arrazoimen hutsaren kritika. (1781).**
- **Zer da ilustrazioa? Galderaren erantzuna (1784).**
- **Arrazoimen praktikoaren kritika (1788).**
- **Judizioaren kritika (1790).**
- **Betirako bakea (1795)**

51. Erantzun Arrazoimen Hutsaren Kritikari buruzko galdera hauek:

- a) Zein galdera erantzun nahi du Kantek Arrazoimen Hutsaren Kritikarekin?
- b) Esan zein diren Kritika osatzen duten funtsezko zatiak.
- c) Esan beheko adierazpen horiek egia ala gezurra diren:
 - Estetikan Kantek fisika zientzia gisa hartzeko aukera aztertzen du.
 - Dialektikan Kantek metafisika zientziatzat hartzea posible den aztertzen du.
 - Analitikan Kantek matematika zientziatzat hartzeko aukera aztertzen du.

Erantzuna:

- a) **Zein galdera erantzun nahi du Kantek Arrazoimen Hutsaren Kritikarekin?** Arrazoimen Hutsaren Kritikan Kantek erantzuna ematen dio **Zer ezagutu dezaket?** Galderari. Ezagutzaren gaia lantzen du eta naturaren ezagutza zientifikoaren mugak ezartzen ditu.



b) **Esan zein diren Kritika osatzen duten funtsezko zatiak:** Hauek dira Arrazoimen Hutsaren Kritikaren funtsezko zatiak:

Arrazoimen hutsaren kritikaren zatiak	Estetika transzendentala	Analitika transzendentala	Dialektika transzendentala
Aztertzen dituen gaitasunak	Sentikortasuna	ulermena	arrazoimena
Erantzuten duen galdera	Nola dira posible a priorizko judizio sintetikoak matematikan?	Nola dira posible a priorizko judizio sintetikoak fisikan?	Posible al dira a priorizko judizio sintetikoak fisikan?

c) Esan beheko adierazpen horiek egia ala gezurra diren:

- Estetikan Kantek fisika zientzia gisa hartzeko aukera aztertzen du. **Gezurra**
- Dialektikan Kantek metafisika zientziatzat hartzea posible den aztertzen du. **Egia.**
- Analitikan Kantek matematika zientziatzat hartzeko aukera aztertzen du. **Gezurra**

52. Esan zein diren Arrazoimen Hutsaren Kritikaren eta Arrazoimen Praktikoaren Kritikaren artean dauden funtsezko ezberdintasunak.

Erantzuna:

Beheko taulan bi kritiken artean dauden funtsezko ezberdintasunak zein diren ikus daiteke:

ARRAZOIMEN HUTSAREN KRITIKA.	ARRAZOIMEN PRAKTIKOAREN KRITIKA
Zer da ilustrazioa? Galdera erantzuten du	Zer egin behar dut? Galdera erantzuten du
Izakiaz hitz egiten du	Izan beharraz hitz egiten du
Judizioak formulatzen ditu	Inperatiboak formulatzen ditu.
Zientziaren posibilitateaz hitz egiten du	Etikaren posibilitateaz hitz egiten du

53. Esan beheko ezaugarrietatik zein dagozkien “etika material” deritzanei eta zein dagozkien Kanten etika formalari:

- Autonomoak dira.
- Inperatibo hipotetikoak ematen dituzte.
- Edukia dute.
- Inperatibo kategorikoak ematen dituzte.
- Edukirik gabeak
- Heteronomoak dira.

Erantzuna:

- Autonomoak dira. **Etika formalaren ezaugarria**
- Inperatibo hipotetikoak ematen dituzte. **Etika materialaren ezaugarria**
- Edukia dute. **Etika materialaren ezaugarria**
- Inperatibo kategorikoak ematen dituzte. **Etika formalaren ezaugarria**
- Edukirik gabeak **Etika formalaren ezaugarria**
- Heteronomoak dira. **Etika materialaren ezaugarria**



54. Azaldu “postulatu” terminoaren esanahia, eta adierazi zein diren Kantek Arrazoimen Praktikoaren Kritikan proposatutako funtsezko postulatuak.

Erantzuna:

Kantek matematikatik hartzen du “**postulatu**” terminoa.

Postulatu bat begi-bistakoak ez diren eta egiaztatu ezin daitezkeen proposizioak dira, baina onartu behar direnak, bestela, edozein baieztapen ezinezkoa bailitzateke. Esate baterako, Kanten iritziz, ezin daiteke egiaztatu askatasuna existitzen denik, baina onartzea beste erremediorik ez dago, arrazoi praktikoaren “a priori” den “betebehar” gisa. Modu errazago batean esateko, betebeharrak askatasunaren existentzia aurruposatu edo postulatu du. “Ikasi egin behar duzu” esaten denean, egin dezakezu ala ez; azken batean, aske zara.

Begi-bistakoak ez diren eta egiaztatu ere egin ezin daitezkeen errealitate horiek, baina etika edo moralaren exijentzia gisa onartu behar direnak, postulatuak dira. Kantek hiru bereizten ditu:

1. Askatasuna: “**Zuk bete behar duzu, beraz askea zara**”. Azaldu berri den moduan, betebeharrak askatasunaren existentzia aurruposatu du.
2. Arimaren hilezkortasuna: Nahiak, bere ekintza moralean, bizitza honetan lortezina den helburu bat du, beraz, hori posible den beste bizitza bat badela baieztatu beharra dago. Horrela bada, arimaren hilezkortasuna postulatu baina ez dago.
3. Munduan, izakia eta betebeharra ez dira identifikatzen; horrenbestez, bi errealitate horiek identifikatzen diren izaki gisa onartu behar da Jainkoa.

Kantek, azkenerako, arrazoimen hutsarekin botatako guztia altxatzen du arrazoimen praktikoarekin. Unamunok “Bizitzaren sentimendu tragikoaz” liburuan honela dio: “**Kantek buruaz botatzen duena bihotzaz altxatzen du**”. Teoriaren eta praktikaren arteko norgehiagoka, ondoren marxismoaren azterketa-gai izango dena, abian zen dagoeneko.

55. Esan zein diren Industria Iraultzaren adierazgarri diren funtsezko faktoreak eta aipatu zein izan den horiek Marxen filosofian izan duten eragina.

Erantzuna:

Industria Iraultza **artisansu-manufakturatik fabrika-ekoizpena** egindako jauzia da.

Hauek izan ziren, besteak beste, industriarako bihurteta bultzatu zuten faktoreak:

- **Liberalismoa:** Estatuaren politika ez interbenzionista oinarri hartuta, industrializazioa bultzatu zuen, burgesiaren ekimen partikularrak oztopatu ez zituelako.
- **Biztanleriaren igoera:** Heriotza-tasa jaitsi izanaren ondorio zuzena izan zen, eta fabrikek funtzionatzeko behar zuten eskulana lortu zuten. Hazkunde horrek eskulan soberakina ekarri zuen eta, beraz, eskulan merkea bihurtu zen.
- **Berrikuntza teknikoak** (lurren-makina...etab) erabakigarriak izan ziren biztanleria igotzerako garaian. Denbora gutxiagoan eta pertsona gutxiagorekin gehiago fabrikatu ahal izan zen.
- **Kapitalaren existentzia:** ezinbestekoa zen, fabrika muntatzeak eta makinak erostek inbertsio handia eskatzen baitzuen.

Faktore horien guztien elkarrekintzak Industria Iraultza bultzatu eta kapitalismoa sendotu zuen. Horrek gizarte-mailen arteko ezberdintasun handia ekarri zuen, batez ere enpresarien eta proletariotzaren artean. Ezberdintasun horiek izan ziren langile-mugimenduaren eta XIX. mende amaierako iraultza sozialen oinarri. Esan daiteke filosofia marxista baldintza horiek eraginda sortu zela.



56. Laburtu Marxen datu biografikorik garrantzitsuenak eta aipatu haren obrarik aipagarrienak.

Erantzuna:

Karl Marx Treverisen jaio zen, Renanian, Prusiako eskualdean. Bere jaioterriko Gymnasium-ean ikasketak amaitu ostean, Bonn-eko unibertsitatean sartu zen. Ondoren Berlingo Unibertsitatera joan zen, han puri-purian ziren **Hegelen** irakaskuntzak. Berehala egin zuen bat ezker hegeliar deritzan mugimenduko kritikoa eta erradikalekin. Eurengatik jaso zuen haren ondorengo pentsamenduan erabakigarria izango zen eragina. 1841ean egin zen doktore baina unibertsitateko irakasle izateko aspirazioa bertan behera gelditu zen, izan ere, Prusiako gobernu erreakzionarioak irakaskuntza munduan lan egiteko sarbidea itxi zion bere politika kontserbadorearen aurka azaltzen zen orori.

Alternatiba gisa, kazetaritzatik bizitzen saiatu zen: Renaniako Kazetan egin zuen lan. 1843an Prusiako Gobernuak egunkaria ixtea agindu zuen. Urte horretan bertan Parisera erbesteratu zuten.

Parisen demokraten eta sozialisten talde klandestinoekin erlazionatu zen. Garai horretan **Saint Simon** eta **Fourier** bezalako pentsalarien lanak irakurri zituen. **Proudhon** eta **Bakunin** bezalako anarkistak ere ezagutu zituen, horiengandik urrundu egin zen, arrazoi ideologikoak zirela eta. Prusiako gobernuaren presioak zirela eta, Parisetik kanporatu zuten, eta Bruselara joan zen, han bere jarduerak politikoa areagotu zuen. Langile-elkarte batek hala eskatuta, **Engelsekin** batera **Manifestu Komunista** idatzi zuen (1848).

1848ko Iraultzaren gorabeherak Europan zehar bidaiatzera behartu zuten, 1849an behin betiko Londonen finkatu zen arte, aurrean zituen urritasun ekonomikoak, eskasiaz eta goseaz beteriko egunak. 1860. urtetik aurrera bere egoera hobetu egin zen emaztearen herentzia bati esker, eta bere lan handiari eutsi ahal izan zion, hots, **Kapitala** lanari. Marx 1883an hil zen, bere lan handia burutu ahal izan gabe. Bere lagun Engelsek osatu behar izan zituen azken bi liburuak.

57. Lotu Marxengan eragina izan zuten egile eta korronteei buruzko bi zutabe hauek:

- Saint Simon Anarkismoa
- Feuerbach Sozialismo utopikoa
- Adam Smith Hegeliar ezkerria
- Proudhon Liberalismo ekonomikoa


Erantzuna:

- Saint Simon Sozialismo utopikoa.
- Feuerbach Hegeliar ezkerria
- Adam Smith Liberalismo ekonomikoa
- Proudhon Anarkismoa

58. Azaldu alienatze hitzaren esanahia eta zerrendatu eta azaldu modu eskematikoan Marxek bereizten dituen alienatze mota ezberdinak.

Erantzuna:

Jatorri juridikoa duen terminoa, latinezko **alienus** hitzetik eratorria; besterena, besteen jabetzakoa esan nahi du, eta salmenta eta lagapen kasuetan aplikatzen da. Horrela bada, ondasun bat alienatzea berau oparitu edo saltzea da, beste bati norberarena zen zerbait transmititzea. Esanahi-esparrua zabaldu eta zentzu psikopatologikoan ere alienatzeaz hitz egiten da, burutik egotearen edo zoramenaren sinonimo gisa. Alienatua, beraz, adimena zatituta duen gaixo mentala da.



Termino horren zentzu filosofiko hutsari erreparatuz gero, “**arrotz bihurtzea**”, “**urruntzea**” esan nahi du, eta subjektuak bere burua arrotz sentitzen duela adierazten du. Alienazio ideiarene zentzu filosofikoa **Hegel**, **Feuerbach** eta **Marxek** landu dute batez ere.

Alienatze mota ezberdinak daude:

1. **Alienatze erlijioso eta filosofikoa:** Erlijio eta jainkoak gizakiak sortutakoak dira. Gizakiek sortu dute Jainkoa, euren behar eta larritasunen arabera, eta ez alderantziz. Jainkoaren ideian gizateriaren dohainak islatu dituzte. Prozesu horren amaieran, gizakiak, benetako sortzaileak, berak sortutako izakia gurtzen du: Jainkoa. Gizakiak alienatze-mekanismo horretatik aske gelditu behar du. Beste mundu hobea baten promesak gizartearen eraldatzeko gogoak lasaitzen ditu eta onargarri egiten ditu hemengo munduan onartezinak diren egoerak. Honela esan zuen Marxek: “**Erljioa herriaren opioa da**”. Feuerbachen arabera, filosofia bera, azken batean, itxura filosofikoaren azpian ezkutatzen den teologia baino ez da.
2. **Alienatze politikoa:** Estatu burgesarri kritika. Estatuaren gizarte zibilaren sorkuntza bat da. Jabetza pribatuaren erregimenean, Zuzenbidearen eta Estatuaren esparruan, norbanakoak herritar gisa berdinak azaltzen dira legearen aurrean, ordea, izatez, jabetza pribatuaren erregimenak herritarrek banatu egiten ditu eta aurrez aurre jartzen ditu eta horregatik ezin daitezke burutu. Testuinguru horretan, estatuaren klase menderatzailearen zerbitzura dagoen arma bat da, klase menderatua kontrolpean izateko.
3. **Alienatze ekonomikoa.** Ekonomia politikoari kritika: Gizarte kapitalistan lanak ez du duintasunik ematen, baizik eta alderantziz, jabetza kendu eta besterendu egiten du. Izan ere, sistema ekonomikoa liberalean, lana esplotaziorako bitarteko batean bihurtzen da. Alienatze ekonomikoa gainbalioan zehazten da; Marxen iritziz, gainbalio hori mekanismo bat da, langile-klasea esplotatzeko oinarria. Gainbalio horrek salgai bihurtzen du edozer gauza, baita gizakiaren lana ere.

59. Pentsamendu marxistaren ortodoxiatik ikusita, esan beheko baieztapenak egia ala gezurra diren:

- Iraultza gainegitura aldatzera bideratuta egon behar da.
- Egitura ekonomikoa da gizartearen benetako oinarria.
- Azpiegiturak zehaztu edo baldintzatzen du gainegitura.

Erantzuna:

- Iraultza gainegitura aldatzera bideratu egon behar da. **Gezurra.**
- Egitura ekonomikoa da gizartearen benetako oinarria. **Egia.**
- Azpiegiturak zehaztu edo baldintzatzen du gainegitura. **Egia.**

60. Esan zein diren Nietzscherengan eragina duten korrante filosofikoak.

Erantzuna:

Honako hauek lirateke, besteak beste, eragin handien izan zuten korranteak:

- **Comteren positibismoa:** Autore honen arabera, gizateriak, aurrerapenaren bide iraunkorrean, hainbat garai pasatzen ditu: **Garai teologikoa** garai mitiko edo erlijiosoa da, gizakiak jainkoengana jotzen du gauzak azaltzeko. Bigarren garaian edo **garai metafisikoan**, arrazoiak betetzen du irudimenaren tokia eta filosofia erlijioa ordezkatzeko. Arrazoiak erabat txundituta, erlijioa desagertu egiten da. Hirugarren garaian, garai **positibo edo zientifikoan**, zientziak filosofiarekin amaitzen du. Gertakariak eta esperientziak metafisika eta ideiekin amaitzen dute. Azkenerako, zientziak erlijioa nahiz filosofia irensten ditu. Hau da, erlijioa espaziorik gabe gelditu da, zokoratuta. Nietzscheren heriotzaren teoria norabide horretan bertan doa.



- **Eboluzionismoa:** Darwinen ideiek eragin handia izango dute Nietzscherengan: “indartsuen morala”, “botere-nahia” eta “supergizakia” teoriak eboluzio-prozesuaren beraren legeak onartzea dakar eta onartzea, halaber, eboluzioa ez dela amaitu. Tximutik gizakia sortu baldin bazen, zergatik ezin daiteke gizakitik supergizakia sortu?, galdetuko du Nietzschek.
- **Schopenhauerren boluntarismoa:** Esan daiteke Schopenhauer dela bitalismoaren aitzindaria: bizitzeko nahia da errealitate orotan dagoen absolutua. Bizitza etengabeko borroka da. Schopenhauerrek baldintzatu zuen erabat Nietzscheren botere-nahia kontzeptua.

61. Aipatu Nietzscheren obren garai ezberdinak ezagutzea eta interpretatu itzazu haren biografiaren arabera.

Erantzuna:

Bere lanetan bi aro hauek bereizten dira:

- a) **Aro erromantikoa edo “gaueko filosofia”:** Nietzschek Schopenhauer eta Wagnerren eragina jasotzen du, bere hitzen arabera: “Nire bi gidari espiritualak”. Garai hartan filologia klasikoko irakaslea zen Basileako Unibertsitatean. Garai hartako lanik aipagarriena: **Tragediaren jatorria** (1872). Dionisio eta Apoloren arteko kontrajartzea da gehien erabiltzen duen gaia.
- b) **Garai positibista edo ilustratua. “Goizeko filosofia”.** Wagner eta Schopenhauerrekin hautsiko du; Nietzschek Voltaire eta ilustratu frantsesengan aurkituko du inspirazioa. Zuzenean egingo du erlijioaren kontra eta metafisika platonikoaren kontra. Hona garai honetako lanik nabarmenenak: **“Gizatiarra, gizatiarregia”** (1878): Aforismo eta esaera laburrak erabiliz dago idatzia, eta intuizio handiak eta pentsamendu harrigarriak azaltzen dituzte: Lan horretan mendebaldeko kulturaren ideal ororen kontra egiten du. **“Gaia zientzia”** (1882). Lan honek gizonaren askapenaz hitz egiten du eta lehengo aldiz agertzen da Jainkoaren heriotzaren gaia.
- c) **Zaratuaren mezua. Egurdiko filosofia:** Orain iristen da pentsamendua punturik gorenera, eguerdira iristen da. **Honela mintzatu zen Zaratuza** (1883 – 1885), lanik oinarritzakoena da, poetikoena eta profetikoena. Itun Berria izan nahi du; Zaratuza ebanjelio berri bat predikatuko du, moral berri bat. Lan honek hiru zati ditu: a) Lehenengo zatian **Jainkoaren heriotza** eta **Supergizakia** deskribatzen ditu. b) Bigarrenean, **botere-nahia**. c) Hirugarrenean, **etengabeko itzulera**.
- d) **Garai kritikoa. Arratsaldeko filosofia.** Garai hau bere kritikaren zatirik gogorrena da: “Mailuaren filosofia” da. Bere estiloa biolentoa eta apasionatua bihurtzen da. Helburua balioak zeharaldatzea da. Lan hauek nabarmentzen dira: **“Ongiaz eta gaizkiaz haraindi”** (1886): Moralari eta erlijioari egindako kritika zorrotza. **“Moralaren genealogia”** (1887). Moralaren jatorria edo genesisia aztertzen du eta bere filosofian ezinbestekoak diren kontzeptuak azaltzen dira: Jauntxoaren morala eta esklabuaren morala. **“Idoloen krepuskulua edo nola filosofatzen den mailuka”** (1889): Idatzi gogorra da, orain arte egia deitu zaion hori guztia kritikatzeko duena. **“Ecce Homo”** (1888): Autobiografia probokatzailerik honek biblia du hizpide eta, bertan, honela ikusten du Nietzschek bere burua: **“Ni ez naiz gizona, ni dinamita naiz”**.

Hori da oinazez beteriko bizitza baten fruitu literario-filosofikoa, gaixotasunak eta zoramenak estututako gizon batetik sortua.



62. “Dionisio Apoloren aurrean”: Azaldu zein den aurkakotasun horrek duen esanahia Nietzscheren filosofian.

Erantzuna:

DIONISIO	APOLO
Tragedia grekoan Dionisio Jainkoa da bizitzako baloreen ordezkaria: Dionisio da ardoaren jainkoa, ugalkortasunarena, osasunarena; bera da senaren eta pasioaren irudia, bizitzako korrante eferbeszentearena. Dionisiar gizona harmonia betean bizi da naturarekin. Dionisio da bizitzaren eta senaren baieztapena. Zaratustra itxuraldatutako Dionisio baino ez da izango. Tragedian Dionisio da musikaren eta dantzaren jainkoa.	Tragedia grekoan Apolo Jainkoa da arrazoimenaren baloreen ordezkaria. Apolo da argiaren jainkoa, proportzioarena eta neurri justuarena, orekarena eta lasaitasunarena; gizon apoliniarrak errealitatea mozorrotu eta faltsutu nahi du, errealitatean arrazoa baita nagusi. Apolo bizitzaren eta senaren ukapena da. Sokrates eta Gurutziltzatua ildo honetan berean daude. Tragedian Apolo hitzaren jainkoa da.

63. Esan “jauntxoaren moralaren” eta “esklabuen moralaren” artean dauden funtsezko ezberdintasunak eta azaldu "ahulen moralari" egiten dion kritikaren funtsa.

Erantzuna:

Moral tradizionala (sokratikoa, platonikoa eta kristaua) antinaturala da, hau da, natuaren eta bizitzaren aurka doa. Legeei eta dekalogoei dagokienez, bizitzaren eta senaren kontra doan morala da. Orain arte irakatsitako morala da. Grabitate-zentroa “beste bizitza” horretan dago, hau da, Ideien munduan edo zeruan. Beste mundu bat asmatzen da gurea mespretxatzeko; era berean, gorputza asmatzen da arima mespretxatzeko. Ahuleziaren eta dekadentziaren morala da, ahulen baloreak indartsuen baloreen aurretik jartzen dituena. Nietzschek, beraz, bi moral mota bereizten ditu:

- Esklabuen morala:** Moral ebanjelikoa da, ezintasunaren eta ahuleziaren morala. Kaskarkeriaren morala da, bizitzaren kontrako mendeku-senez eraikitako morala. Moral horretan, ona pobrea dena da, behartsua dena, umila, gaixoa... ahulen morala da.
- Jauntxoaren morala.** Nietzschek esklabuen moralaren aurrean ematen duen alternatiba da. Zaldunaren morala da, bizitza, handitasuna, boterea maitatzen dituenaren morala. Moral noblea da, bizitzari baietz esaten dioten indartsuenen morala. Supergizakiaren morala da.

Nietzscheren arabera, egondako lehen morala jauntxoaren morala izan zen, indarra eta independentzia goresten dituena. Baina esklabuen iraultza egon zen, judutarren eta kristauen eskutik, eta balore moralak bihurtu egin ziren. Antzinako zapalduak pilatutako erremin hura sortzaile izatera pasa zen, eta ahulak goresten zituen baloreak sortu ziren: obedientzia, otzantasuna, esanekoa izatea... “artaldearenak diren baloreak”. Nietzschek ustetan, judutarrek izutzeko moduko logika erabili eta balore aristokratikoak, hau da, indartsuen edo jauntxoaren morala bihurtu egin zuten. Kristautasunak ere bihurtu hori hartu zuen bere gain. Nietzschek “taula zaharrak hausteaz” hitz egiten duenean balore ahul horietaz ari da, esklabuen morala, gainditu eta suntsitu beharrekoa jauntxoaren morala ezartzeko, hau da, supergizakiaren morala.

64. Azaldu Jainkoaren heriotzarekin lotuta dauden sinbolo hauen esanahia, Nietzscheren obran azaltzen dira (“Horrela mintzatu zen Zaratustra” obran).

- Gamelua
- Lehoia
- Haurra



Erantzuna:

“Horrela mintzatu zen Zaratustra” lanean hiru bihurtzeko hitz egiten digu, “Jainkoaren heriotza” hobeto ulertzeko. Hauek dira Nietzschek erabilitako sinboloak:

- Gamelua:** Gizaki sinestunaren sinbolo da. Gamelua desertuko animalia da eta zama handiak garraiatzen ditu. Obedientzia eta sakrifiziorako gaitasuna irudikatzen ditu. Belaunikatu egiten da mandamenduen taula zaharrak edo dekalogoak karga diezaioten eta oinez doa ezerezaren desertutik. **“Egin behar duzu”** aginduaren mende dago.
- Lehoia:** Balore erlijiosoak suntsitzen dituen gizakiaren sinboloa da. Jainkoa hil dela ohartzen da. Jainkoaren heriotzak uzten duen hutsunea gainditzeko izan behar diren indarra eta kemena irudikatzen ditu. Oihaneko erregea da, betebeharraren aurka azaltzen dena. Gameluaren “zuk egin behar duzu” horren kontra **“nik nahi dut”** dio.
- Haurra:** Sorkuntzaren eta inozentziaren sinboloa da. Supergizakiaren izpiritua da, balore berriak ezartzen ditu, balore zaharrek erortzean utzitako hutsunea betetz. Haurrak balore berriak sortzeko gaitasun ludikoa irudikatzen du.

65. Azaldu Nietzschek filosofiaen bi termino hauen esanahia:

- Nihilismoa
- Botere-nahia

Erantzuna:

- Nihilismoa:** Latinetik datorren hitza, “Nihil” = Ezer ez.
- Nihilismoa** gure mendebaldeko kulturaren historiaren ondorioa da. Mendebaldeko izpirituen indarra, nekaturik, desegokiak eta gezurrekoak diren baloreez aspertuta, nihilista bihurtuko da. Jainkoaren heriotzarekin, mendebaldeko zibilizazioa orain arte izan dituen balorerik gabe gelditzen da. Balore horiek faltuak ziren, eta airez betetako globo batekin bezala gertatzen da, zulatu eta ez da ezertan gelditzen. Balore zahar horiek (esklabuen moralak) bizitzaren ukapena dira, "ezerezaren nahitik" baitatzen. Sokrates, astaperrexila edanez, eta Nazareteko Jesus, gurutzetik zintzilik, bizitzaren gehienezko ukapena dira.
- Botere-nahia:** Botere honek deuseztatzen ditu, hain zuzen ere, balore zahar horiek, ez baitira bere kasa erortzen. Baldintza hori bete behar da lehenik, botere-nahiak balore berri batzuk sortu ahal izan baino lehen. Supergizakiaren bizitzari baietz esatea da. Botere-nahia sortzaileen boterea da, berdintasun-nahiari kontrajartzen zaiona, botere-nahiak menderatze-nahia, indar-nahia, bizitza indarra... esan nahi du. Hau da, botere-nahia bizitzaren sinonimoa da, bizi-nahiaren sinonimoa: **“Izaki bizidun bat ikusi nuen eta botere-nahia aurkitu nuen”...**

66. Beheko adierazpenek Nietzschek filosofiaen etengabeko itzulera teoriari egiten diote erreferentzia. Esan egia ala gezurra diren:

- Etengabeko itzuleraren teoria kexa bat da, denbora lerro batean irudikatzearen aurka
- Etengabeko itzuleraren teoriari esker nahiak iragana nahi izan dezake.
- Etengabeko itzuleraren ideia ezkorra da funtsean
- Etengabeko itzulerak “baietz” esaten dio bizitzari eta botere-nahia agertzen duen munduari.

Erantzuna:

- Etengabeko itzuleraren teoria kexa bat da, denbora lerro batean irudikatzearen aurka. **Egia.** Etengabeko itzuleraren teoria kultura grekotik hartua dago eta, horren bitartez, Nietzschek kontra egiten dio kristautasunak denbora lerro batean irudikatze mantendutako jarrerari. Nietzschek arabera, lerro zuzenak gezurra dio, egia Zaratustraren eraztunean dago, zirkuluan, denboraren ikuspegi ziklikoan.



- b) Etengabeko itzuleraren teoriari esker nahiak iragana nahi izan dezake. **Egia.** Denbora lerro batean irudikatzeak botere-nahia mugatuko luke: nahiak ez du berriz ere iragana nahi, baina guztia errepikatzen baldin bada, berriro nahiko da iragana. Horrenbestez, botere-nahia eta etengabeko itzulera elkar lotuta daude.
- c) Etengabeko itzuleraren ideia ezkorra da funtsean. **Gezurra.** Baikorra da, berriz ere iragana nahi izateko aukera baitauekagu. Gainera Nietzsche hautapenezko etengabeko itzuleraren alde azaltzen da: Itzultzen dena ez da berbera, baizik eta bikainena, dekadentea dena desagertu egiten da.
- d) Etengabeko itzulerak “baietz” esaten dio bizitzari eta botere-nahia agertzen duen munduari. **Egia.** Bizitzaren eta existentziaren balorea adierazten ditu edozein dotrina ezkorren aurka; jolas kosmiko alai bat irudikatzen du, norbera onartzeko kantu bat, existentziaren bedeinkapena. Bizitzaren baieztapena da ukapen sokratiko-kristauaren aurrean.

67. Esan zein izan ziren eta komentatu labur-labur XX. mendearen lehen erdiko gertaera biolentoak, ikuspegi filosofikoa ezkortasunez bete zutenak eta existentzialismoan eragin erabakigarria izan zutenak. (Mundu gerrak eta totalitarismoak)

Erantzuna:

XX. mendearen lehen erdia gerraz betea egon zen, pentsaezineko tamainakoak gainera: esparru eta sektore guztiek bukatu zuten bertan murgilduta, inoiz ez bezala. Hona gertaera nabarmenenak:

- Gerra Handia edo I. Mundu Gerra: (1914 – 1918).
- 29ko krak ekonomikoa.
- Ideologia totalitarioak (nazismoa eta faxismoa). Hannah Arendt-ek dioen moduan: **“Totalitarismoaren helburua ez da gizakiak modu despotan menderatzea, baizik eta ordena bat sortzea, non gizakiak funtsezkoak ez diren”.**
- II. Mundu Gerra (1939-1945) eta bere ondorioak: Gerra hotza eta terrore nuklearraren oreka.

Premisa horietatik abiatuta, Ez da harrizkoa ezkortasuna, larritasun sentimendua, bizitza zentzugabea dela pentsatzea zabaldu izana.

68. Erantzun existentzialismoari buruzko beheko galdera hauek, esan egia ala gezurra diren

- a) Esentzia existentziaren aurretik dago
- b) Norbanakoaren berezitasunak du garrantzia, ez ideia abstraktuek

Erantzuna:

- a) **Esentzia existentziaren aurretik dago. Gezurra.** Sartre eta Heideggeren arabera, existentzia esentziaren aurretik dago. Gizakia izatez, bada, existitu egiten da, gizakiaren esentziak ez baitu askatasunik: “gizakia nahi duena izango da”.
- b) **Norbanakoaren berezitasunak du garrantzia, ez ideia abstraktuek. Egia.** Gizon zehatza da garrantzitsua, Unamunok aipatzen zuen **“hezur eta haragizko gizona”.** Existentzialismoak subjektibotasunerako itzulera adierazten du eta, bizitzatik urrunduta eta bereizita, esentzien erreinu zaharrean dauden ideia abstraktu zaharrak uztea, hots, giza bizipenatarako hurbilketa bat.



69. Aipatu Sartreren obratako batzuk (filosofia, antzerkia edo eleberria) eta egin horietako baten laburpen txiki bat.

Erantzuna:

Sartrek filosofia eta literatura uztartuko ditu, elkarketa emankor eta sortzailea izango da eta helburu garbi bat izango du: *“egiak eta sentimendu metafisikoak modu literarioan adieraztea”*. Horrela, ez da ideia abstraktuetatik abiatzen, baizik eta izaki konkretuetatik, “existentziara jaurtitako” izakietatik. Hauek lirateke bere obra nabarmenenak:

- **Izakia eta ezereza: Ontologia fenomenologiko baten saiakera.** (1940) Bere filosofia-lanik gorenena. Sartreren terminologia tipiko guztia azaltzen da hemen.
- **Goragalea** (1938). Jarrera objektibista batekin, bakardade sentimenduz beterik, bizitzaren zentzurik ezan murgilduta, Roquetin protagonistak arrastaka darama bere existentzia eleberriaren orrietan zehar.

Sartre antzerkigile bikaina ere bada. *“Eskenatokitik pentsatzea”* izan liteke bere asmoa. Antzerkiaren barruan honakoak nabarmentzen ditugu:

- **Euliak** (1943). Okupazio alemaniarrean estreinatu zen, eta errebelde izateko gonbidapen gisa hartu zen.
- **Ateak itxita** (1947): gainbehera joandako giza harremanen krudeltasun izugarria deskribatzen du. Hiru pertsonaien arteko bizikidetzaz ezinezkoa gertatzen da. Garcinen hitzetan: *“Ez dago zertan infernu bat sortu beharrik, infernua gainerakoak dira”*. Edota Inesen aitortzaren arabera: *“Gutako bakoitza beste bien borrotero izango da”*.
- **Esku zikinak.** Lan honetan konpromisoaren beharra azpimarratzen du: *“Konpromisoak hartu behar dira”*. Iritzi sendo bat nagusitzen da lan honetako orrietan: *“Errealitatea ekintza hutsa da”*.

70. Beheko esapideek Sartreren filosofiari egiten diote erreferentzia, komentatu esan nahi dutena.

- a) “Gizakia alferrikako pasio bat da”:
- b) “Askatasunera kondenatuta gaude”

Erantzuna:

- a) **“Gizakia alferrikako pasio bat da”**. Kontzientzia edo “nor bere baitarako izatea” ez da ezer, hutsa da, izateko grina, asebetetzeko gainerako gauzak behar dituen. Kontzientziak nahitako izaera du: xedera bideratzen da. Kontzientziak gainerako gauza guztiak bezalakoa izan nahi du, baina alferrikako nahia da, porrotera kondenatuta dago. Horregatik da gizona alferrikako pasioa, asegabetutako desioa, bukatu gabeko proiektua...
- b) **“Askatasunera kondenatuta gaude”**: Existentzia, funtsean, hautaketa da. Hautaketa askatasunaren ondorio bat da, gizona errotik askea den izaki bat da. Sartrek dioen moduan, **“askatasunera kondenatuak, kateatuak”** gaude eta ezin dezakegu aske izateari utzi. Askatasunaren bitartez hautatzen dugu gure bizitza. Existentziak hautatzera behartzen gaitu, zer izan nahi dugun hautatzera: **“...Hautatzeari uko egitea da, hautatzea ez hautatzea... (...)...ez gara aske izateari uzteko aske”** (J. P. Sartre: *Izakia eta ezereza*)



71. Aipatu zein diren mugimendu analitikoari dagozkion korronte nagusiak eta esan zein diren korronte horien benetako ordezkariak.

Erantzuna:

Pentsamenduaren historian zehar **hizkuntzak** filosofo askoren arreta jaso du. XX. mendearen lehen erdian, mugimendu eta korronte filosofikoen artean hizkuntzarekiko kezka analitikoak sortu zen. Hizkuntzaren filosofia hori, teoria bat baino, praktika bat da. Filosofia analitikoak jarduera argigarria da, eta gai bakar bat du hizpide: hizkuntza. XX. mendeko mugimendu filosofiko horri, oro har, **Mugimendu Analitikoa** deitu izan zaio. Mugimendu hori gutxi gorabehera ondoz ondokoak izan diren hiru garai edo korrontetan garatu da:

- **B. Russellen atomismo logikoak** eta Wittgensteinen lehen garaiak emango diote mugimendu honi hasiera. Russellen “**Tractatus**” obrak mugimendu horren funtsezko tesiei jarraitzen die, hein batean.
- Ondoren **Neopositibismo** logikoa dator, Vienako Eskolako kideek garatutako korrontea berau. **Eskol** Eskola horretako kide nabarmenenak dira, besteak beste, **Popper** eta **Carnap**.
- Eta azkenik **Filosofia Analitikoa** dator; korronte honek Wittgensteinen bigarren garaiko eragina jaso zuen eta baita haren bigarren lanarenak ere: “**Ikerketa filosofikoak**”. Filosofiak funtzio deskriptiboa du, hizkuntzaren erabilera anitzak ulertzen laguntzea. Filosofiak hizkuntzaren jokoak ulertu behar ditu arazo filosofikoak ebazteko. Arazo filosofiko asko hizkuntzako gaizkiulertuetara murrizten dira: “**Arazo filosofikoak ez dira konpontzen, sakabanatu egiten dira**” hizkuntza-analisiaren bitartez. Ez dago arazo filosofikorik hizkuntza-buruhausterik gabe: “**Gramatika tanto batek filosofia laino oso bat kondentsatzen du**”.

72. Laburtu Wittgensteinen biografiaren alderdi nabarmenenak eta esan zein diren haren obrarik garrantzitsuenak.

Erantzuna:

Wittgenstein 1889an jaio zen Vienan, garai hartan Europako kultur gune garrantzitsuenetako bat zen hirian, jatorri judutarra zuen industria-familia aberats eta kultu batean. Aita inperio austrohungariarreko industria-gizon boteretsuenetariko bat zen. 1906an Berlinera joan zen ingeniari ikastera eta 1908an Manchesterrera. Aeronautika ikasten ari zela matematikaz eta logikaz interesatzen hasi zen. Geroz eta interes handiagoa zuen gai horiekiko eta, horrela, Cambridgera joan eta han **Russell**, **Frege** eta **Moore** ezagutuko ditu.

Lehen Mundu Gerran boluntario gisa sartu zen Austriako armadan. Garai horretan hasiko da bere lan handia idazten, hots, “**Tractatus Logico – philosophicus**”, 1921ean argitaratuko da eta bere lehen garaiko lanik garrantzitsuenak da. 1922 – 1926 bitartean herriko maisu gisa lan egin zuen Austriako mendietako hainbat herritan.

1929an berriz itzuliko da Cambridgera, berriz ere filosofiari ekiteko. Urte batzuk geroago Moore maisua ordezkatu du Cambridgeko Unibertsitatean. Garai horretan idatziko du “**ikerketa filosofikoak**”, bere bigarren garaiko lanik garrantzitsuenaren lehen zatia.

1942an Unibertsitatea utzi zuen boluntario gisa Bigarren Mundu Gerran parte hartzeko, eta erizain-laguntzaile gisa aritu zen Londongo ospitale batean. Gerra amaitu ostean uko egin zion Unibertsitateko katedrari eta bakardadean bizitzen hasiko da. 1949an “**ikerketa filosofikoak**” lanaren bigarren zatia idatziko du, horrela, obra osoa 1949an burutuko da. Cambridgen hilko da 1951ean minbiziak jota.




73. Behekoak zientziaren eta etikaren ezaugarriei buruzko adierazpenak dira, Wittgensteini jarraiki. Esan egia ala gezurra diren:

- a) Etikak gertakariak deskribatzen ditu
- b) Zientzia-judizioak balio-judizioak dira
- c) Zientzia mundukoa da
- d) Etika subjektuarena da

Erantzuna:

- a) Etikak gertakariak deskribatzen ditu. **Gezurra.** Etikak ez ditu gertakariak deskribatzen, baloreak agintzen ditu. Gertakariak, objektiboa dena, zientziari dagozkie, ez etikari.
- b) Zientzia-judizioak balio-judizioak dira. **Gezurra.** Zientzia-judizioak ez dira balio-judizioak, **gertakizun-judizioak** dira. Horien bitartez egiazta daiteke egiak edo faltsuak diren. Adibidea: *Beroak metalak dilatzen ditu.* **Gertakari** bat deskribatzen duen judizio bat da eta egia dela baieztatu dezakegu. Nik honako hau badiot: “Eutanasia ona da” balore-judizio bat ari naiz adierazten eta, beraz, subjektiboa da, hau da, subjektuari dagokio, balorearen egoitza denari. Noski, ezin daiteke baieztatu egia edo gezurra den, gerta bailiteke beste batzuk aurkakoa sinistea: “Eutanasia txarra da”. Ondorioa: Zientzia-Judizioek gertakariak deskribatzen dituzte. Balore-judizioak beste esparru batzuetako osagaiak dira, hala nola, etikakoak, estetikakoak, hau da, mistikoa denaren esparrukoak, hitz egiteko zailak diren esparrutakoak. Eta **Tractatus** lanean aipatzen den moduan...“*zerbaitetaz hitz egin ezin badaiteke, hobe ixiltzea*”.
- c) Zientzia mundukoa da. **Egia.** Proposizio enpiriko edo zientifikoak gertakarietara zuzentzen diren geziak bezalakoak dira. Wittgensteinek *Tractatus* lanean dioen moduan: “*mundua gertakarien osotasuna da*” eta proposizio zientifiko orok deskribatzen du gertakari bat. Erabateko paralelismoa dago euren artean: Isoformismoa. Gertakariak eta gertakari horiek deskribatzen dituzten proposizioek forma (morphé) berbera (Isos) dute.
- d) Etika subjektuarena da. **Egia.** Esan den bezala, etika da balorearen egoitza eta balorea subjektuari dagokio. Etikaren esparrua ez da argumentuekin defendatzen den errealitatea, baizik eta jarrera-adibideak emanez defendatzen dena: “*Etika erakutsi egiten da, ez da demostratzen*”. Wittgensteinek “Etikari buruzko konferentzia” lanean dioen moduan: Etika gizakiaren bizipen sakon bat da, inoiz lotsagarri utzi behar ez dena.



PROBARAKO ADIBIDEA

Sarbide-proba antolatzeko eta ikasgai hau ematen duten irakasleei zenbait autoretan sakontzen laguntzeko aukerak ematearren, proposatutako hamar eduki-blokeak beheko bikote edo binomioetan bildu dira:

BIKOTE A	A AUKERA	B AUKERA
I	1. MULTZOA: FILOSOFIAREN SORRERA: PRESOKRATIKOAK	2. MULTZOA: IDEALISMO PLATONIKOA
II	3. MULTZOA: ERREALISMO ARISTOTELIKOA	4. MULTZOA: KRISTAUTASUNA ETA FILOSOFIA
III	5. MULTZOA: ERDI AROKO FILOSOFIA: AKINOKO S. TOMAS ETA OCKHAMEKO G.	6. MULTZOA: ARRAZIONALISMOA
IV	7. MULTZOA: KANT ETA ILUSTRAZIOA	8. MULTZOA: MARXISMOA
V	9. MULTZOA: NIETZSCHEREN BITALISMOA	10. MULTZOA: EXISTENTZIAREN FILOSOFIA ETA HIZKUNTZAREN FILOSOFIA

- Sarbide-probak **8 galdera** izango ditu, **bost binomio edo bikoteak** osatzen dituzten **hamar multzoetako** ezagutza-adierazleekin lotutakoak.
- **Zortzi galderetatik**, ikasleak, berak nahi dituen **lauak hautatu** beharko ditu.
- Bost bikote egiteak multzo ezberdinak hautatu behar izatea bermatzen du: **A Aukera eta B Aukera**. Horren arabera, 1. MULTZOA: *Filosofiaren sorrera: Presokratikoak* gaiko galdera bat tokatu bada, nahitaez agertuko da azterketan 2. MULTZOA: *Idealismo platonikoa* gaiko beste galdera bat. Galdera 7. MULTZOA: *Kant eta ilustrazioa* gaiarekin lotutakoa bada, azterketan nahitaez agertuko da 8. MULTZOA: *Marxismoa* gaiarekin lotutako beste bat, eta abar.
- A AUKERAKo galderen kopurua (4 guztira) eta B AUKERAKo galderen kopurua berdinak izango dira (beste 4 galdera).

Aurreko guztian oinarrituta, proba-eredu hau proposatzen da:



Zortzi ariketa hauetatik egin lau (Galdera bakoitzak 2'5 puntu balio ditu)

1. Filosofo presokratikoei buruzko ondorengo galderak erantzun.

- a) Esan zein diren ondorengo aforismoen esanahiak:
- "Inork ezin du bi aldiz ur berdinetan bainatu"
 - "Gatazka da guztiaren sorburua"
- Zein filosofok esan zituen?
- Zein da esaldi horien esanahia?
- b) Lotu filosofoak lerroen bidez, gauza guztien sorburutzat adierazi zituzten "":
- | | |
|--------------|---------|
| • Anaximenes | Apeiron |
| • Tales | Airea |
- Anaximandro Ura

2. Sokratesen filosofiari dagokionez,

- a) Esan zein diren metodo sokratikoaren oinarriko zatiak atal funtsezkoenen zerrenda
- b) Esan beheko adierazpen horiek egia ala gezurra diren:

Sokratesek...

- jakintza eta bertutea identifikatzen ditu.
- garrantzi handia ematen dio nahiari bere etikan.
- dio, norberaren ezjakintasuna onartzea jakintsuen berezko jarrera dela.
- egia erlatiboa dela uste dute.

3. Identifikatu Aristotelesek adierazten zituen lau kausak, hots, kausa arazlea, materiala, formala eta xedezkoa, eta eman horietako bakoitzarentzat definizio labur bat:

Fidias eskulturagile handia Apoloren eskultura lantzen edo zizelkatzen ari da marmolezko bloke batean Partenoia apaintzeko.

Azaldu S. Agustinen arrazoimenaren eta fedearen arteko loturak.

4. Azaldu zein den Akinoko Santo Tomasen argumentuek duten egitura Jainkoa existitzen dela egiaztatzeko.

5. Aipatu Descartes biografiaren aldiririk aipagarrienak, kontuan hartuta Erdi Aroko eskolastika zaharren aurrean berau hausteko izan zuen espirtu berritzailea.

6. Erantzun Nietzscheren filosofiari dagozkion beheko galderak:


- a) Esan zein izan ziren eta deskribatu bere filosofian eragin gehien izan zuten korrante filosofikoak.
- b) Esan "jauntxoek moralaren" eta "esklaboek moralaren" artean dauden funtsezko ezberdintasunak eta azaldu zein den "ahulen moralari" egiten dion kritikaren funtsa.



8 Laburtu existentzialismoaren oinarrizko tesiak eta komentatu Sartreren filosofiarenak direnak beheko bi esapide ospetsu hauek zer esan nahi duten:

- a) "Gizakia alferrikako pasio bat da"
- b) "Askatasunera kondenatuta gaude"

ARRAZOITU ETA ARGUDIATU, KASU BAKOITZEAN, HAUTATUTAKO AUKERA.



PROBARAKO ADIBIDEEN ERANTZUNAK

Zortzi ariketa hauetatik egin lau

(Galdera bakoitzak 2'5 puntu balio ditu)

1. Filosofo presokratikoei buruzko ondorengo galderak erantzun.

a) Esan zein diren ondorengo aforismoen esanahiak:

- “Inork ezin du bi aldiz ur berdinetan bainatu”
- “Gatazka da guztiaren sorburua”

- Zein filosofok esan zituen?
- Zein da esaldi horien esanahia?

b) Lotu filosofoak lerroen bidez, gauza guztien sorburutzat adierazi zituzten “arje”ekin:

- | | |
|---------------|---------|
| • Anaximenes | Apeiron |
| • Tales | Airea |
| • Anaximandro | Ura |


Erantzuna:

a) Bi aforismo horiek Heraklitorenak dira, eta esanahi hau dute:

- “**Inork ezin du bi aldiz ur berdinetan bainatu**” esaldiak naturan gertatzen diren etengabeko aldaketak dira, tentsioa eta dinamismoa funtsean. Naturan dena etengabe aldatzen ari da, ibai bateko uren etengabeko jarioaren moduan, behin eta berriz berritzen baita. Ibaiaren korrontea da Heraklitoren filosofiaren ezaugarria: “Panta rei”: Guztia aurrerantz dabil, ezer ez da egonkorra”.
- “**Gatazka da guztiaren sorburua**”: Naturaren etengabeko dinamismo hori azaltzeko, etengabea urka daudenen arteko gatazka hartzen da oinarritzat: hotza/beroa, gaztaroa/zahartzaroa, eguna/gaua. Aurkakoen arteko gatazka honek ematen dio naturari dinamismoa. Aurkakoen arteko gatazka edo antitesia Hegelek bere egingo du metodo dialektikoan. Marx-ek beranduago adieraziko duen moduan, klaseen arteko gatazka da historiaren motorra. Beha daitekeenez, Heraklitoren eragina osoz abala da.

b)

- | | |
|---------------|---------|
| • Anaximenes | Airea |
| • Tales | Ura |
| • Anaximandro | Apeiron |



2. Erantzun ondorengo galderak.

- a) Esan zein diren metodo sokratikoaren oinarritzko zatiak
- b) Esan beheko adierazpen horiek egia ala gezurra diren:

Sokratesek...

- jakintza eta bertutea identifikatzen ditu.
- garrantzi handia ematen dio nahiari bere etikan.
- dio, norberaren ezjakintasuna onartzea jakintsuen berezko jarrera dela.
- egia erlatiboa dela uste dute.

Erantzuna:

- a) Hauek dira metodo sokratikoaren oinarritzko zatiak:

- **Ironia:** Metodoaren zati negatiboa. Norberaren ezjakintasuna onartzean datza: **“Bakarrik dakit ez dakidala ezer”**.
- **Majeutika.** Metodo sokratikoaren zati positiboa. **“Majeutika” hitzak egiaz erditzea, egia izatea esan nahi du.** Sokratesek intelektualtzat zuen bere burua, gainerakoei barruan zuten egia ateratzen laguntzen zien pertsonatzat.
- **Definizioa:** gauzen muinera iristea. Hitez deskubritu den egia formulatzea, “Eidos” edo esentziara iristea, hau da, gauzak benetan diren horretara.

- b) Egia / Gezurra: Sokratesek...


- jakintza eta bertutea identifikatzen ditu. **Egia.** Horretan datza, hain zuzen ere, haren intelektualismo morala. Sokratesi jarraiki, inork ez du ezer txarrik egiten nahita. Norbaitek zerbait txarra egiten baldin badu, ongia zer den ez dakielako da.
- garrantzi handia ematen dio nahiari bere etikan. **Gezurra.** Gehiegizko garrantzia ematen dio ulermenari (intelektualismoari) eta nahia baztertu egiten du.
- dio, norberaren ezjakintasuna onartzea jakintsuen berezko jarrera dela. **Egia.** Ikusi berri dugun moduan, horretantxe datza ironiak.
- Egia erlatiboa dela uste du **Gezurra.** Baieztapen hau sofistena da, ez Sokratesena.

3. Identifikatu lau kausak, hots, kausa arazlea, materiala, formala eta xedezkoa, eta eman horietako bakoitzarentzat definizio labur bat:

Fidias eskulturagile handia Apoloren eskultura lantzen edo zizelkatzen ari da marmolezko bloke batean Partenoia apaintzeko.

Erantzuna:

- **Fidias** litzateke **kausa arazlea**, egilea, eskultura zizelkatzen duena, obraren artista edo ekoizlea.
- **Marmolezko blokea:** Gauzen osagai den kausa material edo materia litzateke: marmola, egurra, harria, brontzea...
- **Apolo:** Kausa **formala** da, estatuaren forma, kasu honetan Apoloren forma. Fidias lantzen ari den ideia edo eredua da. Gauza bat formaren arabera definitzen da.
- **Partenoia apaintzea: Xedezko kausa** litzateke. Fidiasek bere ekintzarekin bilatzen duen helburua da, xedea, eskultura zizelkatzeko duen zergatia.



Aristotelek zerbaiten jatorria den abiapuntuari deitzen dio kausa. Existitzen den guztia azaltzeko, zerrendatu berri ditugun lau kausa horietara jo beharra dago. Izaki bat osatzen duten funtsezko eta oinarritzko kausak kausa materiala eta formala dira. Hortik dator izakiaren funtsari buruzko bere teoriaren izena: **Hilemorfismoa**. “*Hyle*” = **Materia**. *Morphé* = **Forma**.

4. Azaldu S. Agustinen arrazoimenaren eta fedearen arteko loturak.

Erantzuna:

Ez dago fedearen eta arrazoimenaren artean alde nabarmenik: biek bilatzen dute egia, etab eraz, ezin da fedearen eta arrazoimenaren arteko bereizketa zehatzik egin. Fedea da, noski, gidaririk fidagarriena: Jainkoak adierazitakoak sinistu behar dira ulertzera iritsi ahal izateko. Baina arrazoimena ere fedearena urretik joan daiteke, ez Jainkoak adierazitako egiak egiaztatzeke, sinistea arrazoizko adela egiaztatzeke baizik. Arrazoimenaren eta fedearen arteko elkarlan hau biltzen du formula ezagun honek: “**Sinistu ulertzeko, ulertu sinisteko**”. Fedea eta arrazoimena ez dira elkarren aurkakoak, eta fedea ez da itxia: fedearen inteligentzia bilatzen du.

Hiponako Agustinen barne-ezaugarri garrantzitsuena uneoro adierazten duen kristautu-izaera da: fedearen bidez azalduko da guztia; inolako justifikaziorik behar ez duen fedea da arrazoimenaren oinarri naturala. Arrazoimena ahula da, bekatuaren eraginez. Horregatik, “**Credo ut intelligam**” leloa aldarrikatu zuen, “sinistu ulertzeko”, eta Erdi Aroko ondorengo filosofoengan eragina izan zuen. Dena den, arrazoimeneko ulermena fedean oinarritzeak fedearen beraren funtsezko hainbat alderdi arrazoimenez ulertu beharra dakar berarekin. Horrela, “sinistu ulertzeko” horrek historikoki “ulertzen dut sinesteko” leloa eramango gaitu, dagoeneko garatuta dagoen Eskolastikarekin bat datorren lelo horretara.


5. Azaldu zein den Akinoko Santo Tomasen argumentuek duten egitura Jainkoa existitzen dela egiaztatzeke.

Erantzuna:

Hona hemen arrazoibide tomistek aurkezten duten oinarritzko egitura Jainkoaren existentzia frogatzeko:

- **Abiapuntua esperientziaren gertakaria bat edo datu enpirikoa da:** mugimenduaren existentzia.
- **Kausalitate-printzipioa aplikatzen da:** Ondorio orok du zergati bat. Mugimendu orok izan behar du kausa bat. Mugitzen den guztia beste batek mugitua da.
- Aristotelaren teoriari jarraiki, **prozesu infinitu bat ezinezkoa dela onartzen da.** Motoreen segida infinitua ezinezkoa da.
- **Datu enpirikoa behatzearen ondorioz iristen gara Jainkoarengana:** Mugitua izan gabe gainerakoak mugitzen dituen izakiarengana iritsi behar dugu. Horrela bada, **Jainkoa lehen motore mugigaitz gisa** existitzen dela frogatzen dugu.

Egitura hori bera aplikatzen da Akinoko Santo Tomasen beste lau bideetan: **kausa lehenaren argumentuan, kontingentziaren argumentuan, perfekzio-mailen argumentuan eta mundu-ordenarenean.**



6. Aipatu Descartesen biografiaren aldiririk aipagarrienak, kontuan hartuta Erdi Aroko eskolastika zaharraren aurrean beratu hausteko izan zuen espirtu berritzailea.

Erantzuna:

Descartes, filosofia modernoaren aita eta arrazionalismoaren aitzindaria, 1596an jaio zen Turenan, familia noble eta aberats batean; horrek ikasketen bidea hartzea ahalbidetuko dio. Abizena **des Cartes** zuen, horregatik esaten da filosofia cartesiarra. Flècheke jesuiten eskolan ikasi zuen. Filosofia eskolastiko eta aristotelikoaren prestakuntza jasoko du, eta horrela sumatuko du bere garaian nagusi den funtsik eza eta zalantza. Izan ere, garai hartan nagusi ziren segurtasunik eza eta Erdi Aroko segurtasun handien gainbehera. Horrenbestez, esparru guztietara zabalduko du zalantza, oinarri sendo eta ziur bat aurkitu ahal izateko. Nabaria eta zehatza den metodoa, matematika kasu. 1618an **hogeita hamar urtetako gerra** hasiko da katolikoaren eta protestanteen artean. Armadan sartu eta bertan parte hartuko du Descartesek. 1619an jakintza guztiari sendotasuna emango dion metodo unibertsal bat bilatzeko beharra sentituko du, eta orduan hasiko zaio filosofiarako bokazioa. *"Bizitzaren liburu handitik ikasteko"*, ibilbide militarra bertan behera utzi eta bidaiatzeari ekiten dio.

1629an Holandara joango da. 1637an bere lan handia aterako da, **"Metodoaren diskurtsoa"**. 1649an onartu egin zuen, ez oso gogo onez, Suediako Kristina erreginak haren gortera joateko egindako gonbidapena, 1646tik Descartesen filosofian interesaturik baitzegoen hura. Descartes 1650eko otsailaren 11ean hil zen. Filosofo eta matematikari handi honek alderik alde zabalduko ditu modernotasunaren ateak.

- XVII. mendean unibertsitateak ez ziren, dagoeneko, ezagutzaren abangoardia, baizik eta zalantzan jarritako jakintza zaharren museoak, horrela, oraindik ere segurtasunera jotzen zen irakaskuntzan, hala nola, geozentrismoa, aristotelismoa eta tomismoa. Descartesek larrutik biziko du jakintza zurrun horiek sortutako desengainua, eta Erdi Aroko zama astunarekin hautsi eta filosofian hastea erabakitzen du, modernotasunaren bide berrietatik barna. Espiritu berri horren ezaugarri garbi eta adierazgarria da, latinaren eskusibotasuna alde batera utzi eta frantsesez idazten hasten dela. **Pentsamendu modernoaren heroia** da, subjektibotasunaren bidea hasten duelako. Filosofiarren abiapuntua subjektua bera izango da: "Nik sinisten dut" izango da bere sistemaren ardatza. Gainera, **dama greziarra**, hau da, arrazoiak, **Erdi Aroko zaldunetik** (fedetik) **askatu zuen**. Une horretatik aurrera arrazoiak fedearen zerbitzari umil izateari utziko dio eta bere bideari ekingo dio autonomiaz eta buruaski izanez. Fedea zokoratuta gelditu zen arrazoiaren botere menderatzailearen aurrean. D'Alamberten iritziz: *"Descartes buru argiei eskolastikaren kateak, agintarien iritziarenak, nola hautsi erakustea ausartu zen"*


7. Erantzun Nietzscheren filosofiari dagozkion beheko galderak:

- a) Esan zein izan ziren eta deskribatu bere filosofian eragin gehien izan zuten korronte filosofikoak.
- b) Esan "jauntxoaren moralaren" eta "esklabuen moralaren" artean dauden funtsezko ezberdintasunak eta azaldu "ahulen moralari" egiten dion kritikaren funtsa.

Erantzuna:

- a) Esan zein izan ziren eta deskribatu bere filosofian eragin gehien izan zuten korronte filosofikoak.

Honako hauek lirakeke, besteak beste, eragin handien izan zuten korronteak:




- **Comteren positibismoa:** Autore honen arabera, gizateriak, aurrerapenaren bide iraunkorrean, hainbat aldi pasatzen ditu: Garai teologikoa garai mitiko edo erlijioso da, gizakiak jainkoengana jotzen du gauzak azaltzeko. Bigarren garaian edo **garai metafisikoan**, arrazoiak betetzen du irudimenaren tokia eta filosofiak erlijioa ordezkatzeko. Arrazoiak erabat txundituta, erlijioa desagertu egiten da. Hirugarren garaian, **garai positibo edo zientifikoan**, zientziak filosofiarekin amaitzen du. Gertakariak eta esperientziak metafisika eta ideiekin amaitzen dute. Azkeneko, zientziak erlijioa nahiz filosofia irensten ditu. Hau da, erlijioa espaziorik gabe gelditu da, zokoratuta. Comteren positibismoak egiaztatzen du ez dagoela Jainkoarentzat tokirik kultura modernoan. Nietzscheren heriotzaren teoria norabide horretan bertan doa.
- **Eboluzionismoa:** Darwinen ideiek eragin handia izango dute Nietzscherengan: “indartsuen moralak”, “botere-nahia” eta “supergizakia” teoriak eboluzio-prozesuaren beraren legeak onartzea dakar eta onartzea eboluzioa ez dela amaitu. Tximutik gizakia sortu baldin bazen, zergatik ezin daiteke gizakitik supergizakia sortu?, galdetuko du Nietzschek.
- **Schopenhauerren boluntarismoa:** Esan daiteke Schopenhauer dela bitalismoaren aitzindaria: Bizitzeko nahia da errealitate orotan dagoen absolutua. Bizitza etengabeko borroka da. Schopenhauerrek baldintzatu zuen erabat Nietzscheren botere-nahia.

b) Esan “jauntxoaren moralaren” eta “esklabuen moralaren” artean dauden funtsezko ezberdintasunak eta azaldu “ahularen moralari” egiten dion kritikaren funtsa.

Moral tradizionala (sokratikoa, platonikoa eta kristaua) antinaturala da, hau da, natuaren eta bizitzaren aurka doa. Legeei eta dekalogoei dagokienez, bizitzaren eta senaren kontra doan moralak da. Orain arte irakatsitako moralak da. Grabitate-zentroa “beste bizitza” horretan dago, hau da, ideien munduan edo zeruan. Beste mundu bat asmatzen da gurea mespretxatzeko; era berean, gorputza asmatzen da arima mespretxatzeko. Ahuleziaren eta dekadentziaren moralak da, ahularen baloreak indartsuen baloreen aurretik jartzen dituenak. Nietzschek, beraz, bi moral mota bereizten ditu:

- a) **Esklabuen moralak:** Moral ebanjelikoa da, ezintasunaren eta ahuleziaren moralak. Kaskarkeriaren moralak da, bizitzaren kontrako mendeku-senez eraikitako moralak. Moral horretan, ona pobrea dena da, behartsua dena, umila, gaixoa... ahularen moralak da.
- b) **Jauntxoaren moralak.** Nietzschek esklabuen moralaren aurrean ematen duen alternatiba da. Zaldunaren moralak da, bizitza, handitasuna, boterea maitatzen dituenaren moralak. Moral noblea da, bizitzari baietz esaten dioten indartsuenen moralak. Supergizakiaren moralak da.

Nietzscheren arabera, egondako lehen moralak jauntxoaren moralak izan zen, indarra eta independentzia goren dituenak. Baina esklabuen iraultza egon zen, judutarren eta kristauen eskutik, eta balore moralak bihurtu egin ziren. Antzinako zapalduak pilatutako erreminak sortzaile izatera pasa zen eta ahulak goren zituen baloreak sortu zituen: obedientzia, otzantasuna, esanekoa izatea... “artaldearenak diren baloreak”. Nietzscheren ustetan, judutarrek izutzeko moduko logika erabili zuten, eta balore aristokratikoak, hau da, indartsuen edo jauntxoaren moralak bihurtu egin zuten. Kristautasunak ere bihurtu hori hartu zuen bere gain. Nietzschek “taula zaharrak hausteaz” hitz egiten duenean balore ahul horietaz ari da, esklabuen moralak, gaitundia eta suntsitu beharreko jauntxoaren moralak ezartzeko, hau da, supergizakiaren moralak.



8. Laburtu existentzialismoaren oinarriko tesiak eta komentatu Sartreren filosofiarenak direnak beheko bi esapide ospetsu hauek zer esan nahi duten:

- a) "Gizakia alferrikako pasio bat da":
- b) "Askatasunera kondenatuta gaude"

Erantzuna:


Labur-labur, hauek dira existentzialismoaren oinarriko tesi edo baieztapenak:

- a) **Esentzia existentziaren aurretik dago. Sartre eta Heidegger-en arabera**, existentzia esentziaren aurretik dago. Gizakia izatez, bada, existitu egiten da, gizakiaren esentziak ez baitu askatasunik: "gizakia nahi duena izango da". Gizakia eta existentzia sinonimoak dira. Gizakiak mundu honetara jaurtikia izan dela uste du. Horizontean errealitate bat dago: Jaiotza aurretiko ezereza eta heriotza osteko ezereza. Bizitza, Azken batean, Bi ezerezen artean preso dagoen garaia da, eta garai horretan burutu behar da gizakia, erabakiak hartu behar ditu, existitu egin behar da. **Camusek** Sisiforen mitoa erabili zuen existentziaren zentzurik eza adierazteko. Gizakiaren patua sufrimenduaren harri handia zama gisa hartzea da, zentzurik eta Jainkorik gabeko munduan. Zentzugabekeriaren bizipen horrek larritasuna sorrarazten du, ikara askatasunaren aurrean, goragalea.
- b) **Norbanakoaren berezitasunak du garrantzia, ez ideia abstraktuek**. Gizon zehatza da garrantzitsua, Unamunok aipatzen zuen "**hezur eta haragizko gizona**". Existentzialismoak subjektibotasunerako itzulera adierazten du eta bizitzatik urrunduta eta bereizita, esentzien erreinu zaharrean dauden ideia abstraktu zaharrak uztea, hots, giza bizipenatarako hurbilketa bat.

Komentatu Sartreren filosofiaren beheko bi esapide ospetsu hauek zer esan nahi duten:

- a) "Gizakia alferrikako pasio bat da"
- b) "Askatasunera kondenatuta gaude"

- a) "**Gizakia alferrikako pasio bat da**". Kontzientzia edo "nor bere baitarako izatea" ez da ezer, hutsa da, izateko grina, asebetetzeko gainerako gauzak behar dituena. Kontzientziak nahitako izaera du: xedera bideratzen da. Kontzientziak gainerako gauza guztiak bezalakoa izan nahi du, baina alferrikako nahia da, porrotera kondenatuta dago. Horregatik da gizona alferrikako pasioa, asegabetutako desioa, bukatu gabeko proiektua. Gizakia alferrikako pasioa denez, zentzugabea, askatasun osokoa, ezinezko saiakera denez, nazka sentitzen du bere existentziagatik, goragalea. Zentzurik ez duela sentitzen du, "soberan" dago, eta bere autosorkuntzaren edo askatasunaren zama eramatera kondenatua.
- b) "**Askatasunera kondenatuta gaude**": Existentzia, funtsean, hautaketa da. Hautaketa askatasunaren ondorio bat da, gizona errotik askea den izaki bat da. Sartrek dioen moduan, "**askatasunera kondenatuak, kateatuak**" gaude eta ezin dezakegu aske izateari utzi. Askatasunaren bitartez hautatzen dugu gure bizitza. Existentziak hautatzera behartzen gaitu, zer izan nahi dugun hautatzera: "**...Hautatzeari uko egitea da, hautatzea ez hautatzea... (...)...ez gara aske izateari uzteko aske**" (J. P. Sartre: *Izakia eta ezereza*)



**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO
ELKARREKIKOTASUNAK**

Galdera	Ezagutza-adierazlea
1	1.3, 1.5.
2	2.3., 2.4.
3	3.6.,3.5.
4	4.4.,4.5.
5	5.5., 5.4.,5.3.
6	6.3.
7	9.1.,9.4.
8	10.4.,10.3



PROGRAMAZIOA ETA IKASKETARAKO BALIABIDEAK

• PROGRAMAZIOA

Modulu honek hamar eduki-multzo ditu, filosofiaren historian egondako garai nagusien arabera antolatuak. Helburua egile eta korronte aipagarrienak eta gure pentsaeraren osaeran eragin gehien izan dutenak biltzea da. Filosofiaren historiak agerian uzten du sistemak behin-behinekoak eta ahulak direla. Ideiak, Heraklitoren ibaiko ur-emariarekin gertatzen den bezala, badoaz etengabe, behin eta berriz berritzen dira. “Egiez edo akatsez” haraindi, filosofiaren historia etengabeko bilaketa da. Garrantzitsuak ez dira egindako galderak, baizik eta nor bere buruari galdetzeko, itauntzeko dagoen beharra. “*Galdera bakar batek mila erantzunek baino bolbora gehiago izan dezake*”, dio Jostein Gaarder egileak. Eduki-multzoen helburua, apika, utopikoa den erronka da: helburua ez da soilik filosofian sartzea, baizik eta filosofiaren bitartez erakartzea, interesgarri eta, ahal den neurrian, atsegingarri eginez.

Hamar multzoen helburua da, halaber, pentsamenduaren historiaren eta gure gaurkotasunaren artean dagoen erlazioa nabarmentzea, pentsalari handien hausnarketa gure eguneroko arazoetara gerturatzea, kritikoki arrazoitzen laguntzea, adimen irekia eta tolerantzia sustatzea, errealitate orok dituen aurpegi anitzak onartzea, argumentuen boterea balioestea eta bilaketa pertsonala sustatzea.

Eduki-multzoen atzean honako ideia eta helburu hauek daude:

- Filosofia bere testuinguru kulturean kokatzea. Multzoen edukiari erreparatuz gero, ikus daiteke egilea edo egileak aztertzen hasi baino lehen, garaian murgiltzen dela. Horrela bada, sarrera historiko-kultural bat egiten da, izan ere, ideiak euren garaiko testuinguru historiko-kultural zehatzetik erauztea, ideia horiek desnaturalizatzea edo faltsutzea litzateke. Ideiak ez dira denborarik eta historiarik gabeko entitate sinpleak, euren garaian jaiotako alabak dira, eta erabat errotuta daude garatu ziren garai zehatzean.
- Hautatutako egileak garai hartako korronte nagusietan kokatzea, egileak ez baitziren “pentsamenduaren robinsonak” izan. Horregatik jarri zaio arreta berezia eduki-multzo bakoitzeko filosofoengan eragindako egile eta korronteak aztertzeari. Pertsona bakoitzaren pentsamendua gainerako guztien pentsamenduez dago inguratuta eta ezin banandu daiteke testuinguru horretatik.
- Filosofoen eta korronte ideologikoen pentsamendua zehatz-mehatz azaltzetik aldentzea, baizik eta alderantziz, laburpen koherente eta sistematiko bat lantzea, eta sorkuntza filosofikoaren berezko zentzua iluntzen edo nahasten duen interpretazio subjektibo oro ezabatzea. Horrela bada, hautatutako filosofo bakoitzari berezkoak zaizkion terminologia eta hizkuntza ahalik eta gehien errespetatzen saiatu gara.
- Filosofiaren ikasketa ez dadila soilik historikoa izan: inork ez luke soilik filosofia ikasi beharko, aldi berean filosofatzen ere ikasi beharko litzateke. Filosofia ez da inoiz amaitzen, galdera filosofiko handiak beti geldituko baitira zabalik.

Programazio hau goiko ideia horien arabera egituratuko da. Horrela bada, ikuspuntu horretatik ulertu behar dira hautatutako edukiak eta euren ezagutza-adierazleak.

Eduki-multzoak	Ikasketa Unitatea	IZENDAPENA	Ordu kopurua
1.	IU 1	Filosofiaren sorrera: Presokratikoak	8 ordu
2.	IU 2	Idealismo platonikoa	10 ordu
3.	IU 3	Errealismo aristotelikoa	10 ordu
4.	IU 4	Kristautasuna eta filosofia	9 ordu
5.	IU 5	Erdi Aroa	10 ordu
6.	IU 6	Arrazionalismoa	9 ordu
7.	IU 7	Kant eta ilustrazioa	10 ordu
8.	IU 8	Marxismoa	8 ordu



9.	IU 9	Nietzscheren bitalismoa	8 ordu
10.	IU 10	Existenziaren filosofia eta hizkuntzaren filosofia.	8 ordu

1. Ikasketa Unitatea: FILOSOFIAREN SORRERA: FILOSOFO PRESOKRATIKOAK (8 ordu)

Ikasketa unitate honek filosofia sortu zen testuingurua aztertzen du, eta filosofiaren lehen galderak identifikatzen ditu. Era berean, lehen erantzun mitikoen osagai ziren elementuetan sakontzen du, eta erantzun horiek azalpen arrazional edo logikoekin duten aldea aipatzen da. Filosofiaren sorrerak mitotik logoserako jauzia ekarri zuen. Ideia hori da unitate honetako bizkarrezurra. Era berean, pentsalari presokratiko nagusiak zein izan ziren aztertzen da, eta zein ziren euren pentsamenduaren oinarriko ezaugarriak, betiere gaiari berezkoak zaizkion hiztegi edo terminologia filosofikoak ulertu eta erabiliz: **Arje, Fisis...**

2. Ikasketa Unitatea: IDEALISMO PLATONIKOA (10 ordu)

Ikasketa-unitate honek, lehenik eta behin, hainbat egoera historiko, sozial eta politikoek izandako eragina aztertzen du, hala nola, Peloponesoko Gerrak, Hogeita Hamar Tiranoen Gobernuak, Sokratesen heriotzak eta abarrek Platonen filosofian izan zuten eragina aztertzen da. Era berean, testuingurua aztertzen du, eta sofisten eta Sokratesen ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Platonen filosofia norgehiagoka edo eztabaida horren inguruan kokatzen da, hain zuzen ere: Sokrates sofisten aurrean. Pentsamendu platonikora haitzuloaren mitotik abiatuta hurbildu gaitzke. Aipatu mitoa Errepublikan lanaren VII. liburuan dago; bertako sinboloak, mitotik eratorritzen diren ondorioak, elkargurutzatzen diren alderdi politiko, filosofiko eta hezkuntzazkoak interpretatu eta Platonen pentsamenduaren oinarriko eta funtsezko puntuak ezagutu ahal izango ditugu.

Platonen Errepublikan lanaren VII. liburutik hainbat pasarte erraz hartzea gomendatzen da, bitarteko eraginkorra baita testu filosofiko baten iruzkina egiteko moduarekin ohitzeko.

3. Ikasketa Unitatea: ERREALISMO ARISTOTELIKOA (10 ordu)

Unitate honetan Aristotelaren pentsamendu konplexua sistema zientifiko filosofiko bat osatzen duen osotasun gisa deskribatzen da. Hasteko, hurbilketa bat egiten da testuinguru historikora. Mazedonia eta Atenas, etengabeko gatazkan dauden bi munduek baldintzatzen dute haren biografia. Unitatean zehar bere pentsamenduan funtsezkoak eta oinarrikoak diren alderdiak aztertzen dira: logika, silogismoa eta bere egitura, sistema aristotelikoaren oinarriko binomioak: materia - forma, ekintza - ahalmena. Aristotelek fisikan ezberdintzen dituen lau kausak ere aztertzen dira. Era berean, idealismo platonikoa eta errealismo aristotelikoa alderatzen dira eta azpimarratu egiten da, batez ere, Aristotelek Platonen ideien teoriari egiten dion kritika. Unitatea amaitzeko, Platonen etikaren ezaugarriak garrantzitsu eta berezkoenak nahiz politikari egindako ekarpen nabarmenenak aztertzen dira.

4. Ikasketa Unitatea: KRISTAUTASUNA ETA FILOSOFIA (9 ordu)

Unitate honetan Inperio Erromatarra eta inperio horrek mendebaldeko pentsamenduan izan zuen eragina aztertzen dira. Inperioaren gainbeherak eta erorketak izandako eragina ere biltzen da eta pentsamendu kristauak egindako ekarpen aipagarrienak deskubritzen dira. Kristautasunaren eta filosofiaren arteko talkak, arrazoiaren eta fedearen arteko kolpeak zehazten du garai honetako egoera kulturala. Testuinguru politiko-kultural horretan kokatzen da San Agustinen irudia. Bere biografiak kristautasunera bihurtu arte egindako bidea erakusten digu, eta arrazoiaren eta fedearen arteko borroka hori biltzen da. Arrazoia ukatu eta soilik fedearen alde egiteko jarreratik urrun, San Agustinek bien arteko jarrera bat hartzen du: "*Sinistu uler dezazun, ulertu sinis dezazun*". Azkenik, haren filosofiaren oinarriko kontzeptuak ere azaltzen ditu unitate honek: egiaren barne-bilaketa, bere antropologia, dualismo platonikoz betea, batez ere askatasunari eta gaizkiaren existentziari erreferentzia eginez. Amaitzeko,



historiari buruz duen filosofia bitxia ikusiko da, eta bi hirien ezaugarriak eta euren arteko ezberdintasunak aztertuko dira: Erroma, gizakien hiria, eta Jerusalem, Jainkoaren hiria.

5. Ikasketa Unitatea: ERDI AROA (10 ordu)

Unitate honek Erdi Aroko pentsamenduan murgiltzen gaitu, Inperio Erromatarra erori ostean sortutako milurteko kulturantz horretan. Judutarrek, arabiarrek eta kristauak kultur aniztasun hori ikusten lagunduko digute. Filosofia eskolastikoa nola sendotzen den aztertuko da, eta korrante horrek pentsamendu kristauan dituen oinarriko ezaugarriak azaltzen dira. Eskolastikaren gorakada XIII. mendean gertatu zen, Akinoko Santo Tomasek burututako lan ikaragarriari esker. Azken horren pentsamenduaren alderdirik esanguratsuenak azpimarratuko dira: arrazoien eta fedearen arteko harremanak edo Jainkoaren existentzia egiaztatzeko bide edo arrazoiketa ospetsuak. Era berean, Aristotelek, bestelako filosofo arabiarrekin batera Akinoko S. Tomasengan izan zuen eragina aztertuko da. Amaitzeko, XIV. mendeko krisia eragin zuten faktoreak aztertzen dira, baita faktore horiek esparru ezberdinetan izan zuten eragina ere. Garai honetako pertsonaia adierazgarri gisa Ockham-eko Guillermo dugu; pertsona honi buruz, mende honetako arazo eta nondik norakoak hobekien islatzen dituzten alderdi biografiko eta filosofikoak aipatuko dira.

6. Ikasketa Unitatea: ARRAZIONALISMOA (9 ordu)

Descartes bitartez, unitate honek filosofia modernoak ekarritako berrikuntzak erakusten ditu. Filosofiaren eta matematikaren jeinu honek espiritu berritzaile eta hauskorra dakarkigu, Erdi Aroko eskolastika zaharrari aurre egiteko. Aristoteleren eskutik, arrazoia fedetik askatu eta gidari jartzen da. XVII. mendeko testuinguru historiko, politiko eta kulturala ezagutzeak bere filosofia hobeto ulertzen lagunduko digu. Obsesiboki metodo finko eta ziur bat bilatzen duen filosofia da, zalantzatik atera eta ziurtasunera bideratuko gaituena. Irtenbidea matematikaren segurtasunean, argitasunean eta zehaztasunean bilatu zuelakoan zegoen. Ondorioz, unitatearen oinarriko zati baten helburua metodoaren zati ezberdinak zein diren adieraztea eta azaltzea da, eta abiapuntu gisa, berariazko aipamena egiten zaio zalantza metodikoari. Zalantza horrek erakutsiko digu zein den Aristoteleren filosofiaren oinarria: "Pentsatzen dut, beraz, banaiz". Printzipio horri jarraiki, sistema cartesiarrak berak garamatza errealitatearen hiru esparru handitara edo hiru substantzietara: Ni (edo substantzia pentsatzailea), Jainkoa (edo substantzia infinitua) eta mundua (edo substantzia luzea). Unitate honekin bukatzeko, dualismo antropologiko cartesiarra nahiz dualismo horrek askatasunaz egiten duen defentsa ikusiko da eta, horri kontrajarrita, mekanismo determinista. Unitate honen helburua da frogatzea Aristoteleren filosofian elementu guztiak hertsiki lotuak daudela.

7. Ikasketa Unitatea: KANT ETA ILUSTRAZIOA (10 ordu)

Unitate honen helburuetariko bat ilustrazioaren ikuspegi orokor bat lortzea da eta identifikatzea garai honetan giza arrazoimenean eta garapenean zuten ustea. XVIII. mendeko ezaugarri horiek Kanten filosofiari testuinguru bat emateko balio dute. Era berean, Kantengan eragiten duten korrante filosofikoak edo egileak azalduko dira, eta bere ekoizpen filosofikoan zer nolako eragina izan zuten azalduko da. Horren haritik, Kanten filosofia aurreko korrante filosofikoak gainditzen dituela uste da (arrazionalismoa eta enpirismoa). Horrela, Arrazoimen Hutsaren Kritikara iritsiko gara, eta lan hori osatzen duten oinarriko zatien azterketa sakona egingo da. Unitate osoan zehar ezinbestekoa da lan horretako terminologia ulertu eta zehaztea, Kanten planteamendu filosofikoek duten alderdi berritzailea hobeto ulertu ahal izateko. Unitatearen amaieran Arrazoimen Hutsaren Kritikaren ezaugarri orokor eta garrantzitsuenak ikusiko dira, eta horrek bere sistema etikoa ezagutzen lagunduko digu: kritika etika materialei, etika formalaren ezaugarriak eta Arrazoimen Praktikoaren postulatuak. Königsberg-en jaiotako pentsalari handi honen uste sakon bat da nagusi unitate osoan: giza duintasunaren onarpena eta edozein pertsonak xede gisa, eta ez bitarteko gisa, tratatua izateko duen eskubide besterenezina.



8. Ikasketa Unitatea: MARXISMOA (8 ordu)

Unitatea hasteko, Industria Iraultzaren ezaugarri eta ondorio orokorrak azaltzen dira labur-labur eta horiek pentsamendu marxistan izan zuten eragina aztertzen da. XIX. mendeko testuinguru soziopolitikorako hurbilketa bat egiten da. Marxismoaren korrante edo "iturri" nagusiak ere aztertzen dira: ezker hegeliarra, sozialismo utopikoa, anarkismoa eta liberalismo ekonomikoa. Ondoren, unitatean zehar gaiari berezkoak zaizkion kontzeptu eta terminologia aztertzen dira, hala nola, alienatze kontzeptua eta alienatze-motak (alienatze erlijiosoa, alienatze politikoa, alienatze ekonomikoa). Unitatea amaitzeko, materialismo historikoaren funtsezko ezaugarriak zein diren ikusi eta aztertuko dira, eta azpiegitura eta gainegitura bezalako kontzeptuak definitu eta bereiziko dira. Beraz, marxismoan ezinbestekoak diren hainbat ideia ezagutzea da kontua.

9. Ikasketa Unitatea: NIETZSCHEREN BITALISMOA (8 ordu)

Unitate honen hasieran XIX. mendean korrante filosofikoen aldetik zegoen pluraltasuna aipatzen da eta bereziki azpimarratuko dira Nietzschek eragin gehien izan zutenak. Era berean, Nietzschek biografiaren datu aipagarriak emango dira eta haren obraren garai ezberdinak aztertuko dira. Ondoren bere filosofiararen funtsezko alderdiak identifikatu, definitu eta azalduko dira: bitalismoaren ezaugarriak, "Dionisio" eta "Apolo" sinboloen esanahia interpretatuz, Europako kulturari egiten dion kritika hiru esparruei dagokienez: moralak, erlijioa eta filosofia. Ildo horretatik, adierazpen honen esanahian sakonduko da: "Jainkoaren heriotza"; esapide horren ondorioak aztertu eta Europako kulturaren bilakaeran utzi dituen arrastoei jarraituko zaie. Unitatea amaitzeko, Nietzschek pentsamenduaren giltzarri diren elementuak definitu eta aztertuko dira, hala nola, nihilismoa, botere-nahia, supergizakia eta etengabeko itzulera. Nietzschek proposatzen zigun baloreen aldaketak, alegia, taula zaharrak haustea berriak sortzeko, horrek "jauntxoaren moralak" aztertzea eramango gaitu, hori baita proposatzen duen moralak moral kristau-platonikoaren aurrean, hots, "esklabuen moralak" deitzen dion horren aurrean; bi moralen arteko norgehiagoka horren bitartez laburtzen da Nietzschek ahulak moralari egiten dion kritika. Horrela bada, bi moral horien arteko bereizketa da Nietzschek filosofiararen ardatza eta unitate honen beraren laburpena.

10. Ikasketa Unitatea: EXISTENTZIAREN FILOSOFIA ETA HIZKUNTZAREN FILOSOFIA (8 ordu)

Unitate honen hasieran XX. mendeko testuinguru historikoa aztertzen da, eta bereziki mendean erdian jazotako gertakari biolentoak azpimarratuko dira, hots, bi mundu gerrak eta totalitarismoen gorakada, ikuspegi filosofikoa ezkortasunez bete zuten gertakariak izan baitziren. Gertakari horien itzalean existentzialismoaren oinarriko tesiak sortu ziren eta honelako adierazpenak sortu ziren: larritasuna, absurdoa, zentzugabea. Existentzialismoaren barnean ezinbesteko pertsonaia den neurrian, Sartrearen biografia eta pentsamendua aztertzen dira, eta bere lanen pasarte laburrak komentatuko dira (saiakeretatik, eleberrietatik edo antzerkitik hartuak). Jarraian, XX. mendeko beste korrante handietako bat ikasiko da: Mugimendu analitikoak. Hizkuntzarekiko interesa ezaugarri komuna da, atomismo logikoan, neopositibismoan edo filosofia analitikoan. Wittgenstein da, zalantzarik gabe, gai hori guztia hobekien laburtzen duen egilea. Bukatzeko, beraz, Wittgensteinen biografia laburtuko da eta "Tractatus" bere lanaren alderdirik aipagarriak aztertu eta komentatuko dira.



Ikasketa Unitateen eta ezagutza-adierazleen arteko elkarrekotasunak

Adierazi berri ditugun IU bakoitzerako ariketak ezagutza-adierazlearen arabera izango dira, eta horien arteko lotura beheko taulan adierazitakoa da:

Ikasketa Unitatea	IZENDAPENA	Ezagutza adierazleak
IU 1	Filosofiaren sorrera: Presokratikoak	1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 1.5, 1.6, 1.7
IU 2	Idealismo platonikoa	2.1, 2.2, 2.3, 2.4, 2.5, 2.6, 2.7, 2.8
IU 3	Errealismo aristotelikoa	3.1, 3.2, 3.3, 3.4, 3.5, 3.6, 3.7, 3.8, 3.9
IU 4	Kristautasuna eta filosofia	4.1, 4.2, 4.3, 4.4, 4.5, 4.6, 4.7
IU 5	Erdi Aroa	5.1, 5.2, 5.3, 5.4, 5.5, 5.6, 5.7, 5.8, 5.9
IU 6	Arrazionalismoa	6.1, 6.2, 6.3, 6.4, 6.5, 6.6, 6.7
IU 7	Kant eta ilustrazioa	7.1, 7.2, 7.3, 7.4, 7.5, 7.6, 7.7
IU 8	Marxismoa	8.1, 8.2, 8.3, 8.4, 8.5
IU 9	Nietzscheren bitalismoa	9.1, 9.2, 9.3, 9.4, 9.5, 9.6, 9.7, 9.8, 9.9
IU 10	Existenziaren filosofia eta hizkuntzaren filosofia.	10.1, 10.2, 10.3, 10.4, 10.5, 10.6, 10.7

Metodologia

Filosofiaren Historiaren ikasketa-unitateek metodologia aktibo bati jarraitzen diote. Proposatutako edukien, ezagutza-adierazleen eta ariketen helburua da, *“filosofia ikastea eta filosofatzen ikastea”*. Bi helburuak batera erdietsi behar dira, ezin banatu daitezke, izan ere, ez da bat ere erdietsiko bestea alde batera uzten bada edo garrantzia kentzen bazaio. Teoria eta praktika uztartu behar dira, eduki kontzeptualak eta prozedurazkoak, eta hori lortzeko, funtsean aktiboa den irakaskuntza-ikaskuntza prozesua sustatu behar da. Filosofia, funtsean, jarduera bat da. Horrela bada, curriculumak lanerako nolabaiteko gidari izan behar du eta ez teoria jakin batzuk emateko edo jarrerak moralizatzeko aitzakia. Kontua ez da dagoeneko landutako “pentsamenduak” ematea, baizik eta, funtsean, “pentsatzen erakustea”. Galderak nagusitu behar dira baieztapenen gainetik. Dena den, hori ezinezkoa da ez baldin baditugu ezagutzen zein izan diren historian zehar pentsalari ezberdinek eman dituzten erantzun eta jarraibideak: *“Ezin daiteke filosofatzen ikasi filosofia ikasi gabe”*. Bi faktore hauen arteko harreman dialektikoa, oreka lortu behar da: “Filosofia ikasi eta filosofatzen ikasi”, horixe baita metodologia honen benetako erronka.

Beraz, onartu beharra dago filosofia ez dela unibertso itxia, ez da egina dagoen zerbait, baizik eta zerbait irekia da, egiten ari den zerbait. Helburua ez da, beraz, eztabaidak ixtea, baizik eta eztabaidak piztu eta hastea. Metodo edo filosofiarako bide honek *zalantzak ereiten ditu* galderak lantzeko, eta edonolako dogmatismotik aldentzen da. Gogoratu behar da “Minervaren hontza”, filosofiaren sinbolo dena, arratsaldean irteten dela hegan egitera, itsutzen duen argitasunetik urrun, gehiegizko argitasunak ikusmena lausotzen baitu. Guztia da susmagarri, begi-bistakoa dena ere jarri behar da zalantzan, susmoaren maisu handiek egin zuten bezala: Marx, Nietzsche eta Freudek egin zuten bezala. Azken batean, zalantzaren ahuleziatik abiatu beharra dago, Descartesen moduan, ziurtasunaren segurtasunera iritsi ahal izateko.

Ezjakintasuna onartu beharra dago, umiltasun sokratikoz onartu ere: *“bakarrik dakit ez dakidala ezer”*, *horren bitartez egiaz erdituko gara*. Horretan zetzan haren “majeutika” edo erditzearen arte ospetsua.

Galdera, zalantza eta susmoa dira metodologia honetako elementu gakoak. Ikus daitekeen moduan, metodologia honek pentsamenduaren historiaren sakonenean murgiltzen ditu bere sustraiak, eta hainbat balorearen oinarriak jartzen saiatu beharra dago, hala nola, jarrera kritikoa, autonomia eta askatasuna. Horrela bada, onartu egingo dugu ilustrazioaren kutsu erabatekoa duen Kanten aholkua: “Sapere aude”, “ausartu pentsatzera”.



• IKASKETARAKO BALIABIDEAK

Hemen aurkezten diren baliabideak, funtsean, praktikoak dira. Alferrikako hitz-mordoiloak ekiditen dituzte eta "harira" joaten saiatzen dira, oinarrikoa den horretara. Euren helburua irakaskuntza-ikaskuntza prozesua erraztea da, eta Filosofiaren Historia argia, laburra eta zehatza erakusten dute. Alderdi didaktikoak lehenetsi dira beste edozeren gainetik. Laguntzeko eta bideratzeko pentsatuak daude. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua errazteko egokienak diren materialak honako atal hauetan banatu dira:

TESTU LIBURUAK.

- **Fontanals, J. Arrufat, M. Pueyo, M.** (1999) "*Historia de la filosofíaren*". Bartzelona. Edebe taldea.

Testu-liburu hau laguntza handia izan daiteke. Ikasketa-unitate bakoitzaren aurretik eskema bat azaltzen da, oso lagungarria edukiak antolatzeko eta lortu nahi diren helburuak zein diren jakiteko. Motibatzeke, gai bakoitzaren hasieran atal berezi bat dago: "*invitación a la unidad*" (*unitaterako gonbidapena*), eta jarraian koadro kronologiko batzuk datoz, oso erabilgarriak gai bakoitzeko testuinguru historikoa, politikoa eta kulturala kokatzeko. Filosofoak argitasunez eta sakon aztertzen dira. Edukiak sendotzeko proposatzen diren jarduera eta ariketak askotarikoak dira, gai bakoitzari doituak eta koherenteak.

- **Tejedor Campomanes, C.** (1993) "*Historia de la Filosofía en su marco cultural*". Madril. S.M Argitiletxea.

Beste testu-liburu on bat. Izenburuak berak dioen bezala, testuinguruari ematen zaio batez ere pisua. Testuingurua hainbat koadro sinkronikoez osatzen dute, alegia, *historia, kultura, zientzia eta filosofia*. Horrela, ikasitako egile bakoitza kokatu daiteke, ikuspegi holistiko edo orokor bat hartu daiteke eta korronteen arteko interdependentziak eta eraginak atzeman daitezke. Testuaren ertzean idatzitako ohar laburrek edukitik garrantzitsuena eta funtsezkoena dena laburtzen dute. Azpimarragarria da liburuko "Panorámica general" (ikuspegi orokorra) atala, unitate didaktikoen hitzaurre gisa balio baitu.

BIBLIOGRAFIA OROKORRA


- **Cerezo, J. J.** (2002) "*Historia de la Filosofía*". Madril. Acento argitaletxea.

Lan hau lau liburuxka txikiagotan banatua dago:

- I. "Desde los orígenes de Grecia al fin de la Edad Antigua". (Greziaren sorreratik Antzinaroaren amaierara)
- II. "De la Edad Media al Renacimiento". (Erdi Arotik Pizkundera)
- III. "La Edad Moderna". (Aro Modernoa)
- IV. "La edad contemporánea". (Aro Garaikidea)

Lan laburra eta zehatza da, ezin hobea eduki-multzoetako ezagutza-adierazleak prestatu eta sakontzeko. Modu erraz eta ulergarrian dago idatzita eta, beraz, oso lan erabilgarria eta erabilerraza da. Erreferentzia-lan txiki bat da, eta ikuspegi osatua eta zehatza ematen du Filosofiaren Historiaren alderdirik funtsezkoenen inguruan. Oso gomendagarria. Hizkuntza nahaspilatsua eta mordoiloa ekiditen du eta estilo argia, gertukoa eta ulergarriaren alde egiten du.

- **Turnbull, N.** (1999) "*Qué sabes de filosofía*". Bartzelona. B. argitaletxea



Lan originala da, nolabait ikonoklasta aurkezpenari eta edukiei dagokienez, baina modu dibertigarri eta lasaian hurbiltzen gaitu Filosofiaren Historiaren gai handietara. Ziurrenik, lan honek duen gauzarik onena da, azpimarratzen duela nola filosofiako gai zaharrek gure oraina ulertzeko balio diguten. Iraganera begiratzen du, gaur egungo ikuspuntutik, egiaztatzeko, sistemak, ideiak eta teoriak ordezkatu egin badira ere, arazo filosofiko zaharrek kezkatu egiten gaituztela oraindik ere.

- **Kunzmann, P., Burkard, F. P., Wiedmann, F.** (2000) *“Atlas de Filosofía”*. Madril. Alianza argitaletxea.

Liburuki honek pentsamendu filosofikoa laburtzen du pertsonaia garrantzitsuenen bitartez. Irakurleari filosofiaren funtsezko arazoen berri ematen dio, bai eta horiei erantzuna emateko modua, metodoak eta terminologia ere. Kapitulu bakoitzeko ikuspegi orokorrak pentsamendu filosofikoaren testuinguru historikoa argitzen du. Atlas honen osaerak argitasun handia ematen du, filosofo edo eskola bakoitzaren funtsezko ideien eta kontzeptuen deskribapen zehatza ematen duenez. Berrikuntza moduan, ideia filosofikoak marrazki eta grafikoen bidez adierazten ditu. Orrialde ilustratu horien funtzioa testuen argigarri izatea da, horiek osatu edo laburtzea. Helburua ulermena erraztea eta norberak bere buruari galderak egin ditzala sustatzea da. Lan arina, didaktikoa da, lagungarri diren eskema ilustratuez betea.

FILOSOFIAKO HIZTEGIAK

- **Ferrater Mora, J.** (1990) *“Diccionario de filosofía”*. Madril. Alianza. Lau liburuki.

Filosofia hiztegiei dagokienez, gaztelaniaz dagoen lanik garrantzitsuena; gai sitematikoak, biografikoak eta historikoak uztartzen ditu. Erreferentzia bibliografikoak ere ematen ditu. Filosofia-maila guztietarako erabilgarria da.

- **Martínez Riu, A. Cortés Morató, J.** (1991) *“Diccionario de filosofía”*. Bartzelona. Herder argitaletxea
- CD-ROM euskarrian dagoen hiztegia da, Jordi Cortesek sortua eta garatua. Morató. ISBN 84-254-1991-3.

Hiztegi erabilgarria da, praktikoa, erabilera anitzetakoa. Informaziora iristeko erabiltzen duen sistemaren bitartez edozein filosofo edo kontzeptu bilatu daiteke erraz eta eraginkortasunez. Lotura ugari ditu, egileen testuetara eramaten dutenak, teorien emandakoa sendotzeko, edota azaltzen den egilearekin lotutako kontzeptuetara eramaten dutenak. Leihoen bidezko sistema du: sarrerak, hiztegia, kronologia etab., horrela, modu eroso, azkar eta errazean iris daiteke edozein dokumentazio motatarara. Tresna oso erabilgarria da ikasketak-unitateak prestatzeko. Bilaketa-sistema eraginkor eta funtzionala du eta interesgarri irizten ditugun zati horiek inprimatu daitezke. Euskarri informatikoa duenez, aldi berean dauzkagu, testu-liburu on bat eta hiztegi on bat.



WEB ORRIAK

- <http://www.educa.rcanaria.es/usr/ibjoa/Filos/menu.html>

Filosofiaren Historiarako hainbat apunte daude (PDF bertsioan), ikasketa-unitateetan proposatutako egile guztiak azaltzen dira, eta hizkuntza argi eta errazean. Web-orriaren bitartez, testu askotara iris gaitzke iruzkinak egiteko, bai eta eguneratutako hainbat baliabidetara ere. Azpimarratzekoa da duen izaera didaktikoa.

- <http://www.terra.es/personal/ofernandezg/general.htm>

Honako atal hauen kontsultak egin daitezke:

- Gaiak: atal honetan daude proposatutako eduki batzuk.
- Testuak eta biografiak.
- Hiztegia.
- Kronologia

Badira, halaber, filosofiaren munduarekin lotutako hainbat lotura interesgarri.

<http://www.geocities.com/ramgil64es/>

Selektibitatera bideratutako hainbat gai, testu eta iruzkin dauzka, eta sarbide-proba hau egiteko oso erabilgarriak izan daitezke. Ikasketa-unitateetan zehaztutako egile asko ikus daitezke orri honetan.